

sortu

AUZOLAN POLITIKO IREKIA,
KOLEKTIBOA ETA PARTE HARTZAILEA

Gordailu legala:
SS-1471-2012



www.sortu.net

SORTU

AUZOLAN POLITIKO IREKIA, KOLEKTIBOA ETA PARTE HARTZAILEA

HITZAURREA

1.- PROZESUAREN DINAMIZAZIORAKO LAN TALDE NAGUSIAREN SORRERA	7
2.- "IDEIEN BORROKA", KONTRASTE ARIKETA	8
3.- SORTUren ERATZE PROZESUA	8
4.- SORTUren BARNE HAUTESKUNDEAK	9
5.- ERATZE PROZESUAREN INGURUKO KONTESTU POLITIKOAREN ITZAL LUZEA .	10
6.- HARTURIKO ERABAKI ETA EZTABAIDA GAI NAGUSIAK.....	10
I.- OINARRI IDEOLOGIKOAK:	11
a) ERABAKI NAGUSIAK:	11
b) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:	11
II.- ILDO POLITIKOA:	12
a) ERABAKI NAGUSIAK:.....	12
b) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:	12
III.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA:	13
a) ERABAKI NAGUSIAK:.....	13
b) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:	14
c) Hiru borroka moldeez:.....	14
d) Barne funtzionamenduaz:	14
e) Barne korronteez:.....	14
f) Berme Batzordeaz	14
g) Politika Feministaren arduradunez	14
h) Ipar Euskal Herriko SORTUren prozesuaz.....	15
IV.- BARNE HAUTESKUNDE PROZESUA:	15
a) ERABAKI NAGUSIAK:.....	15
b) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:	15
V.- ERATZE PROZESUAN ZERA BAIEZTATU DA:	15

SORTU PONENTZIA

I.- SARRERA.....	16
1) JARDUERA POLITIKORAKO AGERTOKI OROKORRA.....	17
2) PROIEKTU POLITIKOA	17
3) ABIAPUNTU, OINARRI ETA GARAPEN DEMOKRATIKOAK.....	18
4) PRAKTIKA POLITIKOA	20
5) ANTOLAKUNTZA IRIZPIDEAK.....	22
6) ONDORIO NAGUSIAK.....	23
II.- OINARRI IDEOLOGIKOAK.....	24
1.- SORTUREN DEFINIZIOA.....	24
2.- IDEIEN BORROKA	25
3.- SORTUREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	25
4.- INDEPENDENTZIA.....	26
5.- SOZIALISMOA	28
6.- EUSKARA	29
7.- FEMINISMOA	31
8.- INTERNAZIONALISMOA.....	31
9.- EKOLOGISMOA	32
10.- DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA: PERTSONA ASKE ETA KONPROMETITUAK.....	33
11.- EUSKAL HERRI ANITZA	34
12.- HEZKUNTZA PROIEKTUA	35
13.- ANTIMILTARISMOA	36
14.- SEXU ASKATASUNA.....	37
I.- NAZIOARTEKO EGOERA	37
II.- FRANTZIAR ESTATUKO EGOERA.....	40
III.- ESPAINIAR ESTATUKO EGOERA.....	41
IV.- EUSKAL HERRIKO EGOERA.....	44
A.- IPAR EUSKAL HERRIKO EGOERA	44
B.- HEGO EUSKAL HERRIKO EGOERA	45
IV.- ILDO POLITIKOA	51
A.- ESTRATEGIA POLITIKOA.....	52
Printzipio estrategikoak.....	53
Nazio askapenerako borroka: klase borrokaren eta eraldaketa sozialaren adierazlea	
Euskal Herrian.....	54

Subjektu iraultzailea: Euskal Langile Herria	55
Subjektu iraultzailea: Euskal Langile Herria (EHL).....	56
ENAMen bilakaera estrategikoa	56
Bide demokratiko eta politikoak	57
Helburu estrategikoaren ezaugarriak.....	59
B.- TAKTIKA POLITIKOA	60
C.- KONFRONTAZIO DEMOKRATIKOA.....	61
a. Iraultzailea.....	63
b. Demokratikoa.....	63
c. Nazionala	64
D.- GATAZKA POLITIKOAREN KONPONBIDEA	64
E.- NAZIO ETA JENDARTE ERAIKUNTZA.....	66
Nazio eraikuntzaren eta eraldaketa sozialaren defnizioa	68
Nazio eraikuntzaren eta eraldaketa sozialaren ezaugarriak.....	69
Esku-hartze orokorreko jarduera eremu zehatzak.....	71
V.- KOMUNIKAZIOA.....	74
1.- KOMUNIKAZIO POLITIKOA ERROTIK BERRITZEKO PREMIA.	74
2.- BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOA ETA TRESNAK.....	75
3.- KOMUNIKAZIOAREN ANTOLAKETA, PLANGINTZA ETA PARTE-HARTZEA	76
4.- SARE SOZIALETAN ETA INTERNETEN NOLA JOKATU, NOLA IRABAZI.....	78
5.- DISKURTSO ULERTERRAZA, PRAKTIKOA ETA GERTUKOA.....	79
6.- HERRITARRAK ERAKARTZEKO MARKA ERAGINKORRAREN BILA	81
VI.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA	82
A) SORTUREN ANTOLAKETA EZAUGARRIAK	82
Barne bizitzaz	82
Helburu estrategikoez eta antolaketa ereduaz.....	86
Nola? Hiru borroka moldez.....	87
B) SORTUREN EGITUREN FUNTZIONAMENDUA.....	90
1.- Tokiko egitura (auzoa zein herria):	90
2.- Hiriburu mailako egitura:	95
3.- Eskualde mailako egitura:	99
4.- Herrialde mailako egitura:.....	101
5.- Nazio mailako egiturak:.....	105

HITZAURREA

SORTUren Eratze Prozesua, **Ezker Abertzaleko militantzia osoak 2012-2013 urteetan, hamalau hilabetez, luzatu duen auzolan politiko ireki, kolektibo eta parte hartzaile erraldoiaren emaitza da.** Esku artean duzun Ponentzia da lan mardul horren emaitza ikusgarriena, sortze bidean eginiko lanak asko eta ezberdinak izan diren arren. Hitzaurre honen bidez, gure asmoa onartu den Ponentziaren testua azaldu aurretik SORTUren Eratze Fasea nola burutu dugun azaltzea da eta, nola ez, emaitzak gainbegiratzea.

1.- PROZESUAREN DINAMIZAZIORAKO LAN TALDE NAGUSIAREN SORRERA

Lehen lana, SORTUren Eratze Prozesua dinamizatzeko **Lan Talde Nagusia** osatzea izan zen. Horretarako, azken urteotan Ezker Abertzalearen Formazio prozesu ezberdinetan ibili den hamar laguneko taldea izendatu zen, gazteak, langileak, emakumeak, herrigintzakoak eta egiturakoak bertan txertatuz.

Lan Talde Nagusiaren lehen lana, SORTUren Eratze Prozesuan landu beharreko atalak zehaztea izan zen, ondoren, atal horiek nola landuko ziren zehazteko. Lehen hausnarketa horren ondorioz Eratze Prozesua lantzeko lau atal zehaztu ziren:

- a) SORTUren perfil politikoa finkatuko zuten OINARRI IDEOLOGIKOAK
- b) SORTUren lana zuzenduko zuen ILDO POLITIKOA
- c) SORTUren lan politikoa sozializatuko zuen KOMUNIKAZIOA
- d) SORTUren eraginkortasuna ziurtatuko zuen ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Gauzak horrela, **Lan Talde Nagusiaz gain, gai bakoitzaren inguruko lau azpi lan talde osatu ziren**, ahal zen neurrian Lan Talde Nagusia osatzeko erabili ziren irizpide berak mantenduz, gazteak, langileak, emakumeak, herrigintzakoak eta egiturakoak txertatuz.

Prozedura arruntetan, izendatutako lan talde batek idatzi izan ohi du Kongresuetan aurkezten diren eztabaidarako Ponentziak. Gurean ez zen horrelakorik egin. Eztabaida askoz ere irekiago eta parte hartzaileago izan zedin, Lan Talde Nagusiak SORTUren Eratze Kongresurako Ponentzia idazteko

oinarrizko materiala -170 fitxa inguru- **KONTRASTE ARIKETA** batetik eskuratzea erabaki genuen. **“IDEIEN BORROKA”** deitu genion lan horri.

2.- “IDEIEN BORROKA”, KONTRASTE ARIKETA

Gauzak horrela, joan den **2012ko udaberrian, ia hiru hilabetez**, Ezker Abertzaleko 300dik gora lagunek Hego Euskal Herriko 30 eskualdetan, 8/12 lagunez osaturiko lan taldeetan (ahal zen neurrian bertan gazteak, langileak, emakumeak, herrigintzakoak eta egiturakoak txertatuz) **gai bakoitzaren inguruan lau azpi lan taldeek proposaturiko 170 fitxen inguruan egin zuten lehen eztabaida prozesua**. Emaitza, ikusgarria izan zen, ehunka ekarpen egin baitzitzaizkien proposaturiko fitxa multzoari. Toki askotan lan horretan bost edo sei larunbata pasa zituzten batzar horietako partaideek.

“IDEIEN BORROKA” izeneko Kontraste Ariketa horren ondorioz eskuraturiko oinarri politikoak kontutan izanik, **2012ko udan lau azpi lan taldeek, SORTUren Eratze Prozesurako Ponentzia prestatu zuten eta Eratze Prozesua bera funktatu**. Uda amaierarako eztabaidarako Ponentzia idatzita zegoen.

Une berean, eztabaidarako metodologia prestuko zuen aditu taldea sortu zen, “IDEIEN BORROKA” izeneko Kontraste Ariketan jasotako esperientziatik abiatuz, benetako eztabaida, zabala, irekia eta kolektiboa antolatzeke asmoz. Erabakia argia izan zen: **“Talde Dinamikan” oinarrituriko prozesua garatzea proposatu zuten eta hala onartu zen**.

3.- SORTUren ERATZE PROZESUA

2012ko udazkena hasieran SORTUren Eratze Fasean eztabaidatuko zen Ponentziaren banaketa zabalari ekin zitzaion. Batzaz beste, herriz-herri eta eskuz-esku, 18.000 Ponentzia banatu ziren Hego Euskal Herri osoan eta baita euskal preso politiko bakoitzari ere ale bana bidali zitzaion. Gehienak jaso eta batzuk baita ekarpenak ere egin zituzten.

Metodologiarako lan taldeak proposatua, herri zein auzo bakoitzean Ponentzia eztabaidatzeko lau batzar ireki antolatzea erabaki zen, 2012ko azaroan lehena, Oinarri ideologikoa. 2012ko abenduan, bigarrena, Ildo Politikoarena, 2013ko urtarrilean, hirugarrena, Antolaketa eta Funtzionamenduarena eta, 2013ko laugarrena, otsailean, Komunikazioari dagokiona. 2013ko otsailean ere barne hauteskunde prozesua burutu zen arduradunak hautatuz eta 2013ko otsailaren 23an SORTUren I. Kongresua Iruñeko Baluartean burutuz.

Guztira, eta batzaz beste, **240 herri eta auzoetan antolatu ziren** eztabaidarako lau batzarrak eta,

batzar guztietan jende kopuru berak hartu ez bazuen ere, guztira **6.000 lagundik gorak esku hartu zuen**, erdiak baino gehiago 35 urtetik beherakoak izan zirelarik eta emakumezkoak, herena. Gauzak horrela, **gure militantziak eztabaida eta parte hartzeko aukera zabala izan zuen, Euskal Herrian antolatutako ia 1000 batzar ireki horietan**. Azken lau hilabeteotan, auzolanean eta hausnarketa kolektiboan, **6.000 kide horiek 16.000 lan ordutik gora eskaini zizkioten SORTUren Eratze Prozesuari**.

“Talde Dinamika” modalitatean antolatutako batzar horiek behar den moduan dinamizatzeko, Metodologiarako **Lan Taldeak eginiko materialean oinarrituta, 600 dinamizatzaile inguru aritu ziren** lanean 240 batzar horien hausnarketa eta ekarpena zuzentzen eta jasotzen.

Lan erraldoi horren emaitza da Lan Talde Nagusiak landu, aztertu, sintetizatu eta bozketarako prestatu behar izan dituen Oinarri Ideologikoei egindako emendakinak (400dik gora), Ildo Politikoari eginikoak (900dik gora) eta Antolaketa eta Funtzionamenduaren inguruan aurkeztutakoak (500 gora). **Denetara, proposaturiko Ponentziari 1.800 emendakin aurkeztu zitzaizkion 240 batzarretan**, hauetako asko eta asko hobekuntza motakoak ziren arren, ez ziren gutxi izan izaera alternatiboa izan zutenak.

Azkenean, Oinarri Ideologikoetan 65 paragrafoetatik emendatuak izan zirenak 33 izan ziren eta bozketatan onartu ondoren aldatutakoak 18, testu osoaren % 28a, eta Ponentziaren Oinarri Ideologikoen atalaren onarpena maila, % 77koa izan zen. Ildo Politikoari dagokionez, 240 paragrafoetatik, emendatutakoak 55 izan ziren eta hauetatik bozketan onartu ondoren aldatutakoak 35, testu osoaren % 14a eta Ponentziaren Ildo Politikoaren atalaren onarpena maila, % 91a. Azkenik, Antolakuntza eta Funtzionamenduaren atalean, 83 paragrafoetatik, 45 izan ziren emendatutakoak eta hauetatik bozketatan onartu eta aldatutakoak 21, testuaren % 25a eta Ponentziaren Antolakuntza eta Funtzionamenduaren atalaren onarpena maila, % 82koa. Gauzak horrela, oro har esan genezake **Ponentzia osoaren onarpen maila, % 82koa izan zela**.

4.- SORTUren BARNE HAUTESKUNDEAK

Azkenik, **2012ko abenduan eta 2013ko urtarrilean, barne hauteskunde prozesuan, auzo, herri eta egitura bakoitzak SORTUren maila guztietako ardurak betetzeko izenak proposatu zituen**. Ehunka izan ziren proposaturiko izenak. Maitasun handiz azaldu ziren hautagai guztiekin kontrastea egin ondoren, SORTUren ardura nazionalak zein herrialdeetako ardura guztiak betetzeko proposamenak jasotzen zituzten plantxak osatu ziren, baita herri zein auzo mailako gehienak ere, zenbaitetan hutsuneak egon arren. Kongresua aurretik, batzar guztietan **proposaturiko plantxak bozkatu ziren eta baita barne arduretarako pertsonak hautatu, % 25 inguru berrestearen bidez eta % 75 inguru hautaketa librean**.

5.- ERATZE PROZESUAREN INGURUKO KONTESTU POLITIKOAREN ITZAL LUZEA

Dena dela, SORTUren Eratze Prozesua Ezker Abertzaleak bizi izan zuen une politiko oso zehatzean eman zen, “Zutik EH” hausnarketa eta ondorengo estrategia globalaren aldaketaren ondoren eta horrek Ponentziaren eztabaida eta bozketa prozesu osoa, maila orokorrean bada ere, onerako eta txarrerako baldintzatu zuen, Eratze Prozesuaren eztabaiden garapenean zein bozketetan ere argi geratu zen moduan.

Lehenik eta behin, argi geratu zen SORTUren Eratze Prozesurako prestaturiko Ponentzian eta garaturiko eztabaida osoan, **estrategia globalaren birmoldaketa ardatza izan behar zuela**. Gutxi batzuk saiatu ziren arren, ez zen onartu “Zutik EH” hausnarketaren bidetik ateratzea edota atzera jotzea proposatzen zuten hausnarketarik onartu.

Bestetik, **Estatuen politika inobilistek** ere pisua izan zuten eztabaidan, batez ere Ildo Politikoa zehazterakoan. Izan ere, Ildo Politikoaren hausnarketa eta eztabaida ez zen berbera izango baldin eta estatuek gatazka politikoari konponbide demokratikoa emateko borondatea eta praktika azaldu izan balute. Ildo Politikoak, horrela, estatuen aldetik zegoen boikot politiko argiari erantzuteko balio behar zuen.

Nahikoa ez balitz, 2012 eta 2013ko hasieran hartan, **hamalau hilabetez euskal gizartea sustrietatik astindu duten gertakariak ere eragin zuten eztabaidaren presentzia politiko eta sozialean**. Euskal Herrian bi greba orokor izan ziren, euskal preso politikoen aldeko mobilizazio erraldoiak, LABen, Ikasle Abertzaleak erakundearen eta Ernai Gazte Erakundearen sorrera ekarriko zuen eztabaida eta Kongresuak, Hauteskunde Autonomikoak EAEn... Guzti horrek Ezker Abertzaleko militantzia osoa bere lanetan murgilduta izan zuen eta SORTUren Eratze Prozesuaren sorreraren inguruan bideratu nahi izan zen gertakari sozial nagusia bideratzeko atentzio gunea ezin izan zuen izan.

Baina hala eta guztiz ere, **Eratze Prozesuaren eztabaida pentsa baino biziagoa** izan zen eta baita jarritako helburuak bete ere. Ez dugu ahantzi behar, bai Euskal Herria eta baita Ezker Abertzalea ere, trantsizio prozesuan murgilduta daudela. Herrien eta langileriaaren etorkizun sozialista XXI mendean funkatzeko bide berriak eztabaida bizian baitaude hemen eta munduan. Guk, SORTUren bidez, gurea, Euskal Herrikoa, martxan jartzen hasi baino ez gara egin.

6.- HARTURIKO ERABAKI ETA EZTABAIDA GAI NAGUSIAK

I.- OINARRI IDEOLOGIKOAK:

A) ERABAKI NAGUSIAK:

- 1.- SORTU Ezker Abertzale osoaren erreferente politiko nazional nagusia izango da.
- 2.- SORTUK bere egiten ditu Ezker Abertzalearen helburu estrategiko historikoak, independentzia, sozialismoa, euskalduntasuna eta, hemendik aurrera, feminismoa.
- 3.- SORTUrentzat, Euskal Estatuak, Euskal Errepublikak, gure ereduak gauzatzeko eta bermatzeko tresna da.
- 4.- SORTUrentzat, masa borroka, herritarren borroka, lehentasunezko lanabesa da, borroka ideologikoa funtsezkoa eta borroka instituzionala ezinbestekoa.
- 5.- SORTUK garapen eredu propioa eraikiko du, eredu sostengarria deritzana gaindituz.
- 6.- SORTUK beste jatorri eta identitate batzuetako pertsona eta kolektiboak gure borrokara erakarriko ditu, nazio eraikuntzan eta eraldaketa sozialerako prozesuan benetan integratuz.
- 7.- SORTUK bere burua antimilitaristatzat jotzen du. Indar okupatzaileen aurrean, Alde hemendik! aldarrikatzen du eta Euskal Estatuak ejertzitorik ez duela izango baieztatzen du.
- 8.- SORTUK homofobiaren, xenofobiaren eta arrazakeriaren aurka borrokatuko du eta Estatu laikoak sustatuko du.

B) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:

- 9.- Egungo Europar Batasunaren ereduaren aurkakoa da SORTU. Etorbizunean Euskal Herria Europar Batasunako kide izatea ala ez, euskal herritar guztien esku utziko dugu erreferendum batean.
- 10.- Ezkerra eta sozialismoa ulertzeko modu guztiek lekua izan behar dute SORTUn.
- 11.- Proiektu politikoa integrala izan dadin, ezinbestekoa du aldarrikapen feministak jasotzea eta bere egitea, jendarte feminista eraikitzea.
- 12.- Herritar euskaldun eleanitzez osatutako Euskal Herri euskalduna berrezartzeko, euskara lehenetsi behar dugula alor publiko zein pribatu guztietan. Euskara da Euskal Estatuak bermatuko duena.

Aldatuak izan diren paragrafoak: 43, 45, 49, 52, 55, 56, 66, 72, 78, 81, 84, 92, 97, 98, 102, 104, 105 eta 106 (denetara 18 aldatu dira, testuaren % 28a)

ONARPEN MAILA, % 77KOA

II.- ILDO POLITIKOA:

A) ERABAKI NAGUSIAK:

A) ILDO POLITIKOAZ:

1.- Ildo Politikoaren elementu nagusiak dira estrategia politikoa, taktika politikoa, konfrontazio demokratikoa, gatazkaren konponbidea eta nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala.

B) ESTRATEGIAREN OINARRIEZ:

2.- Klase borrokak Askapen Nazional eta Sozialerako borrokaren forma eta edukia hartzen ditu. Langileria eta herri sektoreak babestuko dituen eta gure eskubide nazional eta sozialak itzuliko dizkigun euskal marko nazionala aldeztu dugu.

3.- Konfrontazio demokratikoko strategiaren eskutik, aldebakartasunez, prozesu demokratikoa ireki dugu.

4.- Desobediencia zibil eta politikoa, nazio eraikuntzan eta eraldaketa sozialean aurrera egiteko borroka tresna da, herri boterea Estatuaren boterearen aurrez aurre jartzeko alternatiba da.

C) ESTRATEGIA GARATZEKO TAKTIKA POLITIKOAZ:

5.- Taktika politikoa estrategia politikoa garatzea ahalbidetzen duen elementu dinamikoa da, urrats mailakatuak, indar metaketa eta egindako aurrerapenekin kontsekuentea izango den aliantza politika errazteko.

D) GATAZKA POLITIKOAREN KONPONBIDEAZ:

6.- Gatazka elkarrizketaren, negoziazioaren eta akordio politikoaren bidez konpontzeko eskaintza egin du beti, konponbide demokratikoaren subjektua eta hartzaila euskal herritarrek izan behar direla aldarrikatuz. Aldebakarreko urratsak egin eta hainbat ekimen bultzatu ditu eta horretan sakonduko dugu.

B) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:

7.- Euskal nazioaren askapenerako eta eraldaketa sozialerako subjektu iraultzailea, Euskal Langile Herria da. Euskal herritarra ez da soilik Euskal Herrian bere lan indarra saltzen duen langilea, baizik eta horrezaz gain, euskaldun sentitzen dena, euskal naziotasunaren kontzientzia duena, euskaldun sentitzen dena.

8.- Estatuak indarkeria estrukturala, sistemikoa eta antolatua darabilte. Zilegiak dira herriak ematen dizkien erantzunak.

9.- Iraultza Demokratiko Nazionala da garatu nahi dugun proiektu politikoaren ezaugarri nagusia. Iraultzailea, egungo klase eta nazio errealtateak errorik eraldatzen dituelako; demokratikoa, bide politiko eta demokratikoetatik egingo dugulako; eta, Nazionala, Euskal Herri osoa barnebiltzen duelako.

10.- SORTUK aliantza estrategiko nazionalan parte hartuko du, eta eragile politiko, sindikal eta sozialez osatutako Herritarren Bloke Independentistaren aldeko apustua egingo du. Euskal Estatua eratzea eta onartua izatea helburu izango duen klasearteko Aliantza Nazionala osatzea izango da hurrengo helburua, konpromiso historikoa hitzartzea.

11.- Nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialerako estrategia da, Herri gisa bizirauteko eta garatzeko bermea. Estatua eratze bidean nazio proiektua eraiki behar dugu. Horretarako, ezinbestekoa da nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala gure ekinbide politikoaren erdigunean kokatzea.

12.- Estatuak errepresio makinaria bere horretan mantentzen dute. Estrategia horri, politikoki aurre egiteko ardura hartzen du SORTUK, bereziki euskal preso politikoaren eta euskal iheslarien eskubideen aldeko lana eginez eta arreta handia jarriz gaixotasun larria dela medio muturreko egoera pairatzen dutenengan. SORTUrentzat, amnistia, euskal preso eta iheslarien etxeratzea baino eduki sakonagoa duen kontzeptua da, Euskal Herriaren aitortza eta autodeterminaziorako eskubidea aitortuko dituen eszenatoki demokratikoaren ezaugarri politikoetako bat amnistia, eta ez egungo marko legalean sartzen den edo ez den errepresaliatuekiko figura juridiko bat.

Aldatuak izan diren paragrafoak: 4, 5, 7, 8, 21, 25, 26, 28, 31, 33, 41(Sarrerakoak), 0, 5, 24, 26, 28, 29, 32, 36, 37, 39,,40, 44, 45, 46 (Abagunekoak), 79, 119, 142, 145, 148, 160, 165, 190, 199 eta 204 (Ildo Politikokoak). (Denetara 35 aldatu dira, testuaren % 14a aldatu da)

ONARPEN MAILA, % 91KOA

III.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA:

A) ERABAKI NAGUSIAK:

A) ANTOLAKETAREN EZAUGARRIEZ:

1.- Barne mailako demokrazia parte-hartzaile iraunkorra, euskararen lehentasuna eta partaidetza parekidea.

B) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:

B) MILITANTZIAREN EREDUAZ:

2.- Militantziaren eredu berria, dinamizatzaile soziopolitiko izaera, herri sektore ezberdinen arteko elkarlana eta auzolana bultzatuko duena. Militantez gain, beste multzo zabal batek osatzen du SORTU: oinarri sozialak. Militantea, SORTUko egituran zein herri erakunde ezberdinetan iraunkorki lanean diharduena da eta, nola ez, kuota ordaintzen du "Sortukidea" delako. Dena dela, SORTUren egitasmoarekin bat egiten duten oinarri sozialeko kide guztiek ere kuota ordaindu beharko lukete, beraien kasuan borondatezkoa bada ere, militanteen kasuan, ezinbestekoa delako.

C) HIRU BORROKA MOLDEEZ:

3.- Hiru dira garatuko ditugun borroka esparru eta molde nagusiak: Masa borroka, Borroka ideologikoa eta Borroka Instituzionala, azken hau, aliantza instituzionalaren bidez garatuko badu ere. Hauek izango dira SORTUren antolaketa ereduaren bizkarrezurra. Borroka esparru horien baitan landuko dira SORTUren lan ildo nagusiak, alegia, Nazio Eraikuntza/Eraldaketa Soziala eta Gatazkaren Konponbidea.

D) BARNE FUNTZIONAMENDUAZ:

4.- Egitura erabakitzaileak eta proposatzaileak izango ditu SORTUK. Bestetik, funtzionamendu berria ezaugarrituko duten hiru elementu izango ditu SORTUK oinarrian: parte hartze kolektiboari begirako bitartekoak, Batzar Nazionalaren dinamika ugartzea eta Eskualdeak politikaren aplikaziorako esparru bilakatzea.

E) BARNE KORRONTEEZ:

5.- SORTUK ez du barne korronte antolatuz onartuko. Espazio politiko ezberdinak onartuko dira, baina ez dira espazio gisara zuzendaritza organoetan ordezkaturik egongo.

F) BERME BATZORDEAZ

6.- Berme Batzordeko kideak, dekalogoak edota Barne Arautegia, Kontseilu Nazionalak proposatuko ditu, herri batzarretan eztabaidatua eta onartua izan beharko dute, Batzar Nazionalan azken oniritzia eman aurretik.

G) POLITIKA FEMINISTAREN ARDURADUNEZ

7.- Politika Feministan bermatzeko Barne Plana osatu eta bideratuko da.

H) IPAR EUSKAL HERRIKO SORTUREN PROZESUAZ

8.- SORTU erakunde nazionala da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko Kontseiluak osatu dira eta, Kontseilu Nazionalerako ere bost esparru hauetako kideak hautatuak izan dira. Ipar Euskal Herriko SORTUren eratze prozesu osoa datorren 2014ko neguan amaituko da.

Aldatuak izan diren paragrafoak: 111, 113, 114, 115, 116, 121, 130, 131, 132, 134, 147, 150, 155, 156, 157, 161, 162, 178, 182, 187 eta 189 (denetara 21 aldatu dira, testuaren % 25a)

ONARPEN MAILA, % 82KOA

IV.- BARNE HAUTESKUNDE PROZESUA:

A) ERABAKI NAGUSIAK:

1.- Ardura guztiak barne hauteskunde prozesuen bidez hautatuak izango dira Auzo/Herri Batzarretan.

B) EZTABAIDA, KORAPILO ETA ERABAKI NAGUSIAK:

2.- Hautatu hauen artean, batzuk nominalki (aukera librea) eta besteak ekipoa (berrestea) hautatuak izango dira.

3.- SORTUko edozein kidek du, bere burua aurkezteko edota hautatua izateko eskubidea. Hautatua den unetik aurrera, militante bihurtuko da.

4.- Hautatuak direnek beren kargua SORTUren esku utziko dute beti, eta hautetsi izaera gal dezakete, Berme Batzordeak hala erabakitzen badu.

5.- Guneetako zein aparatuetako kideak edota liberatuak, arduradun politikoak izendatuko ditu eta dagokion egiturak berrestu beharko ditu.

6.- Instituzioetarako hautagaiak gehienez zortzi urtez, salbuespen arrazoituak salbu.

7.- Ardura liberatuetan dauden hautagaiak, ardura hori lau urtez beteko dute eta gehienez zortzi urtez egongo dira bertan, salbuespen arrazoituak alde batera utzita.

V.- ERATZE PROZESUAN ZERA BAIEZTATU DA:

- Argi geratu da, SORTU indar politiko nazionala dela. SORTUk sortu nahi duen Euskal Estatuazazpi lurralde historikoez osaturiko lurraldeari dagokiona da.

- Argi geratu da, independentistak garelako, gure helburua ez dela marko autonomiko edo instituzionalen hobekuntza bilatzea, independentziarako bidea jorratzea baizik Europar Euskal Estatu, Euskal Errepublika, sortzeko.
- Argi geratu da, sozialistak garen heinean, gure helburua ez dela kapitalismoa humanizatzea edota hobetzea, errotik iraultzea baizik. Horregatik Euskal Estatu sozialista bihurtu dadin lan egingo dugu.
- Argi geratu da, gure helburua ez dela Euskal Herri elebiduna edo hiru eleduna osatzea, herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna sortzea baizik. Euskarara da Euskal Estatuaren euskalduntasuna bermatuko duena, eta ez alderantziz.
- Argi geratu da, gure jendarte eredu, balore feministetan eraikiko dugula. Euskal Estatu balore feministetan oinarritutakoa izango da, genero zapalkuntza ekidinez eta parekidetasuna bermatuz.
- Argi geratu da, askapen prozesu hori bide politiko eta demokratikoetatik egingo dugula, euskal herritarren iritzia kontuan hartuz beti eta aliantza politika berria dela medio. Euskal Estatu sortuko da euskal jendartean baitan asmo hori hegemonikoa bihurtzen badugu arlo linguistikoan, kulturean, sozialean, sindikalean, politikoan eta baita instituzionalean ere. Herri Kontsulta bidez zabalduko dugu Euskal Estatuaren aroa.
- Argi geratu da, ideiez eta bidez gain, ideia horiek bururaino eramateko nahiko indar militante badugula. Euskal Estatuaren sorrera Euskal Herri osoaren auzolanaren emaitza izango da, baina SORTUren motor izatea tokatuko zaio.

SORTU PONENTZIA

I.- SARRERA

Antolakuntzaren ikuspuntutik, **SORTU “Zutik Euskal Herria” ebazpenaren adierazpen politiko eta organizatibo zehatza da.** Aipatu ebazpenak ekarri zuen eztabaida estrategikoan egindako eguneratzeak jasotzen dituen antolakundea da SORTU. Ebazpen hark bihurtzen du **SORTU Euskal Herriko independentisten eta sozialisten erreferentzia** jarduera eta finkatzen ditu garatu beharreko lanak borroka politikoan, Prozesu Demokratikoan, masa borrokan, konfrontazio ideologikoan eta erakundeetako jardunean. Horrela, **ENAMen ondarea eta, aldi berean, aipatu ebazpenak ekarri zuen eztabaida estrategikoan egindako eguneratzeak jasotzen dituen antolakundea da SORTU.**

“Zutik Euskal Herria” ebazpenaren mamia ez ezik, SORTUren prozesu eratzailerako eztabaidan jasotako eduki nagusien bilduma jasotzen da “Sarrera” deritzan lehen atal honetan. Hau da, azarotik

otsailera egin den prozesuan **oinarri ideologikoen, lerro politikoaren eta antolakuntza ereduaren eztabaidan erabaki eta behin betiko txostenean jaso denaren marrazkitzat har genezake.**

1) JARDUERA POLITIKORAKO AGERTOKI OROKORRA

Eraikitzen ari garen Prozesu Demokratikoa da SORTUrentzat lan egin eta jarduteko agertoki nagusia; lehenik eta behin, gutxieneko nahikotasuna izango duen egoera demokratikoaren bila; bigarrenik, Euskal Herriaren nazio izaera onartua izateko eta euskal herritarrek erabakitzeko eskubidea gauzatzeko, marko demokratikoa helmuga izanda; eta hirugarrenik, modu iraunkorrean, gure proiektuari lotutako helburuak eskuratzeko bidetzat hartuta.

Euskal Herriaren Autodeterminazioaren bidea egitera goaz, autodeterminazioa eta lurraldetasuna gauzatu ahal izateko ahalmena eskainiko duen Marko Demokratikoa eskuratzeko ekimen politiko orokorra. Autodeterminazioa ez da eskubidearen erabileraren une zehatzera mugatzen, eta ez da ulertu behar inoiz iristen ez den etorkizuneko helburu estatiko gisa. Estrategia independentista trazio ardatz eta herri aktibazioa aurrera egiteko motor izango duen borroka prozesu moduan ulertu behar dugu, **prozesu hori euskal herria eta estatuen arteko konfrontazioa izango du ezaugarri eta alde anitzeko akordioen bidez aurrera egiten joango da.** Gaurtik hasita, eta erabilerarako eta inplementaziorako bideak urratuko diren heinean, euskal herritar guztien erabakitzeko eskubidearen bermean eta independentziara hurbildu egingo gaitu. Prozesu bat dela eta, aldi berean, Prozesu Demokratikoaren muina dela ulertu behar da.

Estatuekin akordioen bitartez edo aldebakartasunetik, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzen joan behar du. Ereku orokor horretan kokatzen du SORTUk bere jarduera politikoa, bere estrategia eta bere proiektu politiko independentista eta sozialista errealitate bilakatzeko apustua

2) PROIEKTU POLITIKOA

Gure proiektu politikoa historian zehar Ezker Abertzaleak berea egin duen berbera da, Euskal Herri independentea, sozialista, euskalduna eta, orain feminista, hau da, Estatu egiturak izango dituena. **Euskal Estatua behar dugu Euskal Herriak bizirik irautea eta bere garapen osoa bermatzeko,** herri nortasuna eta herritarren eskubideak zein ongizatea ahal bezain beste garatzeko. **Estatu propio batek eskaintzen dituen bitartekoak behar ditugu,** baita beste herriekin eta estatuekin harremana izateko ere. Soilik burujabetza izanda parteka daiteke burujabetza.

Euskal Herri sozialista nahi dugu. Sozialismoaz ari garenean, kapitalismoaz ari garenean bezalaxe, halabeharrez, pertsona edo herritarrez baino, klase sozialez hitz egin behar dugu. Hala, **sozialismoa Euskal Herriko langile klasearen programa propio gisa ulertzen dugu, bai eta esplotazioa, injustizia eta bazterketa ez ezik, horiek eragiten dituen sistema soziala, hau da, kapitalismoa, errotik kentzeko bidean pausoak emateko tresna bakartzat.** Halaber, sozialismoa

askapen sozialerako prozesu handi baten moduan ezaugarritzen dugu, ororen gainetik, oinarri gisa ekoizpen-bitartekoen jabetza sozializatzen joatea eta herri-klaseen zerbitzura egongo den ekonomia demokratikoa eta baita zenbait kasutan planifikatua ere ezartzea hartuko baditu ere, beste borroka batzuk bere baitan ulertuko dituen, hala nola, euskara, feminismoa, ekologia edo eskubide sexual eta erreproduktiboen defentsa. **Prozesu horren gidaritza Euskal Herriko langile klaseak izan behar du**, Euskal Langile Herria (edo PTV) izena har dezakeen herri-bloke hegemonikoan, duen dinamika sozialean, aldi berean jendarte-dinamikan independentziarantz eta kapitalismoa gainditzeko bidean indarrak jarriz. Logikoa denez, **prozesu hori gure herriaren ezaugarrietara egokitzen da, gure historia, nortasun eta gaurko zein etorkizuneko beharretara; zentzu horretan, sozialismo identitarioaz ari gara**, historikoki sozialismoa eraikitzeke izan diren bide guztietako esperientzietatik ikasiko badu ere, ez baitu horietako bat bera ere bere horretan kopiatzeko asmorik. **Horretan datza XXI. mendeko sozialismoa deritzanaren funtsa.**

Euskal Herri osoa estruktura politiko bakar batean egituratzea dugu egitasmo, zazpi herri-aldeak batuko dituen proiektu politikoa, hain zuzen ere. Arabarren, gipuzkoarren, bizkaitarren, lapurtarren, nafarren eta zuberotarren **lurraldea berriro batzeko nahi dugu Euskal Estatu**a, askatasun osoa irabazteko eta herri nortasunari eusteko eremu egokiena delako.

Herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna da guk nahi duguna. Euskara euskal herritar guztien komunikazio bitarteko nagusia izatea dugu azken helmuga, gurea herri hizkuntz-anitza izango bada ere. Euskara eta euskal kultura osoki garatu gabe ezinezkoa da herri nortasuna mantentzea, asimilazioan erori gabe irautea. Euskararik gabe, historian ahaztuta galtzea litzateke Euskal Herriaren patua.

Euskal Herri feminista. Sistema kapitalistak esplotazio modu berezitua ekarri dio emakumeari, gehienetan are eta bortitzagoa eta ankerragoa. **Gure proiektua integrala da eta, neurri horretan, askatasuna eremu orotara zabaldu nahi du.** Horrenbestez, emakume eta gizonezkoen erabateko aukera eta **eskubide berdintasuna lortzea, parekidetasun erdiestea**, eta hain errotuta dagoen sistema patriarkala gainditzea ezinbesteko betebeharrak izango dira, Euskal Estatu Sozialistak zinez zapalkuntzari amaiera jarri nahi badio.

Jakin badakigu helburu estrategikoak ez direla berehala eta denak kolpe bakar batean etorriko. Euskal Herriak askatasuna bereganatzeko egin beharreko ibilbideak izaera dinamikoa du. Prozesu izaera du, askapen nazionalerako eta eraldaketa sozialerako prozesua, hain zuzen ere.

3) ABIAPUNTU, OINARRI ETA GARAPEN DEMOKRATIKOAK

Gure proiektua gauzatu ahal izateko Iraultza Demokratiko Nazionalerako fasea ireki dugu. Azken bururaino eramaten saiatuko garen egitasmoak, ezbaierik gabe, oinarri demokratikoa baitu.

Izan ere, Euskal Herriaren nazio aitortza eta erabakitzeko eskubidea demokraziari lotuak dira gure herrian. **Ezin daiteke demokrazia garatu Euskal Herriko pertsonak beren etorkizuna aske eta kanpo injerentziarik gabe erabaki ezin badute.** Beraz, erabakitzeko eskubidea **ez da abertzaleon aldarrikapen bat, eskabide demokratiko bat baizik.** Eta eskubide hori soilik inposiziotik eta demokraziaren kontrako posizioetatik uka daiteke.

Eskubide aitortzatik eskubidea gauzatzeko bideak, baldintza politiko eta sozialen berehalako bizkortze ikaragarriarik eta prozesuaren bat-bateko azkartzerik ematen ez den bitartean, **fase ezberdinak eta tarteko helmugak bete beharko ditu.**

Subjektu politikoa osatu beharra dago, jakinda Euskal Herriaren aitortzak ez duela automatikoki nazio erakundetzea ekarriko. **Gaur egungo erakundeen errealtetatik abiatu beharko dugu eremu politiko berri bat irekitzeko,** eta bertatik **lurralde ezberdinetan, arian-arian eta herritarren borondatearen arabera, eredu instituzionala zehazteko.** Subjektu politikoa erakundetzea demokratikoa izango da.

Europar kokatuko den Euskal Estatu lortzeko bidean, euskal subjektu nazionala birstortzeko lanari lotuta, **erdibideko helmugak bilatu beharko dira; esate baterako, lau herrialdeko Autonomi Estatu bat Hego Euskal Herrian** (Nafarroako berezitasuna aitortu beharko duen eta lurraldeen arteko harremana zehaztuko duen barne araudia ere jaso beharko du) **eta Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioa.**

Iraultza Demokratiko Nazionala da egungo fase politikoaren ezaugarritzea, eta "Zutik Euskal Herria" ebazpenaren bitartez bere praktika elikatze ekarpenak egin zituen Ezker Abertzaleak: **soilik bitarteko politikoak erabiltzeko erabakia, aldebakartasuna, indar metaketa, herri harresia eta, konfrontazio demokratikoa eta desobedientzia.**

Borrokarako eta eragiteko moldeak fase politiko berriaren mesedetan jarri genituen. **Indar metaketaren norabidean, masa borroka, borroka instituzionala, desobedientzia eta borroka ideologikoa izango dira tresna bakarrak indar harremana aldatzeko, herri atxikimendua lortzeko eta nazioarteko babesa bilatzeko,** Prozesu Demokratikoan barrena.

Aldebakartasuna prozesuaren giltzarria da. Halaxe izan zen apustuari ekiteko orduan, lanabes eraginkorra bihurtu arte, baita aurrera begira ere. Prozesu Demokratikoak taupada mantendu dezan, aldaketa politiko eta soziala ekarri nahi dugunon eskutan dagoen lanabesa da.

Aldebakartasuna gure herriari eta nazioarteko komunitateari bideratu diegu, eta alde askotariko konpromisoak lortu ditugu eremu horretako zenbait eragiletan. **Aldebakartasuna ez dugu soilik alor teknikorik eta gatazkaren konponbidera aplikatuko.** Estatuarekin aldebakartasunaren eske- ma egituratzea ere nahi genuke, bai ondorioei aterabidea emateko (Aieteko Adierazpenak jasotzen duen moduan), bai euskal eragileen artean lortu beharreko akordio politikoek Madrilekin eta Parisekin nola inplementatu adosteko. Bistan da, haatik, indarrean direla trab-

ak eta boikota. Indar harremanean eragitea besterik ez dugu, eta horretarako, indar metaketa, konfrontazio demokratikoa, herri harresia, desobedientzia eta **arlotan guztietan aplikaturiko aldebakartasuna izango da palanka**. Zailtasunak eta oztopoak handiak izango dira, Espainiako Gobernuak konponbideko prozesuan sartzeko asmorik ez duelako. Halere, **eragiteko eta egoerak aldatzeko indarra lortuko dugu indar metaketa, konfrontazio demokratikoa, herri harresia, desobedientzia eta arlotan guztietan aplikaturiko aldebakartasunari esker**.

4) PRAKTIKA POLITIKOA

Aliantza politika eta indar metaketa dira SORTUren jardunean ezinbesteko osagaiak, eta horrek, nahitaez, **bere egin moldeak ere baldintzatuko ditu, ez, ordea, SORTUari dagokion lan propioa**. Izan ere, bere jarduera propioaz harago, **beste indar eta eragile batzuekin egin beharreko elkarlanak lehenetsun osoa du, estrategia osoaren arrakastarako gako baita**. Aldaketa politikoa eta soziala gauzatu ahal izateko eta berezko proiektu politikoa egingarri bilakatzeko behar den indar harremana sortzeaz ari gara.

Independentziaren eta burujabetzaren aldeko **beste indar batzuekin hitzartutako akordio estrategikoei eman digute ibilbide horretarako lehen oinarria**. Luzera begirako elkarlana askoz ere gehiago sakontzea eta zabaltzea nahi dugu, ez soilik indar politikoen arloan, baita eremu sozial eta sindikalean ere. **SORTUren aburuz, Independentziaren aldeko Herritarren Bloke Nazionala eratzea burujabetza osorako strategiaren adierazpen goren litzateke**. Edonola ere, SORTUK beste erakundeekiko eta eragileekiko errespetu osoa gordeko du, **norberaren autonomia eta erabakitze gaitasuna errespetatuta**.

Orain arte hitzartutako akordio estrategikoei egunerokoan dute jada isla, hauteskunde eta erakundearen arloetan, mobilizazio eremuan eta borroka ideologikoan. **Akordio horiek** eta bertan dauden partaideek irismen estrategikoa eman ahal diete **beste alor eta eremu batzuetan egin daitezkeen elkarlari eta aliantza taktikoei**; adibidez, erabakitze eskubidearen defentsan saiatu behar direnak, aldarrikapen demokratiko soilen gainean.

SORTUK bere gain hartzen du, halaber, konponbidearen arloan jorratu beharreko elkarriketa politikoari eta erdietsi beharreko akordioei perspektiba estrategikoa emateko erantzukizuna. Hau da, edozein dela ere adostutakoa, proiektu independentista bideratzeko aukera ireki-irekia geratzea dugu ardura.

Konponbidearen arloan elkarlana eta akordioak sustatzea garrantzitsua da, ahalik eta indar gehienek, proiektu politiko ezberdinak izan arren, gatazkaren iturburua eta ondorioak gainditzeko ekarpena egin dezaten. **Berez, eremu honek behar luke beste indar batzuekin topo egiteko eremurik zabalena, orain arte etsai edo arerio izan ditugunak barne**. Gure borondate garbia eta zintzoa da: gatazka gainditu nahi dugu. Esan bezala, elkarriketak eta akordio politikoak landu beharreko baliabideak ditugu gatazka gainditzeko eta Euskal Herriaren geroa marrazteko.

ETAk bere ekinbide armatua behin betiko amaitutzat jo du, baina horrek ez dio indarkeri ezberdinen errealtateari bukaera eman, ezta gutxiagorik ere. Euskal Herriaren eskubideen egiturazko ukazioarekin batera, **Estatuek errepresio makinaria bere horretan mantentzen dute.** Estrategia horri, bake bidea gaiztotzen duen neurrian, politikoki aurre egiteko ardua hartu behar du **SORTUK, bereziki euskal preso politikoen eta euskal iheslarien eskubideen aldeko lana eginez eta arreta handia jarriz gaixotasun larria dela medio muturreko egoera pairatzen dutenengan.** Baina euskal errepresaliatuen inguruan, SORTUren azken helburua, gatazkaren konponbidearekin batera, euskal preso eta iheslari politiko guztiak kaleratzea eta etxeratzea da, mundu osoan bezalaxe, hemen ere, ezin bailiteke gatazkaren konponbidea amaitutzat eman egun errealtate errepresibo horri ere amaierarik eman gabe. **Gauzak horrela, SORTUrentzat, amnistia, euskal preso eta iheslarien etxeratzea baino eduki sakonagoa duen kontzeptua da, hain zuzen ere, euskal errepresaliatuen errealtatea sortu duen Euskal Herriaren aurkako ukazio politikoaren amaiera adierazten duen egoeraren ezaugarrietako bat da, hau da, Euskal Herriaren aitortza eta autodeterminaziorako eskubidea aitortuko dituen eskenatoki demokratikoaren oinarri politikoetako bat da amnistia, eta ez egungo marko legalean sartzen den edo ez den errepresaliatuekiko figura juridiko bat.** Esan beharrik ez dago bide horretan herriarren mobilizazioa, jendartearen kontzientziazioa eta eragileen aldetik harturiko konpromisoak erabakigarriak izango direla.

Aldi berean, gatazkak eragindako biktima guztien aitortza egiteko, egia osoa ezagutarazteko eta, etorkizunean bizikidetzat positiboa lortzearen, zauriak ixteko dinamiketan konpromisoa hartzeko borondatea du SORTUK.

Baina gurea, Nazio eraikuntzan eta eraldaketa sozialean oinarritutako estrategia independentista da eta arlo edo ildo batetik harago, ildo osoa logika orretan kokatzen da. Faktore eta aldagai asko dago jorrazteko, denak garrantzitsuak, egin beharreko ibilbide politikoaren osagaiak guztiak, eta berezitasun propioekin bakoitza. Nolanahi ere, abagune politiko gorabehera, euskal nazioaren eraikuntza dugu eguneroko lana, arlo orotan, eremu guztietan. SORTUK eta SORTUren parte-hartzea duten eragile politikoek egin beharreko ekarpena bi zentzutan ulertu behar da. Alde batetik, **herri mugimenduan sortutako dinamika soziala indartzea eta, beste batetik, herri-eragilearen emango diren ekimenei babes politiko ematea**, esate baterako, erakundeen inplikazioa indartuz. Izan ere **Fase honetako apustu nagusia Euskal Herriaren egituratze eta artikulazio nazionalen aurrera egiteko mekanismo eta tresneria eraikitzea da.** Honako helburuekin: Ezker Abertzalearen proiektuan sakontzea eta garatu ahal izateko baldintzak sortzea; Euskal Herriaren errealtate nazionala indartzea, lurraldetasuna indartuz Estatu propio bat eraikitze mekanismoak indartuz; Zutik Euskal Herria hausnarketak jasotzen duen moduan, gaur egun marko aldaketarako fasean gaudelarik, nazio eraikuntza balore politiko handia izaten jarraitzen du honako arrazoiengatik: egungo eremu instituzionalen mugak eta inposizioaren errealtate gordina arlo guztietan islatzen dena azalarazten segitzen du, salaketa hutsetik haratago **Beraz nazio eraikuntzak aldaketa politikorako beharra eta gatazka politikoaren irtenbidearena ere azalarazten eta bultzatzen ditu.** Bestetik, aldaketaren egunaren zain egon gabe, egunerokotasuna ematen die Euskal Herriaren aldeko lanari eta borrokari. **Fase honetan hain beharrezkoa den herri akti-**

baziorako lanabesa dira nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala. Azkenik, ekinbide eraginkorra da, urrats zehatzak eman baitaitezke, proiektu zehatzak gauzatze bidean.

Lan iraunkorra eta etenik gabekoa da eremu honetan herri eragileek eta pertsona askok egiten dutena. Intentsitate, **erritmo eta izaera ezberdinak aurki daitezke bertan, eta errealtate hori errespetatu beharra dago.** Ezker Abertzaleak aspaldi murgildu zuen bere burua eraikuntza nazionalan zein eraldaketa sozialean, baina **sortzen diren ekimen, eragileak eta dinamikak ezin daitezke Ezker Abertzalearen gune bilakatu.** Herri protagonismoaren erakusle izan behar dute dinamika horiek.

Kapitalismoaren ankerkeria langileak eta herri sektoreak aspaldi ez bezala kolpatzen ari den honetan, sektore iraultzaileok, ezkertiarrok eta aurrerakoioak muturreko bidegabekeriari aurre egiteko indarrak batu behar ditugu. Urgentziazko egoerari aurre egiteko, **SORTUk eguneroko jardun politikoan eta instituzionalean egiazko aldaketak bultzatu behar ditu politika ekonomikoan, fiskalean eta sozialean.** Aldi berean, **aldaketa politikoarekin batera aldaketa soziala bideratzeko proposamenak,** akordioak eta aliantzak egituratzeko indarra egin beharko du. Eta azkenik, **esplotazioari eta bazterketari aurre egiteko praktikari irismen estrategikoa eman beharko diogu, gure proiektu politiko sozialistari lotuta.**

5) ANTOLAKUNTZA IRIZPIDEAK

SORTU, Ezker Abertzalearen tresna politiko gisa, **borrokarako abagune eta eremu sektorial bakoitzean, abaguneak ahalbidetzen duen proposamen sozial ahalik eta garatuenak mantendu behar ditu,** bere diskurtsoa eta praxia klase borrokak, mobilizazio mailak, langile klasea eta herri sektoreen kontzientziazio eta borrokarako grinak dituzten baldintzetara egokituz; beti ere, Euskal Herriko independentista eta sozialista ororentzat erreferentzia gunea izaten saiatuz.

Barne demokrazia funtzionamendurako giltzarria da. Militantzian eta kidegoan eztabaida, hausnarketa eta ekarpenak zabaltzeko eta elkar trukatzeko bitartekoak jarriko dira. Bere hitzak izan behar du nagusi estrategia eta norabidea zehazteko orduan. **Militantziak, subjektu erabakitzailea behar du izan.** Eguneroko jardueran ezartzen diren ardurek eta konpromiso mailek, nahitaez, ezberdintasunak sortzen badituzte ere, kidego guztiak eta kide bakoitzak aukera osoa izango dute informazioaren transmisioan, eztabaida prozeduretan, prozedura horietan hartu beharreko erabaki nagusietan eta ardura banaketan parte hartzeko. **Barne kargu politikoak (organo erabakitzaileetakoak) boz bidez izango dira hautatuak, hauteskunde zerrendetarako SORTUk eramango dituen hautagaiak bezalaxe.**

Barne funtzionamenduan, demokrazia -informazioa eta elikadura politikoa, parte-hartzea, eztabaida (dialektika) eta erabakitze eskubideari lotuta- handia behar dugu oinarritzko printzipio gisara SORTUen, eztabaidak aberasteko eta erabakien gaineko batasuna indartzeko. **SORTUren barruan, eta ez beste inon, burutu behar dira eztabaidatzeko eta erabakitze prozesuak eta horretarako SORTUk beharrezkoak diren egiturazko, funtzionamenduzko eta metodologia**

arloko balia bideak jarriko ditu . Militanteak zuzenean edo kideen bozaren bidezko zilegitasunez osaturiko organoak izango dira erabakitzeke subjektu bakarrak.

Eraginkortasunari balio politikoa ematen diogu. Eraginkorrak izan eragina izateko, horixe da gakoa estrategia berrituari ahalik eta garapen handiena emateko. Elkarloturik dauden bi moduz ulertu behar dugun terminoa da: eraginkortasuna baliabide oro (politikoak, antolakuntzarenak, militanteak...) ahalik eta hobekien erabiltzeko, eta eraginkortasuna alde zehaztutako helburuak lortzeko. **Bide horretan, kritikak eta autokritikak funtsezko betekizuna izango du. Eraginkor izatea neurtu eta baloratu daitekeen zerbait da.** Boluntarismoa, inprobisazioa eta emaitzen gaineko balorazio eza gainditzeko modua da. **Bide egokian aurrera egiteko eta akatsak konpontzeko balio behar du, baita ardurak zehazteko eta banatzeko ere.**

Nazio estrategia da gurea eta, beraz, SORTU Euskal Herri osoko eta osorako antolakundea izango da, eta horretarako Ipar zein Hego Euskal Herrian antolatuko du bere burua. Urrats hori, ordea, ez da garai bateko Ezker Abertzalea berriro batzeko edo ezkerreko abertzale ezberdinen artean konfluentzia prozesu berri bat burutzeko egingo. Bakoitzak bere bidea egin du eta nortasun ezberdinak berezitu dira, baina, haatik, abertzaleen arteko batasunerako subjektua eraikia dago jada Ipar Euskal Herrian, EH Bai koalizioan. **SORTU hiru lurralde horietan eratzeko “Zutik Euskal Herria”-ra bidea egin duten lagunei zuzenduko gatzaizkio.**

Antolakunde euskalduna izango da SORTU. Euskara izango da barne bizitzarako hizkuntza, eta izan daitezkeen hutsuneetarako bitarteko eta plangintza zehatzak prestatuko ditu. **Kanpo komunikazioan ere euskara ezinbestekoa izango da, eta gazteleraren, frantsesaren eta ingelesaren erabilera gure mezuaren hartzailen arabera zehaztuko dugu,** dela euskal herritar ez euskaldunei begira, dela estatuetako iritzi publikoari edota agintariei begira, dela nazioarteko eragileei begira. **Lan hori modu egokian gara dadin ziurtatuko du Aholkularitza izeneko egitasmoak.**

Eta **SORTUk egitura parekideak izan nahi ditu** eta, bide horretan, parekidetasunari begirako **Barne Plana onartuko du eta plan hori gara dadin barne batzordea martxan jarriko du.**

6) ONDORIO NAGUSIAK

- Prozesu Demokratikoan aurrera egiteko, aldaketa politikoa eta soziala gauzatzeko, marko demokratikoa erdiesteko eta Euskal Herria independentziara eramateko bidean, **Ezker Abertzalea eta bere espresio politiko nagusia izango den SORTU, ezinbesteko motor politiko dira.** Lan hori bete ahal izateko egitura eraginkorra behar du, bere proiektu politikoaren erakusle eta bere kidego guztiaren bilgune izango dena. **Barne demokrazia eta kanpo gardentasuna oinarri izan behar ditu.**
- Askapen prozesuak luzerako hartu duen jitea dela eta, **indar metaketan eta aliantza politikan oinarritutako bilgune zabalak (nagusiki, akordio estrategikoen bide-tik gauzatzen ari dena) funtsezkoak dira baita desobedientzia, konfrontazio**

demokratikoa eta herri harresia esparruetan ere. SORTUK eremu horri ere eman behar dio lehentasuna, bertan garatu beharreko lankidetzazintzoari eta hedatu beharreko dinamika politiko zein sozialari ekarpena eginez.

• **Euskal Herria egunero-egunero eraiki behar da, eta lan horretan herria martxan behar dugu, herri mugimenduaren, jendarte eragileen eta herri sektoreen protagonismoaren bitartez.** Nazio eraikuntzari, eraldaketa sozialari eta herri aktibazioari berezko garrantzia ematea eta bultzatzea izango dira SORTUren eginbeharririk inportanteenak.

II.- OINARRI IDEOLOGIKOAK

1.- SORTUREN DEFINIZIOA

SORTU, independentzia eta sozialismoaren alde lanean diharduten Ezker Abertzaleko norbanakoen bilgune politikoa da. SORTUK barne bilduko duen Ezker Abertzalearen oinarri militante eta soziala oso zabala da, eremu eta arlo anitzetan lanean dabilena, hain zuzen. **Gaur egun, loturarik gabeko hainbat esparrutan lanean diharduten gizon-emakume independentista, sozialista, feminista eta euskaldunetz osatutako indar horien erreferente politikoa argia izango da SORTU.** SORTU izango den herritar batasuna, egungo jendarte errealtaterara egokitu beharrean, egungo errealtatetik abiatu beharko da, **egungo langileria eta egungo herri sektoreak uztartuz nazio eraikuntzaren eta eraldaketa sozialaren bidean.**

SORTU, Ezker Abertzalearen adierazpen politikoa den aldetik, **ENAMen erreferente dinamikoa eta nazio askapenerako eta sozialismoa eraikitzeko Prozesuaren motorra izateko helburuarekin jaiotzen da.** Bere zereginetako bat izango da indarrak kohesionatzea eta **Ezker Abertzale osoari norabide taktiko eta estrategikoa eskaintzea, hala arlo ideologikoan nola masa arloan eta arlo instituzionalean.** Gainera, bi ezaugarri nagusi hauek izango dituen aliantza politika bat bultzatu beharko du: **izaera estrategikoa duen proiektu iraultzaile abertzale eta sozialistarekin kontsekuentea izatea** eta, aldi berean, **erabakitze eskubidearen eta aurrerabide sozialaren alde abian jarritako prozesu demokratiko taktikoarekin koherentea izatea.**

Borroka ideologikoa, **borroka instituzionala eta, bereziki, masa borroka konfrontatzaile eta desobedientea izango dira sortzera goazen mugimendu politikoa jarduera ardatz nagusiak.** Horrenbestez SORTU alderdi politiko tradizionalen eredutik urrun dago, bai helburuetan, bai formetan eta baita eragiteko moldeetan ere. **SORTUK Euskal Herriarentzako demokrazia parte-hartzailean oinarrituriko proiektu politikoa integrala eta alternatiboa eraiki behar du.** Horregatik **Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Sozialerako lana bere zereginik garrantzitsuenetarikoak izango dira, gatazka politikoa irtenbidearekin batera,** nahi dugun Estatu independente, sozialista, feminista eta euskalduna lortzeko bidean, eta lan horretan aritzeko gaurdanik ezinbesteko tresna izan behar du SORTUK.

SORTU Ezker Abertzalearen adierazpen politiko nagusia da, haren erakunde politikoa, Euskal Herriko egungo errealitate sozioekonomikora egokitutako antolaketa tresna, **jendartearen eraldaketa sakoneranzko bidean langileriaren interesak eta herri sektoreenak uztartuko dituen**.

2.- IDEIEN BORROKA

Ekonomiari, zientziari, politikari, kulturari, erlijioari edo etikari buruzko ideia multzo bati dagokionez **jendartean zentzu komun bat eraikitze**ko prozesua da **ideologia**. Prozesu hori oso era ezberdinetan garatzen da, esplizituenetatik eta kontzienteenetatik hasi (zientzia, adibidez) eta modu inkontzientean eta plano sinbolikoan ematen direnetaraino.

Horregatik, **elite politiko eta ekonomikoak ideologiaz baliatzen dira botere harremanak sortzeko eta, batez ere, legitimatzeko**. Hala, Estatu eta sistema kapitalista jendartean erreproduzitzen dira, besteak beste **erlijioa, hezkuntza, aparatu juridiko politikoa, hedabideak eta kultura erabiliz herritarrentzat alienatzaileak diren ideia, teoria eta sinesmenen sare bat sortzeko**, hala nola ekonomia ez dela politika edo demokrazia betean bizi garela.

“Adi ez bazabiltzate, zapalduak gorrotatzera eta zapaltzaileak maitatzera bideratuko zaituztete hedabideek”, ohartarazten da ideien borroka lantzerakoan. Klase dominatzaileek nola jokaten duten jakin badakigulako, **SORTUk ideia faltsu eta alienatzaile horiek agerian utzi eta praktika askatzaileak eraikiko ditu**. Horregatik, SORTUrentzat borroka ideologikoa lehentasunezko borroka eremua da, masa borrokarekin eta borroka instituzionalarekin batera, eta ideologia hegemoniko eta dominatzaileari nagusitzea du helburu.

Iraultza Demokratiko Nazionala deitu diogun fase honetan borroka ideologikoa funtsezkoa izango da, baina ez soilik printzipio, teoria, ezagupen, kultura, argudio, erantzun eta kontraerantzun gisa ulertuta edo gezurrak suntsitzera eta egiak ereitera mugatuta, **baizik eta ekintza eta jarduera zehatzen bidez gauzatuta**. Gure borroka ideologikoa, ideologia dominatzailea pitzatzeko duena izango da, sistemaren aurkako borroka bikoitza funkatzeko. Hau da, nazio askapenerako eta eraldaketa sozialerako prozesuan aurrera egin, **kontra boterea sustatuko duen masa borrokaren eta borroka instituzionalaren bidez, bi borroka molde hauek emantzipazio bide osagarriak baitira**, beti ere, masa borroka (Herritarren borroka), lehentasuna izanik. **Herritarren borrokak izan behar du abanguardia**, eta borroka instituzionala honen mesedetara bideratu. Masa borroka elikatze bidean lan egingo dugu alor instituzionalean, eta ez alderantziz.

3.- SORTUREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

SORTUk bere egiten ditu Ezker Abertzalearen helburu estrategiko historikoak, hau da, Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna lortzea, internazionalismoaren, ekologismoaren, laizismoaren, antimilitarismoaren eta aniztasunaren balioetan ere oinarritua.

SORTUK **errebindikatzen duen nazioa Euskal Herria da, denboran zehar egiaztatutako nor-tasun historiko eta kulturala duen herria**. XVI. mendeaz geroztik herri hori espainiar eta frantziar Estaturen menpe egon da. XIX. mendearen amaieran, gerra karlistak galdu ondoren, EAJren nazionalismo burgesak independentziarako eskubidea duen nazio gisa errebindikatu zuen. Azkenik, XX. mendearen erdialdean langile abertzaleen hainbat sektorek abertzaletasun iraultzaile bihurtu zuten nazionalismo burges hori, sozialismoaren bidez inolako zapalkuntzarik gabeko nazio bat errebindikatu.

4.- INDEPENDENTZIA

Independentzia zazpi lurralde historikoz osatutako nazio baten burujabetzaren berme bakarra da. Kontrakoa, espainiar eta frantziar Estaturen menpe jarraitzea alegia, Euskal Herria bera ukatzea da, arrisku larrian jartzen baitu beraren biziraupen kultural, sozial, politiko eta ekonomikoa, neoliberalismo kapitalistaren doktrinaren azpian globalizatutako mundu batean.

Independentzia gure eredu politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaz erabakitzeke eskubidea bermatzeko eta gauzatzeko modua da. Haren bidez, erabakitzen duguna burutu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak eskuratu behar ditugu. Independentzia beharrezkoa da ekonomiaren eta kulturaren gaineko burujabetza politiko eta soziala bermatzeko eta erabakiak hartzeko orduan herritarrak parte aktiboa izan daitezen.

Guk munduko beste herri batzuekin elkarlanean jardun nahi dugu, elkartasun internazionalistaren izenean. Gure eremu naturala europar kontinentea da, eta herrien eta langileen Europa bultzatuko dugu, aitortzatik, errespetutik eta elkartasunetik.

AEBen ereduaren isla den **Europar Batasuna, inperialismoaren egungo fasean, munduaren hegemonia borrokatzeke sortu zen potentzia ekonomiko eta militarra da**. Multinazionalen, bankuen zein Alemaniako, eta beste maila batean Frantziako, burgesiaren nagusitasun ekonomikoa, politikoa eta kulturala (euro-zentrismoa) hedatzeko tresna da. Ezker Abertzalean, aitzitik, historikoki defendatu izan dugun moduan, **gure proiektu politikoa osatzen duten arrazoi kultural, antikapitalista, antipatriarkal, internazionalista, antiarrazista eta ekologistei jarraituz, herrien eta langileriaren burujabetzan oinarritutako Europaren aldekoak gara**. Horrexegatik, Ezker Abertzaleak, gaizki deituriko Europako Konstituzio delakoaren erreferendumean ezetzaren aldeko jarrera defenditu zuen. Halere, **Euskal Estatuaren sorrera bultzatzea dezakeen nazioarte mailako aliantza estrategikoei ez diogu muzin egiten** eta ezta etorkizunean Euskal Estatuaren segurtasuna eta biziraupena ziurtatu dezakeenari ere. Izan ere, gure helburu estrategikoak, **independentzia eta sozialismoa, erdiesteko ezinbestekoa dugu nazioartearen konplizitatea**, eta hain zuzen ere arrazoi horregatik, kapitalismoaren balore eta aginduetatik kanpo **eta Europako langileriarekin batera antolatzeke asmoa berresten dugu**. Euskal Herriak, Estatu izan ala ez, herrien eta langileriaren aldeko nazioarteko aliantza horren sorreran funtsezko papera izango du. Aliantza horren baitan funkatuko da egungo Europa neoliberalari aurre egiteko biderik egokiena. Beraz, **munduko ezkerreko mugimendu gehientsuenak bezala kritiko azaltzen gara Europar**

Batasunaren izaera antidemokratikoarekin. Jakitun gara, halaber, gure herriaren etorkizunarentzat erabakigarria izango dela hautatzea, haren kide izatea ala burujabetzaren bidetik alternatiba jorratzea. Tamaina horretako erabakia ezin da alderdi baten edo besteren nahi politikoaren menpe geratu. Eztabaida sakon eta zabala piztu beharko dugu euskal jendarte osoan, planteatzen dugun bidean herritarren konplizitatea eta erabateko ulermena ezinbestekoa izango ditugulako. Horregatik, **Europar Batasunako kide izatea ala ez, euskal herritar guztien esku utziko dugu, erabaki hori hartzeko antolaturiko erreferendum batean hitza eman dezan, une hori iristen denean Europar Batasunaren errealitatea kontutan izanik. Euskal Estatuak, beraz, European sortuko dugu, eta euskal gizartea izango da Euskal Estatuak Europar Batasunan sartzea eskatu behar duen ala ez erabakiko duena.**

Estatuaren kontzeptu tradizionalak dituen alde negatiboen jakitun izanik, **SORTUK bestelako Estatu eredu bat eskaintzeko konpromiso sendoa hartzen du.** Gure Estatuak nazio, klase edo genero zapalketa ororen kontra jardungo du, ekonomiaren, politikaren, jendartearen zein kulturaren arloan. Jendartearentzat onuragarriak diren elementuak bildu eta jasoko ditu, hala nola ideia sozialistak, demokrazia parte hartzailearen funtsa edo kulturen nahiz jatorrien aniztasunaren aitortza. **Gure Estatuak herritarrek parte hartzeko tresnak erabili eta garatuko ditu, subsidiarotasun printzipioa hartuko du oinarri lurralde eremu guztietan, auzolanaren eta batzarren bidez parte-hartze demokrazia sustatuz.**

Gaur egun, kapitalismoak mozorroa kendu du eta bere alderik ilunena erakusten digu lotsa izpirik gabe. **Gaur, botere eta oligopolio finantzarioek hartzen dituzte erabaki nagusiak, beraiek agintzen diete estatuei eta klase politikoari zer-nolako politika publiko eta (des)arauketak gauzatu behar dituzten beraien interesak asetzeko.** Gero, klase politikoak neurri horiek inposatzen dizkie langileriarri eta jendarte osoari, eskura dituen bitarteko guztiak baliatuz. Bitartean, patriarkatuaren iraupenak edo baliabide naturalen gutxiespenak sistema edo paradigma horren zutabe nagusi eta beharrezkoak izaten jarraitzen dute.

Hain zuzen ere, sistema eta paradigma horren kontra borrokatzeko konpromisoa hartzen dugu. **Paradigma dominatzailea irauli nahi dugu patriarkatuarekin bukatzeko eta Ama Lurrarekin bat egirik biziko diren pertsona eta kritikoek jendartea eraikitzeko, non gizon-emakumeak politikaren egile eta protagonista nagusi izango diren. Bide horretan, demokrazia parte-hartzailea jendartearen premiak boteretzeko horren zutabe nagusietako bat izango da.** Era berean, boteretzeko horrek bermatuko du herritarrak eta langileria izango direla politika egin eta erabakitzen dutenak, politikak ekonomian esku hartu eta eragin dezan. Eta, nola ez, **gure eremuan Estatuak ez dira merkaturaren tresna izango, herrien tresna baizik,** haien kulturarena, hizkuntzarena eta jendeena. Euskal Herriarentzako Estatu bat.

Era berean, independentzia nahi izateak ez du esan nahi kulturari dagokionez nazio homogeenoa eta uniformizatua nahi dugunik. **Guk nahi dugun nazioan bertan bizi eta lan egiten dugun pertsona guztion eskubide guztiak aitortuko dira,** baita beste jatorri batzuk dituztenenak edo beste identitate batzuei eusten dietenenak ere.

SORTUK helburu estrategikotzat daukan Euskal Estatu euskal herritarron gehiengoak hartutako erabakiaren bidez gauzatuko da. Estatu horretan, **SORTUK langileriaren eta herri sektoreen interesak babestuko ditu, nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala garatuz pertsona askez osatutako herri askea eraikitzeko.**

5.- SOZIALISMOA

SORTUK eraiki nahi duen Euskal Estatu Sozialistak askatasun osoa bermatuko du, esplotazio kapitalista eta patriarkala desagerraraziko du, eskubide indibidual eta kolektiboak babestuko ditu eta bizi baldintza duinak ziurtatuko dizkie pertsona guztiei. Hau da, Estatu integrala izango da. **Gobernu egitura izan beharrean, jendarte zibilaren eta egitura politikoen uztarketa izango da, proiektu politiko emantzipatzailearen bidean.**

XXI. mendean kapitalismoa errotik erauztea ahalbidetuko digun Euskal Herri sozialista aldarrikatzen dugu, euskal langileriak eta herri klaseek gaur egungo zapalkuntza eta esplotazioa behin betiko gaindi ditzaten, horrela bizimodu berriak eta pertsonen arteko harreman molde berriak sorraraziz. **Deshazkundearena izango da, zalantzarik gabe, jorratu beharreko bideetako bat.**

Horretarako, pertsona askez osatutako **Euskal Estatu sozialista eta antiinperialista eraiki nahi dugu**. Estatu horren helburua klase zapalkuntzarik gabeko jendartea eraikitzea izango da, justizian eta elkartasunean oinarritua, printzipio feministen arabera pertsonen parekidetasuna bermatuko duena.

Badakigu sozialismoa ulertzeko era desberdinak daudela eta desberdintasun horiek ezkerren zatiketa ugarien arrazoi nagusia izan ohi direla. Horregatik, gure proiektuaren helburua Euskal Herriko abertzale ezkeriar gehien biltzea denez, **ezkerra eta sozialismoa ulertzeko modu guztiek lekua izan behar dute Sortun. Beraz, printzipioetan irmo, baina proiektu politiko malgua izan behar du gureak**, biltzeko joera izango duena, ez jendea alboratzekoa. Gure proiektuak Euskal Herriko langileriaren eta herri sektoreen eskubideak nazio, klase edo genero zapalkuntza ororen aurrean defendatzeko balio behar du, **beti ere aurrerago zehaztuko diren gutxieneko printzipio batzuen baitan.**

SORTUrentzat honako hauek izango lirateke gutxieneko printzipio horiek: **klase borrokaren existentziaren onarpena eta horrekin batera, langile klaseak eta ELHak kapitalismoa gainditu eta jendarte sozialista eraikitzeko beharra**. Halaber, sozialismoa askapen sozialerako prozesu handi baten moduan ezaugarritzen dugu, ororen gainetik, oinarri gisa ekoizpen-bitartekoen jabetza sozializatzen joatea eta langile klasearen eta ELHaren zerbitzura egongo den ekonomia demokratikoa eta zenbait kasutan baita planifikatua ere ezartzea hartuz. Helburu dugun jendarte sozialista ez da goizetik gauera eraikitzen eta ekoizpen-sistema kapitalista indarrean dagoen bitartean, langile klasearen eta ELHren interesen aldeko alternatiba zehatzak proposatu behar ditugu, hala nola, **lana banatzea eta aberastasuna birbanatzea, herritar guztien ongizatea bilatuz, elkar-**

tasunaren printzipioan oinarritutako zerbitzu publiko indartsuak, auto-antolaketaren eta auzolanaren kulturaren defentsa, auzolanaren printzipioetan oinarritutako ekonomia sozial kooperatibista eta solidarioaren oinarri gisa...

Aurreko guztia eraiki nahi dugun eta justizia soziala helburu duen eredu sozioekonomiko propioaren mamia da, XXI. mendeko euskal sozialismoaren funtsa. Hor kokatzen dira, besteak beste **gure herrian tradizio luzea izan duten praktika komunitarioak, auzolanak, batzarrak...** Sozialismo horrek behin betiko gaindituko ditu Euskal Herriko langileriak eta herri sektoreek gaur egun pairatzen dituzten zapalkuntza eta esplotazioa eta, aldi berean, bizitza nahiz herri proiektu aske, burujabe eta duina gauzatzea ahalbidetuko du, kapitalismoa erro-errotik irauliz eta hari kontrajarriko zaizkion ekoizpen modu, jendarte molde, bizi eredu eta subjektibitate berriak sortuz eta eraikiz.

Gure eredu sozialista gure Ama Lurraren defentsan eta elkartasun internazionalistan oinarrituta egon behar da, kontsekuenteak izanez eta sistema kapitalistaren aurrean **beste kontsumo eta ekoizpen eredu bilatuz**, pertsonen, herrien eta naturaren esplotazioa gaindituko duen eredu, hain zuzen ere.

Gure eredu sozialistaren beste oinarri bat hau izango da: bizimodu hobearen bila beren **jatorrizko herri eta herrialdeak utzi behar izan dituzten Euskal Herriko langileekiko aliantza herritarra eta klasekoa**.

Halaber, **SORTUK kontrabotere herritarra eta klasekoa ere bultzatzeko konpromisoa hartzen du**, gobernuaren eta kontraboterearen arteko kontraesanak gure proiektu politiko sozialistan sakontzen eta aurrera egiten lagun diezagun.

6.- EUSKARA

Euskara gure herriaren nortasun ikur nagusia da, euskal komunitateak bere barne komunikazi-orako zein naturarekiko harremanetarako duela milaka urte sortu zuen tresna baita.

Euskal Herria eta euskaldunak Frantzia eta Espainia nazio-estatu gisa egituratzeko prozesuen biktimak gara, eta argi geratu da 30 urteko esperientzia autonomikoek ez dutela egoera hori iraultzeko balio izan. Ondorioz, mendetako zapalkuntzak geure hizkuntz komunitatea desegituratu du. Horrenbestez, herritar euskaldun eleanitzez osatutako Euskal Herri euskalduna berrezartzeko, ohitura indibidualak eta kolektiboak aldatu eta euskara beharrezkotzat jo behar dugu alor publiko zein pribatu guztietan, Euskal Estatu eskuratu bitartean ahal ditugun urrats guztiak emanez. **Euskal estatu gure hizkuntzaren biziraupenerako ezinbesteko tresna izango da, baina ez nahikoa**. Hitzun komunitatea izango da gure hizkuntzaren biziraupenaren bermea eta euskal estatu, gure hizkuntzaren biziraupenerako beharrezko diren politika aktiboen babes. **Euskara izango da euskal estatuaren berme bakarra. Euskararik gabe, Euskal Herririk ez.**

Euskal Estatuak ahalegin berezia egingo du eredu hori behetik gora eraikitzeko, jendartetik instituzioetara. Izan ere, oso argi daukagu Euskal Estaturik gabe ezinezkoa dela euskararen erabilera normalizatzea. SORTUren helburua herritar eleanitzez osatutako Euskal Herri euskalduna sortzea da eta, **bide horretan, SORTUK eta bere militantziak eredugarria izan behar dute bere ezaugarrietan eta bere praktika linguistikoan.**

Euskara da Euskal Herriaren nazio hizkuntza. Horrenbestez, **hizkuntza ofizial bakarra izango da Euskal Herriko lurralde osoan** eta hizkuntz funtzio guztiak (nazionalak eta sozialak) euskaraz beteko dira, euskal jendartean haren erabileraren normalizazioak aurrera egiten duen neurrian. Euskara izango da hizkuntza sozializatzailea eta lehenetsia.

Euskal Herriko beste bi hizkuntza mintzatuenek (gaztelania eta frantsesa) estatus berezia izango dute beren lurralde eremuetan. Halaber, euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren **hizkuntzetako beste hiztunei beraien hizkuntz eskubide pertsonalak bermatuko zaizkie.** SORTUren helburua euskal herritar guztiak euskaldun osoak izatea da, inork bere jatorrizko hizkuntza galdu gabe.

Euskal kultura, kontsumo produktu hutsa izatetik harago, herriaren ondarea eta euskal herritarron eskubidea da. Beraz, Euskal Estatuaren kultur ereduak herriaren eta herritarron zerbizura egon behar du, alegia, kultura demokratizatu egin behar da. **SORTUK kontzeptu berriak bereganatuko ditu, hala nola kultur aniztasunaren aitortza, parte-hartze kultura eta oinarritzko kultura; eta kontzeptu zaharrak indartuko ditu, hots, euskal kultura euskaraz egiten dena dela eta kultura bizkorra behar dugula euskaraz.** Horretarako, SORTUK kultur eredu berri eta eraldatzaileen sorkuntza sustatuko du.

Euskal kultura oinarri eta erdigune gisa hartuta, **garai desberdinetako eta munduko beste herri eta jatorri batzuetako kulturekin aberastuko dugu.** Kultura horiek guztiak modu egokian ulertu eta integratzeko, SORTUK gurearen iraunkortasuna eta garapena ziurtatu behar ditu, auzolanean, kontuan izanik kulturak zuzenean ukitzen duela emozioen arloa eta aldaketa sozialerako tresna nahiz tresna igorlea dela.

Kulturen eta hizkuntzen aniztasunaren eta orekaren bidetik, **egungo globalizazio uniformatzailearen ereduaren aurrean, kultur eta hizkuntz aniztasunaren galera geldiarazteko eredu proposatzen dugu, tokian tokiko kultura eta hizkuntza babestu eta haien garapen osoa sustatuko duena,** herritar askez osatutako herrien eta nazioen askatasunaren bidean Estatu sortzeko eta hizkuntza, kultura, herri eta nazio guztien eskubideak aitortzeko. Xedea Euskara Herria berrezartzea eta Europako hizkuntza guztien osasun beteko iraunkortasuna bermatzea da, etorkizun ekitatibo eta iraunkorraren berreraikuntza sozial eta politikoa ahalbidetzeko. Bide horretan aurrera egiteko, **hizkuntzen arteko hierarkia (nagusitasuna edo menpekotasuna ezartzea) bukatzea eta berdintasunezko tratamendua aplikatzea eskatzen dugu.** Hizkuntz komunitate guztiek dute eskubidea euren hizkuntza politika modu burujabea eta kanpo esku-hartzerik gabe definitzeko eta garatzeko euren lurraldeen barruan, inoren akulturazio prozesurik, kultur inpo-

satzerik edo hizkuntz asimilaziorik onartu gabe, inor behartua izan ez dadin “bere herrian arrotz” izatera. Ildo horretan, mundu ordena berria eratzea beharrezkoa dugu.

7.- FEMINISMOA

Feminismoa sistema patriarkalari aurre egiteko sortutako teorien multzoa da. Sistema patriarkatu kapitalistak pertsonen arteko botere harremanak sortu eta betikotzen ditu, emakumeak zapalkuntza egoera iraunkor batera kondenatuz. **SORTUren proiektua integrala izan dadin, ez-inbestekoa du aldarrikapen feministak jasotzea eta bere egitea.**

Patriarkatuaren desagertzea helburu, **gizon-emakumeon eskubide eta aukera berdintasuna bermatuko duen eredu behar dugu**, eta horretarako ezinbestekoa da gaur egun nagusi den jendarte eredu aldaketza. Beraz, pertsona askeak sortuko dituen praktika feminista integrala ezinbestekoa da. Pertsonengan eta ez enpresen etekinetan helburua jartzen duen jendarte eredu behar dugu. **Zaintza lanetan eta jendarte erreprodukzioan oinarrituriko ekonomia feminista behar dugu**, garapen eredu patriarkal kapitalista baztertuz eta pertsonekin eta naturarekin bat egingo duen eredu garatuz.

Jendarte eredu aldatu beharra dago. SORTUK pertsonen arteko harreman sozial berriak sortu nahi ditu, inolako **hierarkiarik gabeko harreman horizontalak**. Horretarako, egungo jendarte patriarkatu kapitalistatik abiatuta, SORTUK dio jendarte feminista eraikitze beharrezkoak diren baldintzak sortuko dituen oinarri feministetan funkturiko Estatu behar dugula, parekidetasunaren balioetan oinarrituta politika (in)formatzaile osoa gauzatu duena, pertsonen arteko erabateko begirunea sustatuko duena bizitzaren arlo guztietan, **hezkuntzaren arloan bereziki landuko dena, zapalkuntza patriarkalari aurre egiteko estrategiak artikulatuz eta uztartuz.**

SORTUren helburua patriarkatu kapitalista desagerraraztea da. Horretarako, era integralean egin behar zaio aurre, hau da, eremu guztietatik pertsona guztientzako errealitate berri bat eraikitzea ahalbidetuko duten estrategia eraginkorren bidez. **Zapalkuntza patriarkalari era integralean aurre egiteko, SORTUK hiru helburu eta eragite eremu finkatzen ditu: sozioekonomikoa, politikoa eta ideologikoa.**

Feminismoak, maila teoriko-ideologikoan zein praktika politikoan eta antolaketa mailan, **jendarte justu eta parekidearen aldeko eraikuntzan lagundu du eta lagunduko du.**

8.- INTERNAZIONALISMOA

Internazionalismoa, Ezker Abertzalearen pentsaera eta proiektu politikoaren funtsezko osagarria da eta, ondorioz, SORTUK bere ekinbide politikoaren garapen taktikoan zein estrategikoan txertatuko du. Internazionalismoa, gure jardura politikoan zehar lerro modura garatu behar dugu. **Elkartasun internazionalista, munduan sistema kapitalista, inperialista eta patri-**

arkalaren aurka borrokan diharduten sektore herritarren eta herrien beharretik sorturiko ekinbidea da, hori baita esplotazio zein zapalkuntzarik gabeko sistema munduan jorratzeko bide bakarra. Elkartasun internazionalistak askapen nazionalaren zein sozialaren aldeko borrokak elikatzen ditu munduko herri guztietan, elkarrengandik ikasiz eta, era berean, gure askapen borrokarekiko elkartasuna indartuz. **SORTUK bat egingo du egun indarrean dagoen sistema kapitalistaren ideologia menperatzaileen aurka borrokan diharduten herri eta estatu guztiekin.**

Gure jarduera internazionalista ezaugarritzen duten koordinatu ideologikoak honako hauek dira: justiziarekiko, berdintasunarekiko, parekidetasunarekiko eta herrien nahiz pertsonen autodeterminazio eskubidearekiko konpromiso politikoa, eta **SORTUK herrien askapen nazional eta sozialerako borrokarekin duen konpromisoa.**

Izan ere, Euskal Estatu sozialista eraikitzeak gure herriko langileriaren eta herri sektoreen interes estrategikoei erantzuten die, baina baita mundu zabalean sistema kapitalista, inperialista eta patriarkalaren aurka borrokan ari diren herri eta iraultza sozialen interesei ere. **SORTUren helburu estrategikoa erdiestea, hau da, Euskal Estatu sozialista sortzea, ezinbesteko baldintza da benetako politika internazionalista aurrera eraman ahal izateko** eta, horrenbestez, Euskal Herriak borrokan diharduten gainerako herriei egin diezaiekeen elkartasun ekarpenik handiena da.

Beraz, praktika internazionalista mailarik gorenera eraman ahal izateko baldintza **SORTUren proiektu politikoa erdiestea izanik, proiektu hori lorgarria izan dadin ezinbestekoa da bere baitan osagai internazionalista sendoa edukitzea**, gure borrokarekiko elkartasuna sustatuko duena, borrokan ari diren beste herri batzuen **esperientziekin gurea aberastuko duena eta munduko egitura kapitalista-inperialista ahultzen duten prozesuak babestuko dituena.** Labur esanda, urrats eta borroka orokor nahiz sektorial guztietan gure askapen prozesua indartuko duen **osagai internazionalista zehar-lerroa izan behar da.**

Halaber, internazionalismo hori garatzeko orduan, SORTUK kontuan izango du **jatorriz beste herri batzuetakoak diren eta Euskal Herrian bizi diren pertsonak eta kolektiboek jokatzen duten papera**, gure borroka haien herrialde eta herrietara eramateko eta haien herrialdeetako borrokak gure herrira ekartzeko.

9.- EKOLOGISMOA

Frogatuta dago **kapitalismoak proposatzen digun jendartea beste herri batzuk, pertsonak edo natura (Ama Lurra) esplotatuz soilik sostengatu ahal den hazkunde ekonomikoaren eredu delatela.**

Gaur egun bizi dugun krisi estrukturalak hazkunde ekonomiko mugagabearen oinarritutako garapen ereduaren mugak ikusarazten dizkigu. **Zenbait herrik, sistema ekonomiko alternatibo biltatuz, aldaketa prozesuak abiatu dituzte eta beren subiranotasuna berreskuratzen ari dira,**

sistema kapitalistaren eraginez pairatzen duten esplotazioa eragotziz; eta naturak berak ereduaren mugak erakusten dizkigu, elikaduraren, energiaren eta klimaren arloko inoizko krisirik larrienaren bidez. Herrialde hauek konstituzio eta lege berrien bidez garapenaren paradigma birpentsatzen ari dira, ekonomiaren eta ekologiaren arteko lotura berri bat ezarriz, ekosozialismoa garatuz. **SORTUK gure garapen eredu propio eraikitze bidean, han-hemen dauden oinarri hauetako ekimenak ere kontutan hartuz, dauden prozesu hauetatik ikastea proposatzen du.**

Euskal Herrian, dauzkagun baliabideak baino askoz gehiago kontsumitzen ditugu, gure lurraldeak jasan dezakeen baino kutsadura handiagoa sortzen dugu, eta hori guztia beste herri eta pertsona batzuen kontura egiten dugu. **SORTUK aldeztu duen ereduak Euskal Herriaren beharrian sozial, produktibo eta ekologikoei erantzun die, naturarekiko orekan beti.**

Pertsonen, naturaren eta herrien arteko harreman arduratsuak sustatuko dituen eredu soziopolitiko, sozioekonomiko eta soziokulturala behar dugu, natura errespetatu eta zainduko dela bermatuko duen eredu, beste arrazoi batzuen artean natur baliabideak mugatuak direlako eta laster agortuko direlako, hamarkada luzeetan zehar garatu dugun eredu suntsitzailearen ondorioz eta geratzen den apurraren iraupena bermatuko duen eredu sozioekonomiko iraunkorrik ez dagoelako. Horretarako, **SORTUK gure inguruneak eskaintzen dizkigun baliabideak zainduko ditu, zentzuz erabiliz eta haien iraunkortasuna bermatuz. Subirautza energetikoa bilatuko da printzipio horietan oinarriturik, horretarako deshazkunde bidea jorratu behar bada ere.**

Gure garapen eredu propioa aurrera eramatea ahalbidetuko duten tresnak behar ditugu. Bide horretan, subiranotasuna alor guztietara zabaldu, **euskal lurraldeen eta eskualdeen arteko garapen orekatua bultzatu eta kontsumo ohiturak aldatu behar ditugu.** Autosufizientziara eta lurralde kohesiora jo behar dugu, eta lurralde eredu birbanatzailea, multifuntzionala, solidarioa eta iraunkorra sustatu.

Elikaduraren eta, azken batean, bizitzaren merkantilizazioaren aurrean, SORTUK herrien elikadura burujabetzarako eskubidea errebindikatzen du. Honela ulertzen dugu guk eskubide hori: nekazaritzaren, arrantzaren eta elikaduraren arloan herriek beren politika propioak definitu ahal izatea; beren ekoizpena, erauzketa eta nekazaritzako nahiz arrantzako barne merkataritza babestu eta arautu ahal izatea, eredu berriaren helburuak lortzeko.

10.- DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA: PERTSONA ASKE ETA KONPROMETITUAK

SORTUK pertsona aktibo, kritikiko eta solidarioz osatutako jendartearen alde egiten du. **SORTUKIDEA pertsona konprometitu da zapalkuntza ororen aurka eta sexuen arteko berdintasunaren nahiz giza-eskubideren baten gabezia edo urritasuna pairatzen duten kolektibo eta herrien alde.** Pertsona aske eta konprometituak izateko **ezinbestekoa da hezkuntza eredu (arautua eta ez arautua) goitik behera errebisatu eta helburu horiek lortzeko bidean jartzea.**

SORTU homofobiaren, xenofobiaren, transforbiaren eta arrazakeriaren aurka borrokatuko da eta Estatu laikoa sustatuko du. Estatu horretan, hezkuntzak moralaren nahiz sexualitatearen arloko eredu zapaltzaileak baztertuko ditu, **familiako harreman mota berri guztiei bidea irekiko zaie eta sexuaren araberako rol eta lan banaketa gaindituko da.**

SORTUK sozialismoaren balioak bilduko dituen eta zapalkuntza ororen kontra borrokatuko den militante eredu sustatuko du. **Demokrazia Parte-hartzailea bultzatuko du, emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatuko duen eredu bideratuz.** Horri dagokionez, SORTUK ez du parte-hartzea modu orokorrean soilik sustatuko, aurretik egungo demokrazia eredu defizita eta justizia sozial falta gainditu behar baita.

SORTUren helburua jendarte guztiz parte-hartzailearen eredu bultzatzea da. Bertan, hauteskundeak eta parte-hartze zuzenerako bideak elkarren osagarri izango dira, eztabaida prozesuetan, erabakietan nahiz kudeaketan. Horretarako, **gobernu irekiak eratuko dira administrazioaren maila guztietan. Halaber, SORTUK herritarrek sortutako antolaketa erak bultzatuko ditu eta erreferendumen bidez hartutako erabakiak errespetatuko dira.**

Horretarako, **SORTUK, eskualde, herrialde nahiz nazio mailako herri galdeketak edota erreferendumak egin eta bultzatuko ditu, bertan hartutako erabakiak errespetatuz, baldin eta haien helburuek oinarrizko eskubideak urratzen ez badituzte.** Horrekin batera, egiten diren galdeketak eta **haien emaitzak onartu eta erabaki politikoetan txertatzen direla bermatzeko mekanismo egokiak sortzen joango da.**

Halaber, **SORTUK desobedientzia zibila bultzatuko, demokrazian sakontzeko bide gisa eta honela ulertuta:** jendaurreko ekintza kontzientea eta politikoa, bidegabetzat jotzen den lege edo agindu baten kontrakoa, lege edo agindu hori balio gabetzeko eta, legeak ukatzen dituen eskubide zibil eta sozialak de facto aitortuak izan daitezen, legedi berria zabaltzeko asmoz jendarte zibilak egiten duena. Guretzat, **desobedientzia zibila parte-hartze demokratiko kolektiboaren forma bat da**, botereak sustatutako lege edo jarduera bidegabeei erantzutea helburu duena. Desobedientzia zibilaren bidez lege edo egoera jakin bat onartzeari uko egiten zaio, era antolatuan, kontzienteki aurre eginez, haren zentzugabekeria agerian uzteko. **Desobedientzia zibila, Masa Borrokaren baitan, lehenetsiko da.**

Barne mailan, **SORTU parte-hartzean oinarrituko da eta erabakiak militantzia guztiaren parte-hartzearekin hartzeko prozesuak sustatuko ditu.** Erabakien horizontalizazioa. Halaber, kanpora begira ere parte-hartzea ahalbideratuko du.

11.- EUSKAL HERRI ANITZA

Euskal Herria bere historia, kultura eta nortasuna dituen herria eta nazioa da, eta horri eutsi nahi dio. Hala ere, SORTUK aintzat hartu behar ditu azken hamarkadetan gertatutako aldaketak.

Batetik, Euskal Herriko, gure inguruko eta mundu osoko egitura sozioekonomikoek eta politikoek aldaketa handiak eta azkarrak izan dituzte; bestetik, **euskal jendartera eta Euskal Herrira beste herri eta Estatu batzuetako pertsona asko iritsi dira**, askotariko jatorri geografiko eta kulturalak dituztenak eta gure artean era desberdinetan txertatu direnak. **SORTUK, Euskal Herriaren parte diren heinean, pertsona gisa dagozkien eskubide politiko, sozial eta kultural guztiak aitortuko dizkie pertsona horiei guztiei, kultura zapaltzaileak ez diren heinean. Bide batez, kolektibo hauek euskal kulturara zein euskarara hurbil daitezzen lan egingo du.** Nola ez, kolektibo hauek gainerako herritarrek dituzten betebeharrak berdina izango dituzte.

Gure Estatu independente, sozialista, feminista eta euskalduna eraikitzeko bidean, **SORTUK hemen bizi diren eta dagoeneko gure herriaren parte diren beste jatorri eta identitate batzuetako pertsona eta kolektiboak gure borrokarara erakarri behar ditu.**

SORTUrentzat, **Euskal Herrian diren jatorri eta identitate soziokultural guztien arteko bizikidetzarako gakoa hau da: bakoitzaren jatorria edo identitate soziokulturala edozein delarik ere, gure lurralde osoan bizi diren pertsona guztien bizileku, herritartasun eta nazionalitate eskubideak subiranotasunez kudeatzeko ahalmena.** Aniztasunean elkarbizitza ez da soilik bizileku eskubidea, herritartasun eskubidea eta naziotasun eskubidea. **Bizikidetzak elkar ezagutzan, eta elkarrenganako errespetuan izan behar da,** aurrez aipaturiko ideiez gain. **SORTUK Euskal Herriko aniztasun kulturalak onartu eta errespetatu behar ditu, eta aniztasun kulturala aberastasun modura ulertzen duela adierazi,** dakarren dinamika sustatu, identitate galdera moduan bizi izan ez dadin.

Illo horretan, gure subiranotasuna erdiesteko bidean, **SORTUrentzat beste jatorri edo identitate batzuetako pertsonen eskubideak eta Euskal Herriak nazio gisa dituen eskubideak guztiz bateragarriak eta osagarriak dira.**

12.- HEZKUNTZA PROIEKTUA

Euskal kulturaren kasuan, esan daiteke berez geureak ditugun manifestazio kulturalak direla, euskaldunok gauzak ikusi eta bizitzeko dugun modua, **baina euskaltasunaren elementuen artean euskara da ezinbestekoa. Euskalduntasunetik abiatuta kultura unibertsalari leihoa ireki behar zaio.**

Oraingo kultur eta komunikazio korranteak homogeneizatu eta estandarizatzeko dauden joeren balorazio kritikoa egitea ezinbestekoa da SORTUrentzat, baina era berean, **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriek (IKT) euskal kulturaren erronka eta aukera direla aitortzen dugu.** Ezinbestekoa izango da garapen horietaz baliatzea euskal kulturak aurrera egin dezan.

Guk nahi ditugun herritarrak sortzeko, premiazko da hausnarketa sakona egitea hezkuntza

munduan. Helburuak, metodologia eta funtzionamendua egokitu beharrean gaude. Hezkuntza eredu propio eta berria, non irakasleak, ikasleak, gurasoak eta kudeatzaile politikoez, denak, parte aktiboa izango luketen. Hau da, Euskal Herriko Hezkuntza Sistema Nazionala.

Sistema Nazional honek, Eskubideetan oinarritutakoa izan behar du. Hezkuntza ikuskera propio horren gauzatzean, Euskal Hezkuntza Sistemak, euskal herritar guztiei, nazioarteko oinarritzko eskubideen hitzarmenetan jasotako eskubide unibertsalak aitortzeaz eta bermatzeaz gain, eskubide hauek bere egin beharko lituzke: **eskolaren bidez euskalduntzeko (euskaraz ikasteko eta euskaraz bizitzeko) eskubidea, Euskal Herriko Curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea, parekidetasuna lortzeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea eta oinarri demokratikoen arabera antolatutako eta kudeatutako hezkuntza komunitate bateko partaide eraginkorra izateko eskubidea** besteak beste.

Sistema Nazional horrek publikoa izan behar du. «Hezkuntza Publikoa», herrien eta herritar guztien garapenerako beharrak asetzen dituen hezkuntza izan behar da, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua, alegia. Beraz, Euskal hezkuntza publikoa «publiko-herritar» ikuspegian kokatzen dugu; hots, komunitateari lotua, hezkuntzan ere demokrazia parte-hartzailea gauzatu nahi baitugu. Horregatik, horren **diseinua, antolaketa, planifikazioa, kudeaketa eta garapena botere publikoei eta hezkuntza komunitate osoari dagozkiela deritzogu.** Edonola ere, ukazina da botere publikoek guztion hezkuntza eskubideak bermatzerakoan duten betekizuna. **Finantzazioak eta kontrolak, esaterako, publikoak izan beharko lukete; eta hezkuntza publikoaren kudeaketa eraginkorra, gardena eta jarraipen soziala duena. Ikastetxeen titularitateak eta kudeaketak, berriz, horien eta botere publikoen arteko hitzarmenean oinarritutakoak izan beharko lukete.**

Sistema Nazional horrek, lehentasun soziala du. Hezkuntzak berebiziko garrantzia du norbanakoaren eta herri baten garapenean, baita gizartea kohesionatzeko ere. Horregatik guztiagatik, hezkuntzak lehentasun soziala izan behar du, eta baita **beharrezkoak dituen baliabideak eta inbertsioak jaso ere.** Jakin badakigu inbertsio ekonomiko handienak egiten dituzten sistemak ez direla beti etekin edo emaitza onenak lortzen dituztenak eta hezkuntzaren kalitatea bultzatzen duten faktore eragileenen artean ere, funtsezkoak diren beste asko badaudela; bat gatoz hezkuntzako giza baliabide zein baliabide formal eta materialen arrazionalizazioa eta optimizazioa aldarrikatzen dutenekin. Baina uste dugu ez dagoela ukatzerik, gure hezkuntza sistemaren kalitatezko funtzionamendua bermatzeko aurrekontu egokia izatea funtsezko elementua dela.

13.- ANTIMILITARISMOA

SORTUK bere burua antimilitarizatatzat jotzen du. Ondorioz, lehenik eta behin, **Euskal Herria okupatzen ari diren indar militarrek gure lurraldea utz dezaten lan egingo du eta, bide batez, Estatu soberano gisara, NATOtik ateratzearen aldekoa da,** horrela eskatu bai zuten euskal herritarrek erreferendumean. Ildo beretik, **Euskal Herriaren babeserako euskal ejertzitorik ez duela sortuko adierazi nahi du SORTUK.** Zentzu berean, gaur arte indarrean dagoen polizia

eredu errepresiboa alboratuko du eta herritarrengandik gertu eta hauen zerbitzuan izango den **polizia zibila sortzearen aldekoa da**, jendartearen partaide izango dena eta beronen babes funtzioa beteko duena.

14.- SEXU ASKATASUNA

Eredu heteropatriarkarrak, heteronormaren bidez, **parenteskorako eta harremanetarako eredu sozial heterosexual bakarra inposatzen duela salatzen du SORTUK**, norma heterosexistatik at dagoen disidentzia guztia zapalkuntzara, bazterketara, ezkutura eta jazarpena kondenatuz. SORTUren iritziz, **sexu disidentziak, praktika sexual normatiboak zalantzan jartzen ditu, harreman eredu eta praktika alternatiboak azaleratuz.**

SORTUK, pertsona orok inolako tutoretzapeko sexu askatasunaren alde joko du, gizon eta emakumeek bere gorputzarekin, harremanekin edota desioekin zer egin nahi duten erabakitzeke ahalmen askea izan dezaten. Harreman eta praktika ez normatiboen plazaratzearen alde joko du, bai pertsona heterosexualen artean, bai bisexual, gay, lesbiana edota queerseren artean ere. **Guztien eskubideak baldintza berean onar daitezzen lan egingo du.**

SORTUK genero identitatea aniztasunaren ikuspegitik aztertzen du eta, ondorioz, **trabestiak, transegeneroak, transexualak edota beste identitate sexualak ezkutatzeko jarreraren aurka egingo du.** Lan hori zehar lerro modua landuko du bere jarduera ezberdinetan, bere jarduera politikoa ezaugarrien artean kokatuz printzipio feministak eta disidentzia sexualaren aitorpena.

SORTUK sexu aniztasuna eta genero identitatea, eraldatzeko helburua duen proiektuaren muinean kokatzen ditu. **SORTUren helburua, homofobia, lesbofobia eta transfobiari gabeko gizarte askea eraikitzea da.**

SORTUK bat egingo du munduan zehar heteronormatibatik at dauden harremanak izateagatik torturatuak, espetxeratuak, indarrezko lanak edota hiltzera kondenatua dauden pertsonekin eta gertakari horien aurka lan egiten duten eragile sozialekiko elkartasuna adieraziko du. Bide batez, horrelako jokabideak baimentzen dituen legeak salatuko ditu SORTUK.

III.- ABAGUNE AZTERKETA

I.- NAZIOARTEKO EGOERA

Azken 25 urteotan mundua zeharo aldatu da. Berlingo Harresia erori eta SESB desagertzeak mundu mailan ongizatearen amiltzea ekarri zuen bai ohiko herri sozialistetan zein mendebaldean, eta horrekin batera **munduko aginte bipolarren bukaera.** Batzuk, egoera horretaz baliaturik, kapitalismoa betirako sistema bihurtu zutela esaten ausartu ziren ere. Egia esan, **Ekialdeko Eu-**

roparen desagertzeak katastrofe sozial eta humanitario izugarria sortu zuen (**UNICEF erakundea**). Mendebaldean, gerra hotzaren garaian sortu zen ongizate estatuaren suntsiketa amai-gabea ekarri zuen. Munduko ekonomia kapitalista nagusiek (AEB eta Europar Batasuna, e.a.) Sobiet Batasunarekin bat egin zuten estatuaren eta herrien kontrako erasori ekin zioten. **Langileriaren eta herrien aurkako erasoa**, neurri berekoa izan zen. Egoera horrek bere euforia eragin zuen, etekin tasaren handitze nabarmena ekarri baitzuen. Kapitalismoa garaitzat jotzen zuten, dena amiltzen hasi eta kapitalismoak sekulan jasan duen krisialdi handienean sartu zen arte. Aldaketa nabarmenetako bat, beste estatuetan -besteen barne arazoetan- ez sartzeko ordura arte indarrean egon zen praktika politikoa hankaz gora botatzea izan zen. **Sobiet Batasunaren desagitearekin inperialismoak ateak zabalik ikusi zituen, "esku hartze humanitarioei" ekinez eta herrien soberania hautsiz**. Bide hori izan da AEBek, beste botere kapitalisten laguntzarekin edo hauen aurka, munduko kontrol geopolitiko eta ekonomikoa indartzeko baliatuko duena, **besteak beste, bertako lehengaien jabe egiteko**. Baina hala eta guztiz ere, kapitalaren produkzio eta akumulazio dinamikek egun bizi dugun krisia eragin zuten.

Horregatik, egun bizi dugun krisia, krisi sistemiko edo zibilizazio krisi bezala ezaugarritua izan da eta hainbat faktoreren ondorioa da: krisi ekonomiko-finantziariarena, krisi ideologikoarena, gain-produkzioarena, ekologikoarena, energetikoarena, baloreena eta elikadurarena, guztiak une berean.

Gauzak horrela, **munduaren ordenamendu berrien lehia bizitzen ari gara**, eta botere harremanen geometria ematen ari diren aldaketak indartuz doaz. Batetik, herrialde garatuen (AEB, EB, Japonia...) eta potentzia emergente berrien (BRICS - Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) arteko talka indartzen ari da. Mundu mailako agertokian, **fase unipolarretik multipolarrerako trantsizioa irekitzen ari da**, nahiz AEBentzat hori atsegina ez izan. Arrazoi geopolitikoengatik edota lehengaien (petrolio, gasa, ura, mineralak...) jabetza eskuratzeko asmoengatik, **azken hamarkada honetan gerra inperialistak areagotu egin dira munduan**. Egun, gerra hauen agertoki zuzena Ekialde Hurbila izaten ari da; Israelen Palestinaren aurkako erasoaz gain, "terrorismoaren" aurkako gerraren aitzakian hor ditugu Afganistanen, Iraken, Pakistanen, Libian edota Sirian ematen ari diren aitortu gabeko gerrak. Aurrera begira ez dira eraso gehiago baztertzeko Iran, Venezuela, Kuba, Ipar Korea edota Palestinaren aurka, hau da, AEBek funkturiko gaizkiaren ardatzean dauden herrialdeen aurka. Horretaz gain, **udaberri arabiarra bezala ezagutu ditugun matxinada prozesuek ere desoreka politikoak areagotu ditzakete, liskarra mundu arabiar guztira hedatuz**. Izan ere, herrialde arabiarretan NDF eta MBak lagunduriko sistema totalitarioei aurre egingo dien ezker antolaturik ez dago, baina liskar soziala zabalik dago. Herri hauetan, kasurik onenean, gobernuan daudenak aldatuko dira, baina inperialismoak ez du bertako ekonomiaren kontrola galduko. AEB, EB eta potentzia inperialistek behar den guztia egingo dute horrelakorik gerta ez dadin.

Europaren eta Europar Batasunaren krisi egoerak eta mundu mailako boterearen geometria berriaren inguruko talkek era askotako ondorioak eragin dituzte gure esparruan. Arlo instituzionalean, eragin zuzena izan du **Europar Batasunaren integrazio prozesuan, berrantolaketa prozesua gelditzera behartuz**. Kontseilu Europarrak eta Komisioak, parlamentuari, instituzio gisara, muz-

in eginez, **finantza erakundeek esku utzi dute integrazio prozesuaren birdefinizioa**. Horrek Europako instituzioak herritarren eragin gaitasunetik are gehiago urrunduko ditu. Arlo politikoan, **kontserbadore eta liberalen nagusitasunak, ezkerrearen erreformismoak, sozialdemokraziaren gainbeherak, oparoaldi ekonomikoaren amaierak eta desbideratze eurokomunistak, ezkerrearen ahultze nabarmena bultzatu dute indar ultraeskuindarren gorakada ekarriz**. Arlo sozialean, “ongizate estatuari” loturiko oinarritzko eskubideetan ematen ari den atzerakadak herritarren eta langile klasearen bizkar kokatu ditu krisiaren ondorio nagusiak. Egoera honetatik etekina ateratzen duten bakarrak klase aberatsenak, oligarkia, banku handiak eta multinazional nagusiak dira, krisialdia eragin dutenak, hain zuzen ere. Guzti honen ondorio zuzena, aberastasunaren kontzentrazioa izugarria gutxi batzuen eskuetan egotea da. **Ongizaterako aurrekontuetatik Gobernuak ateratzen duten diru publikoa, kapital espekulatzailen eta inbertsiorako funts pribatuen esku uzten da**, interes neurrigabeak ordainduz eta arrisku prima duten produktuak eskuratuz.

Egoera honen aurrean, munduko ezkerre oso ahul ageri da. Sozialdemokrazia espazio politikori gabe eta agortuta dago. Ezker tradizionala ahulduta dagoen arren, badaude ezkerreko beste adierazpen batzuk indarra hartzen ari direnak, baina **ez dute lortu bizi dugun krisi sozioekonomikoaren aurrean eredu alternatibo bat artikulatzea**. Aktibazioa erreferentzia instituzional berriari lotuta joan da. Orokorrean, ez dago klase politikoaren deskredituaren aurrean erantzun bat artikulatuko duen indarrik, **nahiz eta badauden erreferentzialtasuna irabazten ari diren praktikak politiko berriak. Aipagarriena azken hamarkadan Latinoamerikan ezkerreko alderdiak gobernura iristea eta eman dituzten urratsak dira, ALBA (Bolivia, Ekuador, Kuba, Nikaragua eta Venezuelak) lekuko. Halaber, aipagarria da Ameriketako Estatu Batuetako eta Kanadako gobernuak izan ezik gainerako estatuak gobernu guztiak biltzen dituen CELAC izeneko instituzioaren sorrera. Mundu zabalari dagokionez, Ekialde Hurbilean zein Afrikaren Iparraldean ematen ari diren herritarren matxinada arabiarretan, Islam erradikalean oinarrituriko tendentzia duten indarrek ezkerre gailendu dute toki askotan. Eta Europar sozialdemokraziak ez du alternatiba errealik eskaini. Gauzak horrela, kapitalismoaren krisiak ez du ezinbestean ezkerrearen eta sozialismoaren aldeko apustua indartu. Hala ere, munduko hainbat esperientziak erakusten digutenez, zailtasunak zailtasun, tokian tokiko sozialismo eredu egokituak eraikitzea da irtenbidearen gakoa. Horren adibide nabariak sozialdemokraziaren ezkerrean kokaturiko hainbat indarrek emandako aurrerapausoak (**Bloco de Esquerda Portugalen, Die Linke Alemaniaren, Front de Gauche Estatu Frantsesean, Einhedlidsten Danimarkan, SP Holandan edo Sinn Fein Irlandako hegoaldean, adibidez**). Bide beretik, Syriza Grezian edota Sinn Feinek Irlandaren Iparraldean agertoki politikoaren erdigunean kokatzeko erakutsi duten gaitasuna azpimarratu nahi dugu. Honek guztiak argi erakusten du herriek eta langileek ahalegin handia egiten dutela jasaten duten zapalketari eta errepresioari aurre egiteko. **Azken urteotan indar erakustaldiak eman dituzte Europar Batasunean bertan, azken greba orokor ugariak erakutsi duten moduan. Bi hitzetan esanda, eskubide sozial eta politikoaren murrizketa sistematikoaren aurkako erreakzio soziala aintzat hartuz gero, hurrengo hamarkadan subiranotasun demokratikoaren aldeko diskurtso eta praktikak indartzeko benetako aukera dagoela pentsatzen dugu.****

Baina, horrekin batera, inperialismoaren ondorioz, neokolonialismoa indartzen ari da munduan: AEBen, ardatz Franko-Alemanaren eta Txinaren arteko lehiaren ondorioak nabariak dira Puerto Ricon, Malvinetan edota Afrikan ikusi nahi dituenarentzat. **Aldi berean, zenbait nazio-estatu eredu krisian sartu da,** estatuen barnean zeuden estatutik gabeko nazioak, independentzia eskuratu ondoren, estatu berriak bihurtuz (Herrialde Baltikoak, Montenegro, Hego Sudan edota Kosovo). **Egoera nola aldatzen ari den ikusita, pentsa daiteke estatu berriak sortzeko prozesuak indartu egingo direla etorkizunean, hala nola, Quebec, Eskozia, Flandria, Paisos Catalans, Euskal Herria edota munduko beste kontinenteetan askatasun prozesuetan murgilduta dauden beste herrien kasuetan.**

II.- FRANTZIAR ESTATUKO EGOERA

Frantziar Estatuko egoera globalizazioaren gaurko fasearen arabera kokatu behar da. Lehenik eta behin, ikuspegi geostrategikotik, azpimarratu behar da 60. hamarkadako deskolonizazio mugimenduaren ondoren Frantziak Afrikan mantendu zuen eragin-eremu garrantzitsua kolokan jarri dela azken 20 urteotan. Hamarkada luzeetan, eragin-eremu horrek frantziar Estatuari munduko lehen mailako potentzien lerroan kokatzeko aukera eman zion. Bestetik, nola ez, frantses multinazionalentzako lehengaien ustiaketarako eremu paregabea zen Afrika. AEBak frantsesen eragiletza hori kolokan jartzen hasi ziren 90. hamarkadan. Geroztik, Txina ere Afrikan bere presentzia indartzen hasi zen, bere hazkunde erritmo azkarrak eragiten zion lehengaien behar izugarria asetzeko. **Gaurko egunean, Frantziak Afrikan historikoki eduki duen monopolioa kaltetuta dauka eta, ondorioz, mundu mailako potentzia gisa izan duen posizioa guztiz higatua du, nahiz eta oraindik inperialismoak kontinentean aplikatzen duen politikan bere jendarme pàpera betetzen jarraitzen duen, bakarrik edo besteekin elkarlanean.**

Krisiak Europa bortizki kaltetu du, bertan inposatu diren doikuntza politikengatik. Gainera, politika horiek indartu duten gainbeherarekin, euroa sortzerakoan saldu zuten mito bat guztiz faltsua zela agerian gelditu da. Horrekin batera, **moneta bakarrarekin euro-guneko ekonomiak konbergentzia prozesuan sartuko zirela pentsatu zuten. Guztiz kontrakoa gertatu da:** ibilbide dibergenteak izan dituzte ekonomia ezberdinek. Euro-guneko iparraldeko herriek beren jarduera industrialaren indartzea ezagutu dute –Alemaniak bereziki– eta hegoaldekoek, aldiz, desindustrializazio prozesu azkarra. Horien artean, Frantzia nahiko kaltetua izan da, hamar urtez industria arloan 500.000 lanpostu baino gehiago galdu baititu. **Ondorioz, euro-guneko bigarren ekonomia bada ere, Frantzia balantza komertzialaren egiturazko defzitek dituzten hegoaldeko herrien multzoan sartu da.** Egoera horrek Alemaniarekiko indar harremana asko ahuldu du. **Duela gutxira arte, Alemania-Frantzia bikoteak Europar Batasunaren norabidea finkatzen bazuen ere, orain Alemaniak soilik agintzen du, modu nabarmenean gainera.**

Egoera honetan irabazi ditu azkeneko Lehendakartzarako hauteskundeak eta legegintza hauteskundeak Alderdi Sozialista Frantsesak. Azpimarratu behar da, gainera, ez bakarrik Asanblea Nasionalean, baizik eta senatuan ere gehiengo osoa duela PSFk. Horrezaz gain, erregio eta departamendu gehienak ere berak gobernatzen ditu. Beraz, sekulan lortu ez duen boterea eskuratu

du **Hollanderen Alderdi Sozialista Frantsesak. Botere ia osoa eskuraturik gobernatzeko aukera duen arren, Parisko Gobernu berriak tarte oso txikia du.** Izan ere, Frantziak euro-guneko beste partaideen moduan, langabezi tasa handiari (%10 inguru) aurre egiteak bere politika ekonomikoaren ardatz zentrala izan beharko lukeenean, **defizit publikoaren murrizketa helburu nagusi gisa kokatu du sozialisten gobernu berriak.**

Hartara, **xahuketa publikoak murrizteko helburuarekin, PSFko gobernuak hartuko duen lehen neurria Estatuaren antolamendu administratibo-instituzionalaren erreforma egitea izango da. Erreforma hori “deszentralizazio” urrats moduan aurkeztu nahiko badute ere, egituraketa instituzionalaren “ordenatzea” baizik ez da izango,** Estatuaren izaera zentrala eta jakobinoa zalantzan jarriko ez duena. Bereziki, egituraketa maila ezberdinen artean funtzioak eta eginbeharrak ongi zehaztu eta banatu nahiko dituzte, xahuketa publikoan bikoizketak ezabatzeke asmotan.

III.- ESPAINIAR ESTATUKO EGOERA

Krisi sakona, oso sakona pairatzen ari da Espainiar Estatu. Krisialdiak, eremu ekonomikoan, lehenik, nazioartean eztanda egin bazuen ere, modu berezian eta berezitan hartu du Espainiar Estatu. **Izaera ekonomikoa eta soziala ez ezik, izaera politikoa ere badu krisi orokor horrek.** “España” proiektua bera jarri du kolokan, eta proiektu hori eraikitako oinarriak ustelak direla erakutsi du.

Esan bezala, nazioartean egondako finantzen krak izugarriak Espainiar Estatuko eredu ekonomikoaren ezaugarriak ageri-agerian utzi ditu. **Produktzio eredu negargarria elikatu dute botere ekonomikoek eta politikoez, aberastasuna neurririk gabe pilatzeko asmo zekenez eta kapitalismoari dagozkion balioak goraiapatuz.** Eraikuntza eta higiezinaren sektorearen gainean eraikitako burbuilak eztanda egin du. Salneurrien inflazioa, espekulazioa eta mailegu politika arduragabea elikatzen zituen eredu lehertu egin da. **Ez zegoen sektore ekonomikoen arteko orekarik, ez etorkizuneko produktzio sistema berrien aldeko prestakuntzarik, ez inbertitze teknologikorik, ez gazteen trebakuntzarako eta formaziorako hezkuntza sistema egokirik...** Diru-gose izugarria besterik ez.

Krisi ekonomikoaren arduradunek ez dituzte krisiaren ondorioak ordaindu, ezta hurrik eman ere. **Banketxeek eta garai bateko aurrezki kutxek diru laguntza publikoa jaso dute, eta egoera berrian ere zuloa egin zutenek aberasteko aukera izan dute, dirua merke eskuratzeko eta, itotako herritarren bizkar gainean, errentagarritasuna ateratzeko bidea.**

Krisia betikoak ordaintzen ari dira. **Langileak eta herri sektoreak, eta bereziki egoera txar honi aurre egiteko aukera eta baliabide gutxien dutenak.** Aurrezki gabe, desjabetzeetan murgilduta, zorrez lepo eta langabezian (edo langabeziaren mehatxupean), horixe da gero eta jende gehiagoren patua. 2013. urtea are okerragoa izango dela diote adituek.

‘Merkatuak’ deritzanen agindupean murrizketak besterik ez ditu inposatu PPko Gobernuak, PSOEk hasieran zuten bidea areagotuz. Murrizketak zerbitzu publikoetan eta eskubideetan. Lan merkatuaren erreformak ez du lanik ekarri, eskubide murrizketa baino ez. Gizarte Zerbitzuek behera egin dute, eta Irakaskuntza eta Osasun publikoak arrisku bizian dira, gutxi batzuen interes pribatuen mehatxupean. Zerga politika herri sektoreak zigortzen ari da, eta bereziki aipatu behar da erretirodunen erosketa ahalmena gutxitu egin dela. Gazteak eta emakumeak, **Europan inon baino langabezi tasa handienarekin, itxaropenik gabe daude, familiek beren kideak babesteko geroz eta baliabide gutxiago dituzten bitartean.**

Aipatu moduan, **krisi ekonomikoak krisi politiko orokorra azkartu du, bai Estatu ereduari dagokionez eta baita lurralde ereduari dagokionez ere.** Hainbeste goraiapatutako frankismoaren trantsizioaren gabeziak eta hutsuneak are argiago agertu dira azkenaldian, demokrazia eta eskubideak garatzeko ezinduta dagoen sistema politikoa eraiki zutela agerian geratu baita.

Marraztutako **mapa autonomikoak, “café para todos” irizpidearekin, nazio errealtateak urtu nahi zituen. Ez du lortu, bistan da,** azken garaian Euskal Herrian eta Katalunian irekitako prozesuak ikusita; baina, bere helburua ez betetzeaz gainera, sortutako egitura minbizi bihurtu zaio Estatuari. Kasta politikoak, jauntxokeria, ustelkeria eta zarrastelkeria orokortu baizik ez dira egin. Dirua azkar egiteko sortutako eredu ekonomikoak hori dena errotu du, eta eredu ekonomikoaren porrota Aurrezki Kutxetan, eraikuntza faraonikoetan, azpiegitura erraldoietan eta apetetan izandako gehiegikerietan begien bistan geratu dira, biluzik, zor publiko kontrolaezinak erakusten duenez. **Eredu autonomiko espainiarraren gainbehera etorri da.**

Zaila dute errealtate horri behar bezalako erantzuna ematea, ez baitute oinarri demokratikorik. **Oso nabarmena da eskuin muturrak botere gune garrantzitsuetan duen indarra.** Ez soilik frankismotik zetozen goi funtzionarioek beren postuetan segitu zutelako, baizik eta eskuin muturrean kokatzen diren belaunaldi berriak ere sortu direlako, birsortze demokratikorik izan ez den neurrian. **Hedabideetan eta Hezkuntzan PPren indar eta itzal dezente duten sektore horiek, lurralde ereduaren sortutako krisia aprobeztatuz eta populismoa erabiliz, Estatuaren zentralizazioa indartu nahi dute, inboluzio prozesua abiatu.** Aldi berean, estatu poliziala goretsiz, Kode Penalaren bidez eskubideak gero eta gehiago murriztea besterik ez dute buruan.

Horrezaz gain, PPren gainbeherak ez du PSOEren suspertzea ekarri. Auzia ez dago, une honetan, bi alderdi horien arteko lehian. Biek ala biek galdu dute sinesgarritasuna. Gainera, PSOE Rubalcaba taldearen zuzendaritzapean segitzeak are eta sinesgarritasun gutxiago eman dio alternatibarik eraikitzeko. Egoera horrek **IUri arnasa hartzeko balio izan dio, nahiz eta etorkizuneko lerro argi bat zehazteko zailtasunak dituen,** oraindik nahikoa hazi ez delako eta, gainera, Espainiar Estatuak beharko lukeen sakoneko eraldaketa – trantsizioaren gaineko autokritika barne – egiteko hausnarketa egin ez duelako. **Esanguratsua da oraindik monarkiari erakusten dioten begirunea edota Estatuaren ukazioaren pean bizi diren nazioen aitortza zalantzarik gabe onartzeko duten ezintasuna.** Estatu ereduari ikuspuntu demokratikotik heldu gabe – eta horrek autodeterminazioarekin ere badu zerikusirik – ez dago benetako aldaketarik egiterik.

Gainera, **urte askotan otzan aritu izan diren sindikatuen indarra asko ahuldu da halako aldaketa proposamen bati ekarpena egiteko**. Orain, muturreko egoerari erantzuteko, azaroko greba orokorrarekin egin dute ahalegina, baina ikusteko dago horrek izango duen eragina. **UGT eta CCOO sindikatuak sistemaren parte diren erakunde asistentzial bilakatu dira**, langileriaren eskubide-galera negoziatu dute (Pacto de Toledo) eta ez dute ereduaren kontrako konfrontazio politikarik egin, alderantziz, ereduan bertan integratu dira, Hitzarmen Soziala esplizituki asumituz. Edonola ere, langileak eta herri sektoreak pairatzen ari diren murrizketak erantzun tinkoa merezi zuten eta merezi du.

Bestalde, **egoera orokor honek, populismo, neofaxismo eta demagogian oinarri duten beste indar mota batzuk sortu eta haztea ekar dezake Estatuko zonalde batzuetan**. UPyD faxista dugu adibide nagusia edota Ciudadans taldearena Catalunyan.

Indar politikoen eta sindikatuen sinesgarritasun faltaren ondorioz, indartu egin dira “15M” bezalako jendarte mugimendu garrantzitsuak. Ohiko molde eta eskemetatik kanpo, nabarmentzekoa da herritarren artean sortutako haserre eta horrek ekarritako protesta modu berriak. **Suminduen fenomenoak eta herri plataformetatik bideratutako mobilizazioek sakoneko aldaketa gogoia erakusten dute**. Sistema bera dela arazoa eta benetako demokrazia eraiki behar dela esan dute. Mugimendu hori guztia noraino irits daitekeen ez dago jakiterik. **Eragin soziala izan baduela bistakoa da, baina eragin hori zabaltzeko eta iraunarazteko gaitasuna izan behar du luzera eragina izateko. Estaturik gabeko nazioen gaiari ez diote heldu**, baina horrek ez digu galarazi behar fenomeno hori modu irekiz begiratu eta aztertzea.

Estatua, beraz, gainbehera egiten ari da, baina horrek ez du esanahi kontra-ofentsibarik egingo ez duenik. Legeriaren apologia egingo du, legeria injustua izan arren, eta indarra erabiliko du betearazteko. Hedabideek joka dezaketen rola oso garrantzitsua izango da. **Hedabide nagusiak botere gune politiko eta finantzarioekin daude loturik estuki, eta ez dute izaera kritikorik izango, botere horien arteko liskarretan eragiteko ez bada**. Estatuak, aldi berean, nazioarteko babesa bilatuko du, horixe da eskatu duena «merkatuek» eta EBk eskatutako neurriak betetzeko, erreskate bidez harremana zehaztuko den garai honetan.

Desafio nagusiak oraintxe Katalunian eta Euskal Herrian izango ditu. Izaera eta garapen ezberdineko egoerak izan arren, bietan herri nortasuna garatzeko borondate sendoa dago. **Kataluniako prozesua dugu azkenaldian gori-gori. Halere, gaur egungo gertaerek badute aurrekaririk. Estatut delakoarekin gertatutakoak eta orduan Estatuak erakutsitako itxikeriak (eta mespretxuak) joera independentista indartu dute nabarmen. Beste bi arrazoi aipatu behar dira joera hori azaltzeko: alde batetik, azken urteotan garatu den oinarriko herri mugimendua eta, beste batetik, behar ekonomikoak gizartean eragindako hausnarketa. Orain herriari dagokio independentzia lortzeko prozesuari bultzada ematea, eta indar politikoei berriz, hauteskunderen, CUPek dioten moduan, herri mandatuak betetzea dagokie, eragile sindikal eta sozialekin batera.**

IV.- EUSKAL HERRIKO EGOERA

A.- IPAR EUSKAL HERRIKO EGOERA

Iparraldeko egoera politikoa eztabaida instituzionalak duen intentsitateak ezaugarritzen du. Eztabaida horren terminoak ulertzeko, denboran atzera egin behar da, 90. hamarkadaren hasierara itzuliz. 1988an, François Mitterrand bigarren aldiz lehendakari hautatua izan ondotik, frantziar Estatuak nolabaiteko negoziazio bidea zabaldu zuen mugimendu abertzalearekin, bereziki IK erakunde armatuarekin eta EMA mugimendu politikoarekin. Negoziaketa hori Pierre Joxek –orduko barne ministroa- eraman zuen, eta botere zentralak orduan funkatu zuen gaur arte Iparraldeko panorama politikoa ezaugarritzen duen eske-ma. Bertan, Ipar Euskal Herriari ez zaio ezagupen politiko-instituzionalik aitortzen, hiru lurraldeek ez dutelarik berezko marko instituzionalik. Hala ere, lurralde antolaketari lotuak diren politika publikoek aintzat hartzen dute Ipar Euskal Herriaren eremu geografikoa, eta horiei begirako protokolo berezia garatu da guztien koordinazioa Ipar Euskal Herri mailan ziurtatzeko. Horrela sortu ziren gaur indarrean dauden bi tresna: Iparraldeko Garapen Kontseilua, nolabaiteko Kontseilu sozioekonomikoaren funtzioa betetzen duena; eta Iparraldeko Hautetsien Kontseilua, hiru lurraldeetako hautetsien bilgunea dena.

Sarkozyk abian jarri nahi izan zuen erreforma administratiboak, Estatuak lurralde antolaketaren arloko gaitan bi erakunde horien bitartez Iparraldearekin zuen “kontratazio” logikaren agorpena markatu du. Izan ere, sei urtetik behin Iparraldearekin negoziatzen den hitzarmen bereziak daukan oinarri juridiko bakarra (Pays kategoria) ezabatu du Sarkozyren erreforma proiektuak. Gauzak horrela, **2011ko udazkenean, Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak Iparraldearen etorkizun instituzionalari begirako proposamena lantzea erabaki zuen.**

Eztabaida hori abian jartzen ari zelarik etorri ziren Aieteko Konferentzia eta ETaren jarduera armatuaren bukaeraren iragarpena. Pauso horiek esperantza handia sortu dute Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Esperantza hori Nazioarteko Konferentziaren egunean bertan nabarmendu zen, Iparraldeko espektro politiko ia osoa barnebiltzen zuen ordezkari politiko zabalak bertan parte hartu baitzuen. Bide beretik, 2011ko abenduaren 10ean, Ipar Euskal Herriko milaka eta milaka herritarrek, sentsibilitate politiko ia guztietako ordezkari politikoen presentziarekin, Baionako kaleetan manifestazioa egin zuten euskal gatazkaren konponbide integrala eskatzeko.

Honela, 2012ko apirilaren 5ean **Garapen Kontseiluaren Biltzar Nagusiak bere ikuspuntua zehaztu zuen. Bere iritziz, Ipar Euskal Herriak estatus bereziko lurralde kolektibitatea behar du (Korsikak duenaren antzekoa).** Marko juridiko horrek ekinbide politikorako sei eremu eduki beharko lituzke bere gain: euskara, kultura, etxebizitza, garapen ekonomikoa, laborantza eta garraio publikoak. Horrekin batera, zehar-lerroak diren beste

lau eskumen kudeatu beharko lituzke: garapen iraunkorra eta energia, mugaz gaindiko harremanak, alboko lurraldeekiko kooperazioa eta turismoa.

Hemendik aurrera, Hautetsien Kontseiluak eginiko proposamen juridiko zehatzaren inguruan negoziazio eta elkarrizketa bidea zabalduko litzateke Estatu zentralarekin, PSFko gobernu berriak “deszentralizazio” erreforma bat iragarri baitu datorren udazkenerako. Hala ere, **ez dirudi bide hori erraza izango denik, mobilizazio erraldoien erdian PSF berak ateak itxi baitizkio Lurralde Kolektibitatearen bideari eta Espagnac senatariak proposaturiko “Poloa” delakoak izango duen etorkizuna ere ikusteke dago, Lurralde Kolektibitatearen proposamen politikoak baino eskumen gutxiago dituen arren.**

Momentu politiko oso garrantzitsua bizi da Ipar Euskal Herrian. **Aieteko Konferentziak eta Ezker Abertzaleak eman dituen urratsek eztabaida instituzionalaren inguruan zeuden tabu guztiak apurtu dituzte**, eta UMPko zein Alderdi Sozialistako kargudun garrantzitsu batzuk Ipar Euskal Herriaren onarpen politiko baten alde agertu dira publikoki azken hilabeteetan. **Gaur, lehen onarpen politikoak funkatuko lukeen markoaren inguruan eragile politiko ezberdinen artean adostasun batera iristeko benetako aukera dago.** Kontsentsu zabal bera dago konponbide prozesuak beharrezkoa duen bultzada emateko unean, Aurore Martinen eurordenaren aurka edota Foroen inguruan Ipar Euskal Herrian lortu den dinamika positiboa horren lekuko.

B.- HEGO EUSKAL HERRIKO EGOERA

Abagune politikoak Ezker Abertzaleak garai berri bat irekitzeko egindako apustuak markatu du. Askapen prozesuan sortutako baldintzak askatzeko eta, estrategia aldaketaren bitartez, aldaketa politiko eta soziala ekartzeko apustua egin zuen Ezker Abertzaleak. Orduz geroztik, urrats oso garrantzitsuak egin ditugu, egia bada ere zailtasunak eta oztopoak galantak direla.

Egoera politikoaren bilakaera Aieteko Adierazpenaren eta ondotik etorritako ETaren erabaki historikoaren arrastotik ulertu behar da. Nolabait esatearren, bi horiek dira garai berria islatu duten gertaerarik garrantzitsuenak, eta, aldi berean, garai horretan barrena aurrera egiteko aurrez aurre ditugun erronkak erakusten dizkigute. Hau da, **gatazkaren ondorioak gainditzea eta gatazkaren arrazoiei heltzea dira betebeharrak**, horretarako elkarrizketa eta akordio politikoak landuz, Gernikako Akordioan zehaztutako moduan.

Erronka horiei heltzeko funtsezkoa izango da indar harremanean eragitea. Abertzale, soberanista eta ezkertiarren arteko indar metaketak fruituak eman ditu arlo instituzionalean eta ematen hasia da arlo politiko zein sozialean ere, presoen inguruko manifestaldi erraldoiek edota Greba Orokorrerako deialdiek erakutsi duten moduan.

Beharrezko tresnak sortu behar dira jendartea gatazkaren konponbidean aktibatzen, herritarrak protagonista izan daitezen. Halaber, **herritarrak oinarri duten mugimenduak sortu behar dira, estatuak eta Euskal Herriko gainontzeko eragileak gatazkaren konponbidean eta erabakitze eskubidearen alde inplika daitezten behartzeko**. Aldi berean, presioa eta tentsionamendua areagotu behar dira, prozesuan arduragabe eta interes pertsonalengatik urratsik eman nahi ez duten eta, areago, prozesua boikotatzen duten horiek deseroso senti daitezten. Horrela, herritarren arteko indar metaketaren bidez eta, bestetik, presio soziala areagotzearen bidez eta hauen protagonismo handiagoz, herritarrak eta dagozkion oinarriek mugiaraziko dituzte orain arte pasibo edo boikotatzaile izan diren eragile horiek. Lehenengo fase batean, ELA eta EAJ; eta, bigarren fase batean, PSE.

Baina gatazka politikoaren konponbidean bezalaxe, nazio eraikuntzan zein eraldaketa sozialean ere beharrezko tresnak sortu behar ditugu. Krisiari eta murrizketei aurre egiteko erantzuna emateko orduan indarrak bildu behar ditugu. Horren lekuko dira eginiko greba orokorrak eta langileen mobilizazioak, adibidez. Oraindik ere erantzun ildoan indar gehiago egin beharko dugu. Eta horretarako protesta eremutik harago joan behar dugu, aldaketa prozesuak eremu sozialean ere **behar lukeen sakontasun eta indarra biltzeko ezinbesteko diren akordio eta dinamikak bultzatuz eta euskal esparru sozioekonomikoaren alternatiba indartuz**.

Aldi berean, esan daiteke **Estatuaren krisiak eta nazioartean aurrera egiten ari diren prozesuek (Eskozia, Quebec, Katalunia...) independentziaren aldeko joera indartu egin dutela gurean ere**. **Prozesuaren dekantazio edo lerratze estrategikoa, independentziarantz trinkotu da**, ibilbide demokratikoa eta independentzia zein sozialismoa erabat uztargarriak direla erakutsiz. **Beste edozein faktore baino garrantzitsuago, herri babes handia eta gehiengo zabalak lortzea da helmugara iristeko bermea**.

Estatuek gatazkaren ondorioen, eta bereziki presoen egoeraren, konponbiderako duen «beto» aukera aprobetxatu nahi du Prozesu Demokratikoa oztopatzeko eta moteltzeko. Ondorioen gaiet aterabide egokia emanez gero, eremu politikoan independentziaren aldeko indarrak zabalduko liratekeela uste du, prozesuaren beraren balioa sendotuko litzatekeelako eta, beraz, prozesuaren alde egin dutenak bizkortuko liratekeelako. **Estatuak ez du eztabaida politiko horretan zer eskaini**, eta, lehenago esan bezala, are eta argiago agertzen ari da hori azken aldian, maila gorena jo duen krisi orokorra dela eta.

Itxikeria pitzatzeko urratsak egin dira, alabaina. PPK, Gobernura iritsita, aurreko hilabeteetan egindako lana desegin zezakeela susma bazitekeen ere, Aietek (eta ETAREN erabakiak) mugarrira jarrita zuen. **Legetasunaren alorrean esparru txiki batzuk irabazi ditugu**, baina ezingo dugu esan legalizazioa gainditu dugula zenbait indar politiko eta erakunde oraindik ilegalizaturik daudenean eta Alderdien Legea indarrean dagoen heinean. **Egoera berrian, kartzela politika pitzatu ahal izateko faktoreak azaldu dira; esanguratsuena, Estrasburgoko epaia**. Oso gertaera garrantzitsua izan da presoen gaia erabat blokeatuta

izan nahi dutela dakusagunean.

Testuinguru horretan, aldaketa ekarri nahi dugun indarrok erronka handia dugu aurrez aurre, batez ere aipatutako presoek gaia mugitzeko. Ekimen berriak eta proposamen berriak garatu beharko dira, bai herri mugimenduaren eragina zabaltzeko, bai arlo politiko eta sozialean konpromisoak azkartzeko, bai Estatuari kontraesanak areagotzeko, bai nazioartearen inplikazioa zein euskal diasporaren lana indartzeko, bai presoek eta errepresaliatuak beraiek egin ditzaketen ekimenak errazteko.

Gatazkaren muinari dagokionez, elkarrizketa politikoan sakontzeko aukera zabaldu da. Alde batetik, Aieteko Adierazpenak berak jarritako oinarriari esker, eta bestetik, hauteskunde bidez, ilegalizazio dinamika gaindituta, **indar politiko guztiak ordezkari itzaz instituzionala lortu izanak gauzak erraztuko dituelako.** Egin beharreko ibilbide demokratikoa adosteko balio behar duen elkarrizketaz ari gara, gure herriak eta une historikoak hala eskatzen dutelako.

Inoiz baino argiago dago Estatu espainolean orain dela hogeita hamar urte eraikitako eredu politiko eta instituzionala ez dela egokia Euskal Herriarentzat. Herritarrei hautatzeko aukera murriztu zieten eta Hego Euskal Herria bitan zatitu zuten, nazio proiektua galarazteko, proiektu hori egingarri izateko ezaugarri guztiak biltzen baitzituen gure herriak. Gaur egun ere halaxe da, ikuspuntu ezberdinetatik. Kultura sustatzeko, eskubideak orokortzeko... eta baita proiektu ekonomiko bideragarria gauzatzeko ere. **Euskal Herriak parametro egokiak ditu, eta krisiari aurre egiteko eta etorkizuneko eredu egokia garatzeko berezko ezaugarriak ere izan baditu.**

EAEn aspaldi jo genuen eredu autonomikoa agortutzat. Lizarra-Garaziko atarian argi bezain garbi azaldu zuten hori Estatutuari oniritzia eman zioten indarrek ere. **Beste kontu bat da eredu hori eraldatzeko borondatea eta ausardia nahikorik ez dela izan**

EAEn hauteskundeak izan berri dira. Ilegalizazioaren zikloaren amaieraren aurrean gaude, estatuko indar politikoek indarrean jarraitzeko ahaleginak egiten dituzten arren, gure jardueraren kontrako mehatxuak eta Kontrol polizial eta juridiko zorrotzak ezarritik. **Prozesu politikoan aurrera egiteko beharrezko baldintza genuen.** Hauteskunde hauek, azken urteotako beste gertaera guztiak bezalaxe, prozesu baten logikan ulertu behar dira, ez gertaera isolatu baten moduan.

Hauteskunde hauek 2011n Bildurekin egindako indar metaketa zehaztu dute. Hiru hauteskunde izan eta gero (Udal eta Foru hauteskundeak, Espainiar Estatu hauteskunde nagusiak eta oraingo autonomikoak), **EAEn koalizioa %25ean kokatu da. Hori da Prozesu Demokratikoari aurre egiteko eta beronek irismen estrategikoa izateko lortutako gihar instituzionala.**

Irakurketa orokor horretatik zehaztasunera joz, komeni da herrialde eta herri bakoitzeko azterketa egitea, garapen ezberdinak eta berezitasunak baitaude. **Modu orokorrean esan daiteke aro berriaren alde egindako apustuak koalizioaren alde egin duela.** Hori orokorra da, baina hortik aurrera bere jarduerak ere erabakiko du babes hori zabaltzeko edo murrizteko joera. Horregatik, tokian tokiko eginbeharrak ondo aztertu behar dira.

Bestetik, EAEko hauteskondeek nabarmen ahuldu dituzte aldaketaren kontrako indarrak. Lehenik eta behin, Gasteizko Legebiltzarrean 2009an asmatutako gehiengo hura gezurrean zegoelako oinarritua, herri gogoak ez baitzien halakorik eman, ilegalizazioak baizik. Aldi berean, herritarrek bere portaera zigortu egin dute. Krisi garaiak sortutako sinesgarritasun ezagatik, alde batetik, eta garai berriari ekarpena egitea ukatzeagatik, bestetik. PPK kontra egin du eta PSEk Aieteko arrastoari segitzeko aukera galdu du. Patxi Lopezen irudia, AEBetan, tren batean, historiarako geratutako da. **Oraingo emaitzek inolako hausnarketarik ekarriko duten da galdera, Aieteko Adierazpenak gomendutako elkarrizketa politikoari egiteko eta gatazkaren ondorioen auziari malgutasunez begiratzeko.**

PPren egoera oso adierazgarria da. Gaur egun bere indar osoa Madrildik datorkio. Herri babesa galdu du, eta seguru asko barne arazoak areagotuko zaizkio. Muturreko sektoreek atzera begiratu nahiko dute, eta gaur egungo zuzendaritzakoek ez dute aurrera begiratzen. Esan bezala, erabateko kontraesan horretan irauteko helduleku bakarra Estatuko terminal bat izatea da.

PNV, berriz, indartuta atera da hauteskunde hauetatik, nahiz eta emaitzetan behera egin duen. Bere alde zuen Lehendakaritza berreskuratzeko sortutako giroa eta hautesle poltsa ezberdinetatik gizentzeko aukera. Nolabait esatearren, PNVk identifikazio handirik gabeko jendea biltzen badaki. Aukeran dago, hortxe, EH Bilduk irabazi zezakeela-eta gustura ez ziren sektoreentzat, edo erreferentzia argirik gabe umezurtz geratu ahal diren sektoreentzat, edo kudeaketaren mezuari soilik erreparatzen diotenentzat...

Zenbaitetan gai nagusitzat agertu bazaigu ere, **hauteskundeetako hegemoniaren lehia ezin daiteke gure ardatza edo berehalako helburu nagusia izan, prozesu politikoari tiratzeko motor eta indar erabakitzailea sortzen ari garen honetan.** Bidea da egin beharrekoa. Horretarako nahi dugu eremu instituzionala eta hauteskundeetako esparrua gaindituko duen indar metaketa ahal bezainbeste zabaltzea. Eta, horretan, **PNV hauteskundeetan lehiakide izango da, baina, aldi berean, gainerako indarrei bezalaxe, ibilbide demokratikoa egiteko eskaintza egin beharko zaio.**

Prozesu politikoa norberaren hauteskunde interesei ez lotzea da aukerarik hobereena, jakinda ere gure helburua ere badela, gure proiektua azken bururaino eman ahal izateko, gehiengo pilatzea. Herritarrekin konektatzea, hauen antolaketa bultzatzea, eremu ezberdinetan lan ona egitea eta Prozesu Demokratikoari ekarpen erabakigarria egitea dugu bidea. Jakina, beste indarrek horrenbeste badakite, eta gure zabalkundea galarazi nahiko

dute. Ez dezatela hegemoniaren bigarren mailako helburu horregatik herri honen normalizazioa atzeratu.

EGOERA POLITIKOA NAFARROA GARAIAN

Azkenaldian, berriz, **Foru Hobekuntza eta herri onespen zuzenik gabe sortutako er-edua jarri dira zalantzan, argi eta garbi**. Krisi ekonomikoak Nafarroarako marraztutako egitasmoaren (finean, proiektu bateratua oztopatzea beste helbururik ez zuena) egiturazko gabeziak erakutsi ditu. Estatu arrazoiak sostengatu du eredia, ez herritarren beharrak edo ongizateak. Halere, egoerak eta errealtateak mereziko lukeen hausnarketa egin ordez, UPNk murrizketa politikari ekin dio, Madrilen morroi. Bere eskaintza politikoa erabat mugatua dagoela argi bezain garbi azaldu da, eta, beraz, **aldaketarako arrazoiak ageriago utzi ditu. Murrizketak direla eta kaleratu den herri protestari eskaini beharreko alternatiba osatzeko tenorea da**.

Ereduaren krisiak eredu hori sostengatu duten bi indar nagusien arteko urruntzea ekarri du, bide batez. PSNk gobernu utzi du eta UPNk ez du gehiengo nahikoa, ustelkeriaren kiratsa handitzen den une berean. **Egoera horrek hauteskundeak aurreratzea ekar dezake**. Horrenbestez, EAEkoak egin eta gero Hego Euskal Herrian ez zela urte batzuetan hauteskunde gehiago izango aurreikuspena aldatu behar da, Nafarroa Garaian gertu egon baitaiteke hurrengo erronka, prozesu politikoaren mesedetan jartzen ahalegindu beharko dugun erronka, hain zuzen ere. **Alternatiba ez da alternantzia hutsa**. Hori litzateke PSNren eredia, baina orain arte gertatutakoan izandako ardurak sinesgarritasuna kentzen dio. **Ezkerretik eta abertzaletasunetik aldaketaren ardatza finkatzeko aukera ireki da**, nahiz eta jakin behar dugun, eraginkorrak izateko, eremu horretan ere indar ezberdinak izango garela lehian. Geroa Bai-k bere lekua beteko du -ez delako ezkerrekoa- eta garrantzitsua litzateke aukera historiko honen tamainako jokabidea izatea, **gerora ezker osoari aldaketa proposamen serio eta egokia egin ahal izateko**.

Baina argi dagoena zera da, **ziklo politiko baten amaieraren zantzu guztiak agerian daudela Nafarroan bizi den egoera politikoan**. Hogeita hamar urte eta gero, Foru Hobekuntzaren marko politikoak ez du gehiagorako ematen. **Euskal Herriaren lurralde zatiketa betikotzeko helburuarekin inposatu zuten eredu politiko eta instituzionala krisiak jota dago, baita goraiatzen zen eredu ekonomiko ere**, ia 3.000 milioi euroko zorrarekin Nafarroako Foru Komunitatea behartu nahi dute zerbitzu publikoetan murrizketa basatiak egitera, Madrildik agintzen diren defzitzaren mugak ez gainditzeko.

Nafarroa izan daiteke zentralizazioa eta murrizketen uholdeengatik kalte gehien jasango dituen erkidegoa. UPN hasia da dagoeneko etorri daitekeena iragartzen: Administrazioa "mehetu" behar dela esaten dutenean, demokrazian, eskubideetan eta autogobernua atzerapauso larriak proposatzen dituzte (Legebiltzarraren murrizketa, Toki Erkundearen mapa berria...). Bien bitartean, noski, Estatuarentzat eta Nafarroako jauntxoentzat

estrategikoak diren azpiegitura handi-mandiekin aurrera egin nahi dute kostatuta, AHTarekin erakusten ari diren gisan.

Alta, **Nafarroako jendartea erakusten ari da ez dagoela prest era guztietako eskubide murrizketa hau borrokatu gabe onartzeko**. Pasa den urtetik hona, zabaltzen, **trinkotzen eta aberasten joan da Barcinaren Gobernuaren aurkako presio sindikal eta soziala**. Mobilizazio soziala giltzarria izan da UPNren eta PSNren arteko koalizio gobernua porrotera eramateko. Barcinak martxoan PSN Gobernutik kanporatu zuenetik, ageriko gutxiengoan kudeatzen ari da UPN. Bere Gobernu jarduerari egonkortasuna emateko aukera bakarra PSNrekin era bateko edo besteko akordioak egitea da, eta ez dirudi epe motzean bederen PSN joko horretan sartzeko prest egonen denik, hori egiteak PSNrentzat bere buruaz beste egitea suposatuko lukeelako. Beraz, aurreikusi daitekeena da Barcina ez dela gai izango 2013 urterako aurrekontuak ateratzeko, aurtengoan luzapenarekin kudeatu beharko du eta gutxiengoan gobernatzen segitu beharko du hauteskundeak deitzea erabakitzen duen arte.

Baina garbi dago **Nafarroak behar duen aldaketa sakona ez dela ez UPNren eta ez PSNren eskutik etorriko**. Nafarroako jendartea da aldaketarako giltza, eta une honetan EH Bilduri dagokio jendartearen aldarrikapen horri erantzun zehatzak, gauzagarriak, eskaintzea. **Nafarroak eskatzen duen aldaketak norabide argi bat behar du, eredu oso bat aldatze bidean jarri behar delako, herritarren parte hartze eta erabakiarekin, adostasun zabalak eraikiz, eremuz eremu, eskualdez eskualde**.

Horretarako, bi planotan hartu behar dute ekimena bai Ezker Abertzaleak eta bai ezkerreko subiranisten aliantzarako subjektu berriak. Batetik, une honetan inoiz baino baldintza hobetoak daude Aieteko 4. puntuak funtzionatzen duen eztabaidari ekiteko, Euskal Herri osoan eta baita eremuz eremu ere. Gure apustua izan behar da batetik **eztabaida soziala bultzatzea, herritar eta eragile guztiek aukera izan dezaten Euskal Herriaren etorkizunaz eztabaidatu eta erabakitze**ko, eta beste alde batetik eragile sozial, sindikal eta politikoekin harreman dinamika zabala egituratu behar dugu, Akordio Demokratikoaren lanketarako bideak, tresnak eta prozedurak zehaztuz.

Eta, bestetik, **epe motzeko erronkei dagokienez, inolako konplexurik gabe iniziativa hartu behar dugu gehiengo sozialaren eskakizuna den Barcina Kanpora!! leloari erantzun zehatza emateko**. Nafarroan aldaketa nahi duten sektore sozial, sindikal eta politiko guztiei proposamen zehatza egin behar diegu alternatiba egingarri bat aurrera ateratzeko. Gure ustez, alternatiba honi begirako bidea bi urratsetan egin behar da. Lehenengo urratsean Barcina aginte instituzionaletik kanporatzea, hauteskundeak deitzera behartuz; eta bigarren urratserako geratuko zen **gehiengo soziala eta politiko instituzionala bildu dezakeen aldaketarako oinarritzko akordioaren edukiak adostea** (Estatusaren eztabaida demokratikoari bultzada, murrizketarik ez!!, politika ekonomiko eta sozial berri baterako gutxienekoak, hizkuntza politika, lurralde artikulaziorako egitasmoak...).

Ezin dugu ahaztu, **bai EAEn eta bai Nafarroa Garaian**, krisia dela medio, euskal jendar-tearen biziraupenerako baldintzak asko urrutiratu direla eta urrituko direla etorkizunean eren. Estatuko indar politiko eta ekonomikoak krisiaz baliatuko dira oinarritzko behar horiek eguneroko protagonista bilakatzeko eta Hego Euskal Herrian dauden aldarrikapen politiko eta sozial alternatiboak isilarazteko. Bi hitzetan esanda, **krisia inboluzio eta zentralizazio prozesua martxan jartzeko erabiliko dute**. Baina, era berean, **Madrialdik zuzenduko den zentralizazio prozesu hori, Katalunian bezalaxe Hego Euskal Herrian ere, herri kontzientzia pizteko erabili behar dugu**. Hor kokatzen da eraso inboluzionistaren aurrean jendarteratu behar dugun alternatiba soberanistaren ezinbestekotasuna, arlo politikoan zein ekonomikoan eta sozialean.

IV.- ILDO POLITIKOA

Proiektu politiko bakoitzak bere Ildo Politiko propio eta espezifiko du, berari soilik dagokiona. **Helburu taktiko eta estrategikoak lortzeari begira egin beharreko borrokaren eta zeregin programatikoen gida eta erreferentzia da**. Horregatik, oso garrantzitsua da Ildo Politikoaren elaborazio teorikoan asmatzea, aldizka haren eraginkortasun praktikoa aztertzea eta egiaztatzea eta, azken batean, **egoera bakoitzera moldatzen jakitea, baldintza objektibo eta subjektiboak kontuan izanik era egokian gauzatzeko**.

Hala ere, bere baitan lehenasunezko itun eta hitzarmenen printzipio koherentea daramanez **-Aliantza Politika orokorraren eremuan-**, **alderdi taktiko-estrategikoetan Ildo Politikoak zerbitzu bokazioa izan behar du, gehiengo politiko, sozial eta sindikalak eratzea helburu duen prozesu politikoa bultzatzeko balio behar du**. Prozesu horren xedea Euskal Herriaren nazio izaera eta Autodeterminazio Eskubidea onartuko dituen marko demokratikoa funkatzea da.

Ezker Abertzalearen adierazpen politikoa izango den SORTU indar politiko berriari dagokionez, **Ildo Politikoak hainbat irizpide eta helburu bete behar ditu**.

Lehenik, Ildo Politikoak **erantzukizun historikoaren irizpidea bete behar du**, hau da, askapen nazional eta sozialerako prozesuan Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak (ENAM) izandako bilakaeraren eta garatutako borroka esperientzien jasotzailea eta lekukoa izan behar du. Labur esanda, iragana, **oraina eta geroa lotzen dituen ildoak izan behar** da, euskal prozesu iraultzailearen garapen teoriko eta praktikoa alternatiba kontsekuenteak eskainiz.

Bigarrenik, **erantzukizun politikoaren irizpidea bete behar du**, Euskal Herrian nazio askapenerako eta eraldaketa sozialerako **prozesu iraultzailea bururaino eramateko beharrezkoak diren antolakuntza maila eta indar metaketa bermatzeko**.

Ildo Politikoaren dagokienez, lehena “Zutik Euskal Herria”-n funkatutako ildo estrategikoaren garapenean sakontzea izango litzateke, eta bigarrena Euskal Herriko erakunde politiko, sozial, herritar

eta sindikal ugarietan lanean ari den Ezker Abertzaleko militanteen artean hausnarketa sustatzea.

Labur esanda, **Euskal Herriko mugimendu politiko, ekonomiko, sozial eta kultural eraberritu baten Ildo Politikoa proposatu nahi dugu. Ildo Politiko berria subjektu eraldatzaile berri-arentzat**, Ezker Abertzalerentzat. Subjektu hori, politikoa ez ezik, ekonomikoa, sindikala eta kultur-ala ere izan behar da, bere garapenean Ezker Abertzaleko militante guztiak barnebildu behar ditu, eta **SORTU haren adierazpen politikoa eta polo erreferentziala izango da prozesu politikoan.**

Ildo Politikoa finantzatzeko orduan oso kontuan hartu behar dira gaur egungo baldintzak. **Baldintza horiek iraganeko borrokaren bidez erdietsitako lorpenak dira**, baina, **aldi berean, interes nazional eta klasekoen mesedetan eraldatu beharreko jardute eremuak dira.**

Horregatik, funtsezkoa da Ildo Politikoaren elementu nagusiak definitzea, SORTUk haietan oinarrituta jarraituko baitu hasitako bidetik eta beraiek izango baitira **gure proiektu independentista, sozialista, feminista eta euskaldunean jasotako helburuak erdiesteko bidean gure borroka politikoaren egokitasuna ziurtatzeko bermea eta euskarria.**

Orain zehazkiago azalduko ditugun elementu horiek **SORTUren proiektu ideologiko, politiko eta antolakuntzakoaren oinarri teoriko-praktikoak dira**. Batzuk historiko estrukturalak dira eta aldarrikatzen ditugun ideien multzoa osatzen dute; maila teoriko eta estrategikoko elementuak dira, SORTUren filosofiari eta pentsaera politikoari dagozkionak. Beste batzuk, aldiz, diskurtso eta jardunbide politikoaren inguruko pertzepzio dinamikoak dira, SORTUren praxi eta taktika politikoari dagozkionak.

Esan beharrik ez dago garrantzi handikoa dela elementu horien arteko loturak, erlazio arloak eta erritmoak aurkitzea, guztiak ondo uztartzea ezinbesteko baldintza izango baita prozesuan aurrera egiteko eta gure helburua den Euskal Herriaren askapen nazionala eta soziala lortzeko.

HONAKO HAUEK DIRA ELEMENTU NAGUSIAK, ORAIN JORRATUKO DITUGUNAK:

- A. Estrategia politikoa
- B. Taktika politikoa
- C. Konfrontazio Demokratikoaren fasea
- D. Gatazkaren Konponbidea
- E. Nazio eta Jendarte Eraikuntza

A.- ESTRATEGIA POLITIKOA

Proiektu politiko oro helburu zehatz batzuen baitan kokatzen da, baina, **aldi berean, helburu horiek erdiesteko borroka aurrera eramateko eta arrakastaz burutzeko gai izango diren jarrera,**

metodoa, tresnak, ekintzak eta gidaritza edo zuzendaritza behar ditu. Faktore horiek guztiak dira estrategia politikoa definitu eta osatzen dutenak eta guzti horietaz jabetu beharko du Ezker Abertzaleak.

PRINTZIPIO ESTRATEGIKOAK

Euskal Herria zazpi lurralde historikoz osatuta dago: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa. Zazpi lurraldeok Euskal Nazioa osatzen dute. **Euskal Herriari indarrez kendu zioten bere burujabetza osoa,** orduz gerotik espainiar eta frantziar Estaturen menpe dago eta sistematikoki ukatzen zaizkio bere nortasuna eta bere eskubide kolektibo nahiz indibidualak.

Mendeetan Euskal Herriak askotan aurre egin behar izan dio estrategia inperialistari Euskal Herria nazio gisara desagerrarazteko bi estatuek bideraturiko zapalkuntzari erantzunez. Halere, aitortu beharra dago Euskal Herriak ez duela berrogeita hamargarren hamarkadan sortu zen **Ekin taldeak (eta ondoren ETak) funkatu arte, gure herriarentzat proiektu nazional koherenterik izan.** Ekin Kolektiboak barne bildu eta berrinterpretatu zituen bere garaian Agustin Xahok, Joseph-Dominique Garatek, Manuel de Larramendik edota Sabino eta Luis Aranak plazaraturiko proiektuak. Beste batzuk, Nafarroako Erreinuak, erdi aroko euskal estatuaren baliokidetzat jotzen dute, eta hala izan badaiteke ere, proiektu horrek ez zuen zer ikusirik gero etorri zen estatu modernoaren ereduarekin. Asmo politikoetatik harago, **erresistentzia jarrera komunitario hori Herri gisa bizirik irauteko borondate kolektiboaren adierazle izan da.**

XX. mendeko lehen hamarkadetako hainbat aitzindari eta **ANV-EAE alderdia aurrekari dituela, egungo Ezker Abertzalea ETaren agerpenaren ondorioz eratu zen eta ENAM gisa garatu den mugimendu politikotik jaio zen,** eta sortu zenetik Euskal Herriaren askapen nazional eta eraldaketa sozialaren zerbitzura jarduteko konpromisoa erakutsi du. Ezker Abertzalearen ustez, gure nazioaren biziraupena bermatzeko eta herritarron askatasuna eta eskubide pertsonal eta kolektiboak bermatzeko formularik egokiena Euskal Estatu independente, sozialista, feminista eta euskalduna eratzea da.

Euskal Herriaren eta espainiar nahiz frantziar Estaturen arteko kontraesan nagusiari aurre egiteko estrategia baten bidez bete du konpromiso hori, **errealitate nazional eta klasekoaren baldintza objektiboak eta herri kontzientziaren eta borondatearen baldintza subjektiboak oinarritzat hartuz,** askapen nazional eta eraldaketa sozialerako prozesuaren baitan.

NAZIO ASKAPENERAKO BORROKA: KLASE BORROKAREN ETA ERALDAKETA SOZIALAREN ADIERAZLEA EUSKAL HERRIAN

Gatazka politiko historiko horren aurrean, bi Estatuetikiko mendekotasun egoeraren aurrean, **Euskal Herriak bere eskubide burujabeak eta askatasun osoa errebindikatzen ditu.** Gaur egungo estatu-markoa (espainiarra eta frantziarra) eredu kapitalista eta neoliberalen oinarrituta dago, objektiboki elite ekonomiko eta politikoak indartzen ditu eta gure eskubide eta askatasunak ukatzen ditu. Horren aurrean, SORTUK **objektiboki langileria eta herri sektoreak zein gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna babestuko dituen eta gure eskubide nazional eta sozialak bermatuko dizkigun Euskal Estatu sozialista aldeztzen du.**

SORTUK testuinguru horretan eta helburu horrekin esaten du Euskal Herrian **klase borrokak Askapen Nazional eta Sozialerako borrokaren forma eta edukia hartzen dituela.** "Nazionalismo iraultzailean" oinarritutako sustrai abertzale horietatik, pentsaera ezkertiar horretatik eta ekarpen feministatik, SORTUK Independentzia eta Sozialismoa hartzen ditu helburutzat, **Euskal Herri Independente, Sozialista, Feminista eta Euskalduna, Euskal Estatu (Errepublik) sozialista gisa eratuz.**

SORTUrentzat ezinbestekoa da Estatu eta estatu moduan dagozkien tresna guztiak eratzea, euskal konstituzioa barne, hau da, Euskal Estatu sozialista eratzea. Nazioen eta Estatu Nazioarteko Komunitatearen aurrean Euskal Herria berezko subjektu gisa identifikatzeko eta kohesionatzeko, gure nazioarteko harremanen eredia erabakitzeko eta Europan nahiz mundu zabalean gure herriaren interes nazional eta klasekoak defendatzeko.

SORTUrentzat, askapen prozesua nazionala da; ideia feminista, euskaltzale, abertzale, internazionalista eta klasekoak kontrajartzen dizkio klase dominatzaile eta inperialisten nazionalismoari; eta bere egiten du honako baieztapena: *"Euskal langileak ez gara ez espainiarrak ez frantziarrak, soil-soilik euskal langileak gara, eta beraiekin batzen gaituena ez da nazio berekoak izatea, klase berekoak izatea baizik".*

Klase kontzientziaren eta nazio kontzientziaren uztarketak Euskal Herria klase borrokaren esparru autonomo gisa aldarrikatzera eta deslokalizazio neoliberalaren aurrean lan eremu nazionala defendatzera darama SORTU. Ildo horretan, lanpostu duinen defentsa ere autokontzientzia nazional eta klasekoa indartzen duen nazio eskumena da. Horregatik da hain garrantzitsua **Euskal Esparru Ekonomikoa, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eta Euskal Herriko ekonomia nazionala defendatzea eta artikulatzea.**

Halaber, **kontzientzia feministak errealitatea era kritikoan aztertzen eta eraldatzen**

laguntzen du. Feminismoak ekarpen teorikoak egin ditu, termino eta kontzeptu berriak sortuz, eta ekarpenak egin ditu praktika politikoaren arloan ere, hala nola “pertsonala dena politikoa da” lelo klasikoak laburbiltzen duena.

SUBJEKTU IRAULTZAILEA: EUSKAL LANGILE HERRIA

Edozein proiektu edo prozesu ezinezkoa da hura aurrera eramateko gai izango den subjekturik ez badago. Hain zuzen ere, **hori izan da euskal teoria iraultzailearen osaeran egin den ekarpenik handienetako bat:** euskal prozesu askatzailearen gidarritza eta zuzendaritza lana egitea nori dagokion definitzea eta subjektu hori ezaugarritzea.

Euskal Herrian subjektu bikoitza behar zen. Batetik, **lurralde historiko guztiak barne-bilduko zituen eta Estatuaren zapalkuntza markoen aurrean askapen antitesia izango zen subjektu nazional bat. Bestetik, esplotazio kapitalistaren aurrean interes herri-tar eta klasekoei erantzungo zien subjektu sozial bat.** Bi errealitate horiek uztartu eta **bi errebindikazioei alternatibak eskaini ahal izango zizkien subjektu bakarra behar zen,** beraz. Izan ere, **Euskal Herrian, nazio arazoa eta arazo soziala prozesu beraren bi alde banaezinak dira,** kontraesan beraren bi aldeak. Horren ondorioz, nazio zapalkuntza-aren aurkako borroka eta klase esplotazioaren aurkako borroka, borroka beraren bi adierazpen dira.

Historikoki, Ezker Abertzaleak Euskal Langile Herria (ELH) deitu izan dio subjektu iraultzaile horri, eraldaketaren subjektu nagusi gisa ulertuta. Euskal Herrian gertatutako aldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak eraldaketa sakona eragin dute jendar-tearen egiturari. Horren ondorioz, **euskal subjektu iraultzailearen osaera aldatu da, baina ez haren funtsa.** Hori guztia dela eta, SORTUrentzat Euskal Langile Herriak Euskal Herriko askapen nazional eta eraldaketa sozialerako borrokaren subjektu iraultzailea izaten jarraitzen du, eta gaur egun hauxe da **haren osaera: independentzia eta sozialismoa nahi dituzten langileak, langabeak, pentsionistak, etxeko lanak egiten dituen pertsonak, emakumeak, gazteak, ikasleak, autonomoak, kooperatibistak, herri sektoreak...**

Ezin da dudari jarri, ELH nazio askapen prozesuaren subjektu nagusia dela. Nahiz eta, jasan dituen aldaketak, batez ere, pasa den mendearen azken herenetik emandakoak, ikuspuntu sozialista batetik ematen ari den nazio askapen prozesuan duen nagusitasun eta inklusoz subjektu historiko bezala duen garrantzi hori desitxuratu. Baina errealitatea burugogorra da, zeren nazio zapalkuntza eta klase zapalkuntza mantentzeaz gain, orain bizi garen bezalako krisi garaietan areagotu egiten baita. Egoera historiko hauen aurrean, klase sozial bakoitzak eta klase sozial bakoitzaren barnean fakzio bakoitzak bere proiektu propioa garatzen du, ikuspuntu sozialista batetik emandako nazio askapen prozesua izanik, dauzkan baldintza objektibo eta subjektiboengatik, ELHaren proiektua. **Aldaketa horiek eta**

klase borrokan duten eragina aztertzea eta kontuan hartzea funtsezkoa da ELHren kontzeptua eguneratzeko, dimentsionatzeko eta Euskal Herriaren nazio askapenerako eta eraldaketa sozialerako borrokan dagokion paper hegemonikoa zehazteko.

Formula teoriko historikoaren arabera, euskal herritarrak dira Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten pertsona guztiak edo, terminologia marxista erabiliz, Euskal Herrian bizi eta beren lan indarra Euskal Herrian saltzen duten pertsona guztiak. Hala ere, **gaur egun guztiz beharrezkoa zaigu defnizio hori egokitzea**, ekonomiaren bilakaerak sortutako baldintza berriek eta horrek ekarritako aldaketek, gehikuntzek eta dibertsifikazioak eragin handia izan baitute egitura sozialak eratzen dituzten pertsona eta sektoreen osieran.

SUBJEKTU IRAULTZAILEA: EUSKAL LANGILE HERRIA (EHL)

Printzipio ideologiko teorikoa bere egiten badu ere, **SORTUren ustez gaur egun ezinbestekoa da subjektu iraultzaile berriaren osaerari beste eduki bat eranstea: euskal nazioko kide izatearen sentimendutik eta euskal nazio askapenaren aldeko kontzientziatik sortutako nazio nortasuna**. Izan ere, errealitate horretan hartzen du zentzu eta balio politikoa Euskal Langile Herria askapen nazional eta eraldaketa sozialerako prozesuaren subjektu iraultzailea dela dioen kontzeptuak

ENAMEN BILAKAERA ESTRATEGIKOA

Handiak izan dira ENAMek bere 50 urteotako historian Euskal Herrian gertatzen ari ziren eta berak bultzaturiko aldaketa soziopolitiko, kultural zein **abagune berrietara egokitze-ko buruturiko birmoldaketa estrategikoak eta antolaketakoak**. 1960ko hamarkadaren hasierako estrategia intsurrekzionaletik eta fronte egituratik, 1974ko udazkenetik aurrera bideratu zen estrategia politiko-militarrera pasa zen. Eta, 1994ko Negoziaketa Estrategiatik Nazio Eraikuntzara.

2010ean, aurreko urteko udazkenean hasitako eztabaida prozesua bukatu ondoren funkturiko ondorioak **“Zutik Euskal Herria” txostenean aurkezturik, Ezker Abertzaleak garrantzi handiko inflexio-puntu bat ezarri zuen bere ibilbidean**. Hala, 53 urtez garatutako intsurrekzio estrategia eta ondorengo estrategia politiko-militarra gaindituztat jotzeko **erabaki historikoa hartu zuen, konfrontazio demokratikoan oinarritutako estrategia soilik politikoa abian jarritz**. ENAMen strategiaren bilakaera estrategia politikoa, borroka moldeak eta antolakuntza tresnak egokitzeke eboluzio prozesu dinamiko etengabea izan da, proiektu politikoaren eta independentzia eta sozialismoa lortzeko borrokaren zerbitzura.

Prozesu horretan hausnarketa etengabea da: nazio, estatu zein nazioarte mailako er-

realitateak eta testuinguruak ulertzeko; kontraesanei aurre egiteko; borrokaren aurre-rakaden, **blokeoen edo atzerakaden aurrean alternatiba egokiak eskaintzeko**; bideak erakusteko eta zuzendaritza politikoa bermatzeko, hala proiektuari nola prozesu politikoari dagokienez. Eboluzio prozesu horren baitan, eta berari esker, azken urteotan **ENAM osoak beharrezkotzat jo du eztabaida eta hausnarketa sakona egitea**: mugimenduaren eta prozesu iraultzailearen barneko nahiz kanpoko errealitateetan sakontzeko, eta borrokak sortutako faktore eta agertoki berriak aintzat hartzeko.

Ahalegin kolektibo horren bidez, **hamarkadetako borroka politikoak sorrarazitako baldintzei esker eta hausnarketa prozesuaren ondorio gisa, askapen nazional eta eraldaketa sozialerako estrategian aldaketa kualitatiboa egitea erabaki zen: proiektu independentista lortzeko borroka tresnak soilik politikoak eta konfrontazio demokratikokoak izan behar dira**. Estrategia aldaketa hori *“Zutik Euskal Herria”* eztabaidaren ondorioetan jasota dago.

BIDE DEMOKRATIKO ETA POLITIKOAK

Hala, konfrontazio demokratikoko estrategia politiko berritu batean oinarritutako fase berria ireki da. **Aldebakartasunez, bide soilik politiko eta demokratikoen bidezko borrokarekin konprometitutako prozesu demokratikoa ireki da**. Fase berri honetan, **konfrontazio armatuko bortizkeriaren aldebakarreko bukaerarekin batera eta presio soziala dela medio, bukaera eman behar zaie Estatuaren indarkeriazko estrategia inposatzaile eta hertsatzaileei ere**. Horrela, marko demokratikoko agertokia ezarri behar da, non konfrontazio demokratikoaren bidez aukera politiko guztiak zilegitasun osoz gauzatu ahalko diren.

Horri dagokionez, bi gauza argitu nahi ditugu, SORTUK pedagogia politikoa egin behar baitu haien inguruan. Lehen **Ezker Abertzalearen apustu politikoaren aldebakartasuna da. Estrategia aldatzea eta fase politiko berria eraikitzea Ezker Abertzaleak bere borrontatez hartutako aldebakarreko erabakia izan da**, Euskal Herria aldaketa politiko, kultural eta sozialerako agertoki demokratiko berritu batera eramateko eta gure Ildo Politikoa helburu horiek lortzeko koordinadetan kokatzeko asmoz hartutako erabakia. Beraz, Ezker Abertzalearen apustu politikoa aldebakarrekoa eta baldintzarik gabea izateak bi helburu ditu: **Estatuekiko konfrontazio armatuko estrategiak desaktibatzea** (bi aldeetako batek urrats hori egin du dagoeneko, ETak behin betiko bukatutzat jo baitu bere jarduera armatua) eta Euskal Herrian halabeharrezko normalizazio politikoa **eragozten duten jarrera inmobilisten blokeoa haustea**.

Horrenbestez, **aldebakartasuna batez ere euskal jendarteari eta nazioarteko komunitateari zuzendutako urrats politikoa da**, bide demokratikoak eta elkarrizketarako, negoziatorako nahiz **Estatuekiko aldebiko akordio politikorako espazioak sustatzeko asmoz egindakoa**, honako helburu hauekin: **marko demokratikoa lortzen laguntzea eta gatazka politikoa behin betiko konpontzeko eta bakea lortzeko oinarriak jartzea**.

Apustua Euskal Herria subjektu aktibo eta jasotzaile politiko duen prozesu demokratikoan kokatzen denez gero, **argi dago Ezker Abertzalearen apustu politikoa multilateral eta barneratzailea ere badela, aldebakarrekoa izateaz gain, agertoki demokratiko hori euskal jendartea ordezkatzeko eragile sozial, sindikal, kultural, herritar eta politiko guztien artean eraiki behar baita**, elkarlanean, guztien parte-hartzearekin eta guztiek onartutako oinarrietatik abiatuta.

Bigarrenik, Ezker Abertzaleak konfrontazio demokratikoa esaten dion horretan erabili beharreko bide politikoak zer diren zehaztu nahi dugu. **Ezker Abertzaleak estrategia politiko-militarra gainditzeaz eta estrategia soilik politiko bat garatzeaz hitz egiten duenean, ETAk erabilitako jarduera armatua gainditzeaz ari da**, argi eta espezifikoki, eta hori gertatu da dagoeneko. Hala ere, horrekin batera, **Ezker Abertzaleak oso argi dauka Estatuak Euskal Herriaren kontra erabiltzen duten indarkeriak bere horretan dirauela**. Indarkeria estrukturala, sistemikoa eta antolatua da. Estatuak aparatuko guztiek erabiltzen dute, "legearen eta ezarritako ordenaren" printzipio sakro-santuaren izenean, agintean dagoen klasearen botere politikoaren zerbitzura. Indarkeria horren adierazpenik agerikoena eta zuzenena errepresio poliziala eta judiziala da, baina beste adierazpen batzuk ere baditu, ezkutuagoak eta zeharkakoagoak, jarduera linguistikoa, kultural, sozial, politiko, genero eta ekonomikoaren esparru guztietara hedatzen direnak.

Ezker Abertzalearen **konfrontazio demokratikoko politikak ordenu sozial eta politiko bidegabeak sortutako indarkeria horiei guztiei egin behar die aurre**. Borroka politikoa bide soilik demokratiko eta politikoetatik garatzeko borondate kontzientetik abiatzen da SORTU, baina **egiturazko indarkeria horrek eragiten dituen erantzunak kontuan izanik**. Beraz, **SORTUrentzat zilegiak dira defentsa erreakzioak, jasaten ari garen eraso eta indarkeria sistematikoari eta estrukturalari herriak ematen dizkien erantzunak: ideologiaren, hizkuntzaren, kulturaren, lanaren, ekologiaren eta generoaren arloko erasoak aurkakoak, duintasunez bizitzeko gutxieneko eskubideen aldekoak, eskubide zibil eta politikoaren urraketen kontrakoak, errepresioari aurre egitekoak. SORTUk defentsa erreakzioen zilegitasuna aitortzeaz gain, egoerak hala eskatzen badu, defentsa erreakzioak bultzatu eta indartuko ditu**.

SORTU "indarkeria eskusiboaren" planteamendu faltsuaren aurrean intsumiso deklaratu da, eta indarkeria erabat desagertu behar dela aldarrikatzen du, mota guztietako indarkeriak eta bizitza ekonomiko, sozial, kultural eta politikoaren eremu guztietan. **Sortu, bakezalea baino, askatzailea da. Askatasunean bizi diren herritarrez osaturiko herri batean soilik existitu ahalko da benetako bakea**. Sortu bakearekin konprometitzen da, ez bakea ezartzearekin. Izan ere, pazifismoa eta bakea ezartzea zapalkuntza kolonialistako eta esplotazio kapitalistako prozesuetan historikoki eta politikoki ideologia erlijioso eta inperialistek lotuta egon diren.

SORTUrentzat, desobedientzia zibil, kultural eta politikoa gaur egungo egoerari

erantzuteko borroka funtsezko tresna eta Euskal Herriaren interes indibidual eta kolektiboak defendatuko dituen herri boterea Estatuaren eta sistema kapitalistaren boterearen aurrez aurre herri boterea jartzeko alternatiba da. Ildo horretan, langileriaren eta herri sektoreen parte-hartzearekin **SORTUK herri gisa garatuko duen konfrontazio demokratikoaren parte dira desobedientzia zibila, nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala**. Madrildik edo Parisetik etor daitezkeen legedi edo arau inposatzaileak saihesteko instituzioetatik ere bultzatu du desobedientzia **SORTUK**. **Ekimen hauek herritarren ahalik eta atxikimendurik handiena izan dezaten lan egingo du SORTUK**.

Parametro horietan kokatzen du **SORTUK konfrontazio demokratiko eta politikoaren bidezko borroka**. **Bere erantzukizuna betetz, SORTUK gure proiektu politiko eta sozialaren aldeko gehiengo politiko eta sozial berriak eraikitzeke egiten duen aurre-erapauso kualitatiboa da**. Izan ere, gure proiektua bururaino eramateko ezinbestekoa da herriaren konfiantza irabaztea eta independentziaren eta sozialismoaren aldeko atxikimendu demokratikoa sustatzea.

Eta hori guztia, txostenaren hasieran aipatu ditugun **SORTUren ildo politikoaren helburu estrategikoa bermatzeko, beraz**, independentzia, sozialismoa, feminismoa, euskalduntasuna lortzeko, Euskal Estatu Sozialistaren baitan.

HELBURU ESTRATEGIKOAREN EZAUGARRIAK

Estatuaren kontzeptu tradizionalak dituen alde negatiboen jakitun izanik, SORTUK bestelako eredu eskaintzeko konpromiso sendoa hartzen du. Gure Estatuak ekonomia-aren arloko zapalkuntza eta esplotazio forma guztiak desagerraraztea izango du helburu (sozialak, kulturalak nahiz generokoak). Jendartearentzat onuragarriak diren elementuak bildu eta jasoko ditu, hala nola herri nortasunaren oinarriak (euskara eta euskal kultura), ideia sozialistak eta feministak, herri demokraziaren funtsa... Gure Estatuak herritarrek parte hartzeko tresnak erabili eta garatuko ditu; garrantzi handia emango die auzo, herri eta eskualdeei; parte-hartze demokrazia sustatuko du auzolanaren, herri kontsula eta batzarren bidez; Euskal Estatu berria eraikitzeke benetako aukera zabaldu du.

Euskal Estatu euskal herritarron gehiengo kualifikatuak hartutako erabakiaren bidez gauzatu da; langileriaren eta herri sektoreen interesak babesteko ditu; nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala garatuko ditu jendarte osoaren eta, bereziki, langileriaren eta herri sektoreen interesei erantzuteke, azken helburua pertsona aske osatutako herri askea eraikitzea izanik. Tresna politiko horren azken buruko eredu Euskal Estatu Sozialista izan behar da. **Estatu horrek askatasun osoa eta euskararen nahiz euskal kulturaren berreskurapena bermatuko ditu, esplotazio kapitalista eta patriarkala desagerraraziko du, eskubide indibidual eta kolektiboak babesteko ditu, bizi baldintza duinak ziurtatuko dizkie pertsona guztiei eta aberastasuna era bidezkoan birbanatuko du**.

SORTUren proiektu politikoaren helburua Euskal Herriko independentista eta sozialista guztiak biltzea denez, langileriaren Lehen Internazionala ondoren sorturiko ezkerreko tradizio historiko guztiek eta sozialismoa ulertzeko modu ezberdinek, bere baitan tokia izan behar dute. Beraz, **sozialismoaren irakurketari dagokionez, proiektu politiko malgua izan behar da, biltzeko joera izango duena, ez jendea alboratzekoa. Gure proiektuak zapalkuntza ororen aurrean defendatuko ditu Euskal Herriko langileriaren eta herri sektoreen eskubideak.**

Honako hauek izango lirateke horretarako gutxieneko oinarriak:

- Ekoizpen-bideen eta sektore ekonomiko eta finantziario estrategikoen jabetza publikoa eta banku nazionala;
- Sektore publikoa lehenestea, pribatuaren gainetik;
- Zerga politika progresiboaren ezinbestekotasuna;
- Pertsonen aukera eta eskubide berdintasuna eta ahalduzkoa helburu izango dituen demokrazia parte-hartzailea, herriaren boterea artikulatuko duena;
- Euskal Herria bere osotasunean hartuko duen neurriko azpiegitura politika;
- Klase borrokaren existentziaren onarpena;
- Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren banaketa ez sexista, esplotazioa errotik erauzteko;
- Aberastasunaren birbanaketa bidezkoa, ondasunen banaketa orekatua bilatuz eta ekonomia soziala zein kooperatiboa bultzatzea;
- Zerbitzu sozial indartsuak.
- Jarduera ekonomikoak jasagarria izan behar du, hurrengo belaunaldientzat baliabide naturalak bermatu eta emendatu bidean, eta naturaren aniztasuna gordetzeko

B.- TAKTIKA POLITIKOA

Helburu estrategikoetara zuzenean iristeko gaur egun ez dauden baldintzak eta indar erlazioa eta korrelazioa beharko lirateke. Horregatik, **ikuspegi estrategikoa inoiz galdu gabe, bidearen jarraitutasuna ahalbidetuko duen eta norabide horretan lortutako aurrerapenak funkatuko dituen mailakako tresna taktikoa behar da.**

Beraz, SORTUrentzat taktika politikoaren estrategia politikoaren garatzea ahalbidetzen duen elementu dinamikoa da. Gure kasuan, Euskal Herri independentea, sozialista, euskalduna eta feminista lortzeko bidean **aurrerapen sozial, politiko, kultural eta instituzionalak egitea ahalbidetuko duten etapak dira.** Ildo horretan, honako hauek dira egin behar ditugun urrats eta zeregin mailakatuak:

- Helburu estrategiko horiek lortzeko bidean, indar metaketa eta egindako aurrerapenekin kontsekuentea izango den aliantza politika erraztea.
- Hala proiektuari nola prozesu politikoari dagokionez eskubide nazional eta sozialen gutxieneko oinarrien gainean baldintza objektiboak eta subjektiboak sortzea.
- Langileria eta herri sektoreak beraien interesak defendatzen dituzten eragilea politiko, sozial eta sindikalak antola ditzaten bultzatzea.
- Jendartean partaidetzarako eta erabaki kolektiboak hartzeko kultura eta kontzientzia areagotzea, ahalduntzea.
- Herri boterea egituratzeko ekimen instituzionalak eta programak bultzatzea.
- Barne nahiz kanpo kontraesanei aurre egitea, dagozkien markoetan gaingitu arte, barneko eztabaidaren eta kritika-autokritikaren bidez edo kanpoko jarduera politikoaren bitartez.

SORTUK badaki independentzia erdiestea eta Euskal Herrian sozialismoa eraikitzea lan eta borroka luzea emango duen egitasmoa dela. Horretarako baldintza objektiboak eta subjektiboak sortu eta egokituk ditu, prozesu luze baten bidez.

SORTUK fase taktikoak garatuko ditu borroka politikoan, indar erlazioa eta korrelazioa aldatzen joateko eta aldaketa politiko eta sozialaren alde jartzeko. **Horrek borroka ezberdinak konbinatu eta elkar elikatzeko baldintzak sortu behar ditu.** Kontzientziatze eta sendotze etapak eraikiko ditu, egituraketa sozialaren eta artikulazio instituzionalaren gutxieneko oinarriak funkatzeko.

C.- KONFRONTAZIO DEMOKRATIKOA

SORTUren ustez, nazio askapenerako prozesua konfrontazio politikoko fase batetik igaro behar da, klase borroka eta justizia soziala, nazio eraikuntza eta nazio askapenerako borroka garatzen jarraitzeko **gutxieneko oinarri estrategikoak funkatzeko dituen Alternatiba Taktikoa izango dena.**

Konfrontazio fase politiko hori Iraultza Demokratiko Nazionalaren fasea izango da.

*“Zutik Euskal Herria”*n jasotako **estrategia politiko berriak eskatzen digun bezala,** etapa demokratikoa garatu eta sakonduko du eredu burokratikoak eta elitistak baztertzen, **Euskal Herriaren nazio izaera eta euskal herritarren Determinazio Askerako Eskubidea aitortuak izan daitezten.**

Patriarkatu Kapitalista eta herri demokrazia kontzeptu antagonikoak direla hartzen dugu oinarritzat. Horregatik, kontraesan hori gaingitzeko, bultzatuko dugun eredu sozialista demokrazia parte hartzailean oinarritu behar da ezinbestean.

Euskal Herriaren ezaugarrietara moldatutako sozialismoa nahi dugu, klase borrokaren, genero eta sexu zapalkuntza gainditzeko borrokaren eta nazio askapenerako prozesuaren errealitate objektibo eta subjektiboetan eraikitzen joango dena eta nazio izaera eta edukia hartuko dituen, beraz euskalduna. **Horretan datza Ezker Abertzaleak behin baino gehiagotan aipatu duen Sozialismo Identitarioa, XXI. mendeko sozialismoaren euskal eredia.**

Zapalkuntza nazionala eta soziala kontraesan nagusi beraren bi aldeak dira eta, beraz, borroka bakarra osatzen dute. Era berean, **euskal errealitate nazionala eta euskal errealitate demokratikoa kontraesan beraren bi aldeak dira** eta errebindikazio borroka bakarretik bideratuko dira.

Gure herrian demokrazia egon dadin, ezinbestekoa da Euskal Herriaren nazio izaera (lurraldea, kultura, hizkuntza, historia, politika...) eta erabakitze eskubidea onartuak izatea; ezinbestekoa da euskal lurraldeetako gizon-emakumeek askatasunez eta demokratikoki definitu eta erabaki ahal izatea, inolako baldintzapenik gabe, Euskal Herriko lurraldeen arteko barne harremanak eta beste instituzio batzuekiko (Madrilgoak, Pariskoak nahiz Europakoak eta gainerakoak) kanpo harremanak. **Baldintza horiek betetzen ez diren bitartean, Euskal Herrian ez da errealitate demokratikorik izango.**

Beraz, Euskal Herriaren **Erabakitze Eskubidea ez da inolako proiektu politikoren parte, aldarrikapen demokratikoa baizik**. Eskubide hori ukatzen duenak demokrazia bera ukatzen du eta, ondorioz, normalizazio demokratikoa. **SORTUK indarrak biltzeko konpromisoa hartzen du**, konfrontazio demokratikoaren bidetik, espainiar eta frantziar estatuei Euskal Herriaren nazio izaera eta Determinazio Askerako Eskubidea onar ditzatela exijitzeko prest dauden sektore sozial, kultural, sindikal eta politiko guztiekin.

Indar metaketa funtsezko tresnatzat hartuz, SORTUK dagokion erantzukizun politikoa betez, interes nazional eta aurrerakoien bat egiten dituzten eragile politiko, kultural, sindikal eta sozial-ekin aliantzak eta akordioak garatzen jarraituko du. Hala, **SORTUK eragile politiko, sindikal eta sozialez osatutako Herritarren Bloke Independentistaren aldeko apustua egingo du**, Euskal Herriaren burujabetza osoa lortzeko estrategiaren adierazpen goren gisa.

Horrek ahalbidetuko du **Aliantza Politikan beste urrats bat egitea, European Euskal Estatuaren eratzea eta onartua izatea helburu izango duen Euskal Herriko klasearteko Itun Nazionala osatzeko bidean, hau da konpromiso historikoa erdiestea. Euskal Estatu hori ez litzateke oraindik sozialista izango, baina horretara iristeko aurrerapauso kualitatiboa izango litzateke.**

Laburbildurik, SORTUK fase berri hau bultzatzeko konpromiso formala hartzen du, haren inplementaziorako gehiengo sozialak lortzera bideratutako antolakuntza eta aliantza politikak aplikatuz. **SORTUK funtsezko ideia horiek oinarritzat harturik definitzen du Iraultza Demokratiko Nazionalaren fase taktiko-politiko honen izaera:**

A. IRAULTZAILEA

Helburu estrategikoari dagokionez: **independentziaranzko nahiz sozialismo identitarioranzko eta erabat euskalduntze prozesuaranzko trantsizio etapa delako** eta horretarako premisak ereiten dituelako. **Demokrazia berria sortzea, iraultza prozesua da.** Gaur egungo menderakuntza harremanak errotik aldatzeko oinarriak funkatu behar ditu, klase esplotazioari dagokionez (sozialismoa), nazio zapalkuntzari dagokionez (independentzia), genero esplotazioari dagokionez (feminista) eta kultur zapalkuntzari (euskara eta euskal kultura) dagokionez. Prozesu iraultzailean aurrera egiten jarraitzeko urrats beharrezkoa da.

Helburu taktikoari dagokionez: bere baitan biltzen dituen eraldaketa politikoaren arloko elementuak aldaketa soziala lortzeko funtsezkoak direlako, **herritarrek parte hartzeko eta erabakitzeko bideak jasotzen dituen kultura politiko berri batetik.**

B. DEMOKRATIKOA

Historikoki, gure Nazioan, demokraziaren kontzeptua zeharo itxuragabetzen duten bi adjektibo erantsi izan zaizkio demokrazia hitzari: burgesa eta espainiarra/frantsesa. Bada garaia kultura politiko berriaren zerbitzura egongo den demokrazia errebindikatzeko, askapen nazional eta eraldaketa sozialerako prozesuaren aliatu objektibo bilakarazi arte. **SORTUK demokraziaren funtsa berreskuratuko du: boterea herriarena eta herriarentzat da. Demokrazia teoria eta praxi iraultzailearen zilegitasun osoko ondarea izatea lortuko du.**

Erabateko demokrazia eta haren oinarriak neoliberalismoarekin bateraezinak dira. Horregatik, oso argi daukagu hortxe datzala gure sendotasuna eta, ondorioz, horixe dela indar atzerakoi eta erreformisten ahulgunea. Kapitalismoa krisi etengabea dago, eta horrek sistema demokratikoa bera kolokan jartzen duten krisi politiko eta sozialak eragiten ditu. Beraz, demokrazia erreala gure indar nazionala eta Estatu zapaltzaileen ahulgunea izatea lortuko dugu. Eta, **demokrazia erreala eta ez soilik formala izan dadin, iraultza kulturala egin eta parte-hartzean oinarritutako borroka politikoaren kultura berri bat inplementatu behar dugu.**

SORTUK honela arrazoitzen du Iraultza Demokratiko Nazionala:

- Lortu nahi dituen helburuak Euskal Herriarentzat Independentzia, Sozialismoa, Feminismoa eta Euskalduntasuna dira.
- Helburu horiek lortzeko konfrontazio politikoan borroka bide demokratikoak soilik erabiliko ditu, hala nola, borroka ideologikoa, masa borroka eta borroka instituzionala,
- Helburu horiek euskal jendartearen gehiengo kualifikatuk onesten baditu soilik gauzatuko dira.

- Gaur egungo ustezko demokraziak emakumeek eta gizonek parekidetasunez parte hartzea eragozten duela jakinik, diskriminazio hori eragiten duten arrazoiak aztertuko ditu, hauek gainditu eta gizon-emakumeen eskubide eta arduren parekidetasuna bermatzeko matxismoaren eta patriarkatuaren botere harremanak hautsiz. Emakumeok Euskal Herriaren eraikuntzan ezinbesteko subjektu aktiboak garen heinean, gatazkaren konponbidean ere gure tresna izango da SORTU, horretarako gure parte hartzea sustatu eta bermatuko duten bitarteko eta espazioak martxan jarritz.
- Klase politiko dominatzailearen gehiegikerien eta ustelkeriaren eraginez herritarren artean galdu dituen konfiantza eta sinesgarritasuna itzuliko dizkio demokraziari.
- Demokraziari jatorrizko izaera iraultzailea itzuliko dioten balioak eta adjektiboak berreskuratuko ditu: euskal demokrazia herritarra, euskal jendarteari botere erreala emateko.

C. NAZIONALA

Lehenik, **ezarritako helburuak euskal nazioa osatzen duten zazpi lurralde historikoetan lortuko direlako, Euskal Herri osoan alegia.**

Bigarrenik, **taktikoki aukera ematen duelako Euskal Herri osoko lurralde guztietan erritmoak egokitzeko eta estrategiak bateratzeko**, gaur egungo marko juridiko politikoek ezarritako zatiketaren gainetik.

D.- GATAZKA POLITIKOAREN KONPONBIDEA

Duela mende batzuk **Euskal Herria okupatu zutenetik, gure herriak espainiar eta frantziar botereen aldetik menderakuntza politikoa, ekonomikoa, linguistikoa eta kulturala pairatzen du**, askotan bertako indar batzuen ezinbesteko laguntzarekin. Existitzeko eskubidea, erabakitze eskubidea eta Nazio eta Estatu Nazioarteko Komunitatean parte hartzeko eskubidea ere ukatzen zaizkio.

Menderakuntza horrek erregimen zapaltzaileak ekarri ditu, eta **Euskal Herriaren kontra sistematikoki erabili izan dira errepresioa, bereizkuntzarik gabeko erasoak eta eskubide zibil, kultural eta politikoen urraketak.**

Gerraren eta bortizkeria politikoaren espektroa egoera eta garai desberdinetan gailendu da, inposatzaileen erasoen bidez beti, baina baita erasotutako herriaren defentsa erantzunaren bidez ere.

Aitortzaren ukazioa, Euskal Herria nazio proiektu gisa suntsitzeko oinarria da. Ukazio horretatik abiatuz, hainbat eskubide zapalketa burutzen da, hizkuntza, kultura, naziotasun, genero zein

eredu sozio-ekonomikoaren inguruan. **Horixe da espainiar eta frantziar estatuen eta Euskal Herriaren arteko gatazka politiko historikoaren jatorria, horixe da arazo politikoaren funtsa.**

Ezker Abertzaleak gatazka elkarrizketaren, negoziazioaren eta akordio politikoaren bidez konpontzeko eskaintza egin du beti, Arjelgo elkarrizketa prozesua burutu zenetik, ondoren Lizarra-Garazi Akordioan eta, azkenik, Anoeta-Loiola elkarrizketa prozesuan. Konponbide demokratikoaren subjektua eta hartzailea euskal herritarrek izan behar direla aldarrikatu du, eta eskaintza horri eusten dio.

Euskal Herriaren nazio izaeraren aitortza eta euskal herritarren borondate demokratikoaren errespetua helburu, **Ezker Abertzaleak beti aldeztu du bere izaera multidimentsional osoan heldu behar zaiola gatazka politikoaren konponbideari.** Proposamen eta eskaintza ugari egin eta askotariko konpromisoak hartu ditu konponbide prozesu bat irekitzeko, Erabakitze Eskubidea (edo Autodeterminazio Eskubidea/Determinazio Askea) oinarri izan behar duen agertoki eta marko demokratiko bat eraikitze bidean.

Nolanahi ere, **Ezker Abertzalea ez da mugatu bere borondatea asmo politiko hutsen esparruan agertzera.** Aitzitik, azken urteotan gatazka gainditzera bideratutako aldebakarreko urratsak egin eta hainbat ekimen bultzatu ditu. Bruselako Adierazpena, Gernikako Akordioa/Mitchell Printzipioak eta Aieteko Nazioarteko Konferentzia Ezker Abertzaleak prozesu demokratikoa abiarazteko daukan borondate sendoaren funtsezko mugarriak eta zutabeak dira.

Hainbat adierazpen eta erabakiren bidez, ETAk gatazka politikoa gainditzeko borondate argia erakutsi du, eta horrek lehen aipatutako ekimenak indartu ditu. Azkenean, 2011ko urriaren 20an, bere jarduera armatua behin betiko bukatzeko erabaki aldebakarrekoa, baldintzarik gabea eta atzerazina plazaratu zuen.

Prozesu demokratiko baten **parametroetan gatazka politikoaren konponbideari ekiteko gaikoak elkarren osagarri diren bi etapatan banatzen dira: Normalizazio Politikoa eta Irtenbide Demokratikoak.**

Normalizazio politikoari dagokionez, bake eta normalizazio politikorako prozesua abiatu behar da. Prozesu horretan, **inolako bortizkeria politikorik gabe, konponbideak aztertu, landu eta eskaini beharko dira gatazkaren ondorio guztietarako, bereziki konfrontazio armatuaren ondorioetarako.** Hor sartzen dira euskal errepresaliatuak, errefuxiatuak, iheslariak eta erbestertatuak, euskal preso politikoak, bi aldeetako biktimak, errepresio estrategiak, prozesu judizialak, ETArekin armagabetzea eta haren egitura militarren desegitea eta Estatuen desmilitarizazioa Euskal Herriko lurraldean.

Irtenbide demokratikoari dagokionez, elkarrizketan eta negoziazioan oinarritutako agertoki demokratikoa eraiki behar da, irtenbide politiko eta demokratikoen inguruko akordio barneratzailearen bila. Prozesu horrek honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

Multilateralala izan behar da, alderdiek, sindikatuek, eragile sozialek eta instituzioek gidatua.

Subjektu eta interlokuzio progresiboak sortu behar ditu Euskal Herrian, espainiar eta frantziar estatuen aurreko solaskide gisa.

Gatazka politikoaren behin betiko konponbidea ekarri behar du. Horretarako, Euskal Herriaren nazio izaera eta barne zein kanpo Determinaziorako Eskubidea eta erabakitakoa onartu behar dira.

Illo horretan, **Aieteko Adierazpenak gatazkaren konponbide integralerako bide orria zehazten du**, bere ondorioetan lehen aipatutako bi fase osagarrien elementuak jasotzen baititu. SORTUK bere egiten ditu adierazpen horretako bost puntuak, eta bere esku dagoen guztia egingo du haien edukia zehazteko eta gauzatzeko.

SORTUK Euskal Herriari eta Nazioarteko Komunitateari begira jokatzeko jarraituko du, irmotasunez, zintzotasunez, pazientziaz eta gardentasunez. Gure borroka politikoak Prozesu Demokratikoaren zerbitzura garatuko dugu, arlo ideologikoan, masa arloan eta arlo instituzionalean, nazio erantzukizunetik eta begirada euskal jendartearen interesetan, ideietan eta nahietan jarrita.

SORTUren politikaren arrazoiak Estaturen “harresi estrategiaren” itxurazko indarra eraistera zuzenduko da, espainiar eta frantziar gobernuen borondate ezarekin apurtzera. **Eginkizun horretan, honako hauek izango dira SORTUren zereginak:**

Gernikako Akordioaren dinamikaren baitan, SORTUK espainiar eta frantziar Estaturen gaineko presioa aktibatuko du, bi Estaturen eremutik bertatik, eragile politikoen inplikazioa lortzen saiatuz eta hango herritarrei fase politiko berriko prozesuaren ezaugarri orokorrak azalduz.

Nazioarteko eremuari dagokionez, SORTUK Aieteko Adierazpenaren edukiak hartzen ditu oinarritzat, eta Harremanetarako Nazioarteko Taldea nahiz Nazioarteko Egiatzatze Batzordea egiten ari diren lana babestuko du.

SORTUK Autodeterminazio Eskubidearen alde aritzen diren edo nazio subjektu erabakitzailea marrazten duten eragileek dagoeneko abian dituzten nahiz aurrerantzean sortuko diren herri ekimenak babestu eta bultzatuko ditu.

E.- NAZIO ETA JENDARTE ERAIKUNTZA

Inolako zalantzarik gabe, gaur egun pairatzen dugun menderakuntza eta gatazka politiko egoeran, **Euskal Herriaren helburu nagusi eta funtsezkoena Herri gisa bizi ahal izatea da. Ezinbestekoa du gutxieneko egonkortasun kultural, politiko eta ekonomikoa lortzea**, nazio izaera bermatuko duena eta bertako biztanleei eskubide osoko euskal herritar gisako errealizazio integrala

ahalbidetuko diena.

Bi Estatu inposatzaileek sistematikoki ukatzen digute hori. **Beraz, helburu hori nazio askapenerako borrokaren bidez soilik lortuko dugu.** Herri boterearen artikulazioaren ondorioz, **estatu zein sistemaren egitura formalaren funtzioak zein botere bitartekoak, eredu propioz garranturiko egitura informalean bitartez, egitura paraleloan bitartez, erabiliko dira euskal estatu sozialista eraikitze norabidean, gaurdanik hasita.**

Nazio askapenerako estrategiak eta nazio eraikuntzarako nahiz jendarte eraldaketarako estrategiak eginkizun bera dute: Euskal Estatu sozialista eratzeko bidean nazio proiektua eraikitzea. Prozesu hau dinamikoa da, urratsez urrats marko berriak sortzeko eta eraldaketa politiko, kultural eta sozialaren arloan errealitate berriak sortzeko ezinbesteko baldintza da lehena, eta baldintza nahikoa bigarrena, kontzientzia eta proiektua hurrenez hurren.

Nazio eta sozialismoaren eraikuntza bere osotasunean burutu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Euskal Herria Estatu izatea eta maila guztietan politika burujabeak erabakitzeke eta kudeatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta instituzional guztiak edukitzea. Hala ere, **funsezko elementu bi izan behar ditugu kontuan:**

- Estatu propioa eratzea gure eskubide guztiak inplementatzeko baldintza ezinbestekoa izateaz gain, Euskal Herriaren biziraupenerako derrigorrezko tresna politikoa da, baina ez nahikoa. Hau da, SORTUren ustez, Estatu izateak ez du berez bermatzen herri gisa dagozkigun eskubide guztiak errealitate bihurtzea, batez ere hizkuntza, lurralde eta eraldaketa sozialaren esparruetan, Irlandaren kasuak adierazten duen moduan. Hala eta guztiz ere, Euskal Estatu hori, sozialista ez litzatekeen arren, bide horretan aurrera pausu nabarmena litzatekeela ezin uka.
- Euskal Estatu euskal herritarren gehiengo kualifikatuari desiragarria eta, batez ere, beharrezkoa iruditzen bazaio soilik iritsiko da. Horretarako, ezinbestekoa da Estatu propioaren beharra argi eta garbi agertzea. Eta hori lortzeko bide bakarra nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala lantzea da, arlo ideologikoan, masa arloan eta arlo instituzionalean. Izan ere, lan horrek euskal jendartearen nazio kontzientzia sendotu eta burujabetza osoa eskuratzea beraren asmo guztiak betetzeko ezinbesteko baldintza dela ikusaraziko du.

Hori guztia dela eta, **Ezker Abertzaleak beti izan du presente nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala lantzearen beharra, lanketa hau bere strategiaren ardatz izanik,** eta horretan aritu da abagune zehatz bakoitzean bere ahalegina dimentsionatuz eta askapen prozesua dinamizatzeke eta oinarri sendoen gainean funtzionatzeko helburuarekin.

NAZIO ERAIKUNTZAREN ETA ERALDAKETA SOZIALAREN DEFINIZIOA

Oro har, nazio **eraikuntza eta eraldaketa soziala** gure herriak dituen gabezia eta **behar guztiei erantzutera zuzendutako estrategia dela esan daiteke**. Hau da, herri eta klase gisa dagozkigun eskubideak erabiltzera eta horretarako beharrezkoak diren tresnak eskuratzera bideratutako estrategia da, **beti ere independentzia eta sozialismorako bidean**

SORTUrentzat nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna egingarria izateko beharrezkoak diren oinarriko estruktura funktuzera eta indartzera zuzendutako jardunbide politikoa da.

Honakoa esan nahi dugu:

- **Ikuspegi abertzale, ezkertiar, feminista eta euskaldunetik sozialismoan oinarritutiko eredu ideologiko, sozioekonomiko eta soziokultural berria eraikitzea helburu**, nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala estrategia integral bakarraren parte dira, nahiz eta, sarritan, elkarrekin loturarik ez duten bi dinamika desberdin gisa ulertuak izan diren.
- Eraiki nahi dugun estatua ezaugarri zehatzak ditu (independientea, sozialista, euskalduna, feminista...). **Ezaugarri horiek nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala lantzeko orduan aplikatuko ditugu, horrela, joango gara nazio askapenerako prozesuan aurrerapausoak ematen.**
- **Nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala herri jardunbidea dira, herritarren parte-hartzearen bidez eta kontra boterea sortuz garatuko den konfrontazio demokratikoaren parte bat**. Prozesu politikoan herriak izango du protagonismoa; horixe da arrakastaren giltza eta berme bakarra. Parte-hartze hori gorpuztuko dugu:
 - **Batetik, demokrazia parte hartzailea behar dugu**, herritarrei parte hartzeko eta erabakitze aukera bermatuko dieten bide eraginkorrak jarriko dira.
 - Bestetik, **herritar edo kolektibo bakoitzak bere ahalbideen barruan borrokari eta Euskal Herriaren eraikuntzari egin diezaiekeen ekarpena bideratzeko proposamenak eta dinamikak behar ditugu**. Parte-hartze hori hainbat eremutan emango da. Haietako bat desobediencia zibila da
- Halaber, **ezinbestekoa da Ezker Abertzale osoak eta SORTUK bereziki nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala gure ekinbide politikoaren erdigunean kokatzea**, ikuspegi dinamiko batez, egoera berrietara egokitzuz eta jarduera ildo berriak irekiz. Zeregin horren motor nagusia pertsona abertzale eta ezkertiarrek izango dira.

NAZIO ERAIKUNTZAREN ETA ERALDAKETA SOZIALAREN EZAUGARRIAK

SORTUREN JARDUNBIDE POLITIKOAN: EZKERRETIK ERAIKIZ.

Nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala gure herriak orokorrean dituen gabezia eta behar guztiei eskaintzen diegun tresna da. Beraz, programa politiko zabal eta sakona behar du, lehentasunak ezarri eta eraginkortasun politikoak beti bilatuko duena. Une edo fase politiko jakin batzuetarako adierazi diren helburuak gorabehera, gure proiektu politikoaren lanketak presente egon behar du zerbait lortuko badugu. **Fase politiko bakoitzeko lehentasuna funkatuz, proiektu politikoak landu eta borroka iraunkorra bermatuko dute SORTUK eta Ezker Abertzaleak, biharko Euskal Herria gaurdanik eraikitzen hasteko.** Euskal Herriak une honetan bizi duen egoera politikoan -marko zaharrak agortuta, marko berria adostu eta martxan jartzeko atarian gaudela-, are garrantzitsuagoa da gure proiektu politiko eta ildo estrategikoa jorratzea, aldaketa politikoaren norabide egokia berma dezagun. **Gatazkaren konponbideari begira estatuen jarrera edozein izanda ere, giltzarria nazio eraikuntza eta norabide horretan burututako indar metaketa izango dira.**

Nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala definitzean esan dugun bezala, argi daukagu hori ideologia orotatik egin daitekeela. SORTUren ikuspuntutik, hau da, gure ikusmolde independentista eta sozialistatik, nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna egingarria izateko beharrezkoak diren oinarriko ezaugarriak funkatzera eta indartzera zuzendutako jardunbide politikoak da. **Honako hauek dira ezaugarri horietako batzuk: demokrazia parte-hartzailea herritarra, ekologista eta internazionalista, norbanakoen nahiz jendarte osoaren boteretzea ahalbidetu eta dibertsitate kulturala bideratuko duena, hori guztia zazpi herrialdeek osatutako Estatuak lortzeko helburuarekin.**

Hori guztia dela eta, SORTUK gure helburu politiko, ekonomiko, sozial, kultural, instituzional eta ingurumenaren arlokoen arabera nazio eraikuntzaren eta eraldaketa sozialaren eremuan garatuko duen jardunbide politikoari Ezkerretik Eraikiz esaten diogu.

Illo horretan:

1. **Ezkerretik Eraikiz Euskal Herriaren asimilazioa gainditzeko eta Euskal Herria independente, sozialista, feminista eta euskalduna eraikitzeke prozesua eta tresna da.** Helburu horrekin, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - **Lurraldetasuna du oinarri.** Euskal Herri osoa hartzen du kontuan eta eraikuntzaren marko politiko gisa kokatzen da.
 - **Nazio egituraketan eta instituzionalizazioan aurrera egiteko ezinbesteko**

tresna da.

- **Gatazkaren izaera politikoa agerian uzten duen estrategia da**, argi eta garbi erakusten baitu Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideen urraketa estrukturala dela.
 - Euskal Herriaren hizkuntza nazionala den **euskara berrezartzeko herri estrategiaren oinarria eta tresna praktikoa da**, ofizialtasuna besteak beste.
 - **Balore askatzaileetan oinarritutako Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala bultzatuko du** Estatuaren asimilazio estrategiari eraginkorki aurre egiteko.
 - **Sozialismoa lortzeko estrategia beharrezkoa da.**
 - **Herriaren parte-hartzean oinarrituta eta horren bidez gauzatuta**, norbanakoen nahiz jendarte osoaren benetako ahalduntzea lortzeko tresna da, maila guztietan (lurraldea, politika, jendartea, kultura, ekonomia eta ingurumena).
 - **Printzipio eta balio feministetatik nahiz kulturen aniztasunaren errespetutik bideratuta**, benetako aukera berdintasuna erdiesteko estrategia beharrezkoa da; generoan, jatorrian edo kulturen oinarritutako diskriminazio oro gainditzeko estrategia.
 - **Ikuspegi ekologistatik gauzatuta**, Ama lurrarekiko errespetu, ezagutza eta maitasuna bultzatuko dituena. Bestetik, garapen ereduarekiko ikuspegi kritiko bat garatuko du, naturak eskaintzen dizkigun baliabideen eta berak duen birsortze prozesuen erritmoak kontutan edukiko dituena. Oinatz ekologikoaren kontzeptua ere barnebiduko du, eta kontutan edukiko estrategiak garatzerako garaian, giza aktibitateak ama-lurraren degradazio progresibo bat suposa ez dezan. Gure bizitzaren eta naturaren erritmoen arteko sinbiosi bat bilatuko du, gure biziraupena bermatuz.
 - **Inposatu dizkiguten naziotasun eta identitate ereduak konfrontazio demokratikoaren bitartez aurre egiteko bidea da, eta Euskal Herriaren egituraketa bultzatzeko baliabidea**, zatiketarik lurralde batasunera igarotzen lagunduko diguna.
 - **Konfrontazio politikoa akuilatu behar duen estrategia da**, ideologiaren arloan, eragile sozial, kultural eta sindikalen arloan, herri ekimenean arloan, langileen eta herritarren mobilizazioen arloan eta, nola ez, baita instituzioen arloan ere, Euskal Herria existitzen delako ideia sendotzeko, indar erlazioa eta korrelazioa aldatzea eta herriaren interesen alde jartzea ahalbidetuko diguten baliabide eta tresna berriak eskuratu behar ditugula ikustarazteko.
2. Beraz, **Ezkerretik Eraikiz SORTUren estrategia politikoaren ardatza da**. Izan ere, bere garapenean, gatazkaren gako politikoak agerian jartzeaz gain, aurrerapen praktikokoak ekartzen ditu gaur egungo politika lokal, herrialde, autonomiko eta estatuen

ondorioz lurraldearen, politikaren, ekonomiaren, jendartearen, instituzioen, ingurumenaren eta kulturaren arloan ditugun gabezien inguruan. Gainera, haien konponbidea bideratu, elikatu eta positiboki baldintzatzen du, **gaur egungo marko juridiko politikoa agortuta dagoela ikusarazten du eta marko demokratiko berri baten beharra jartzen du mahai gainean.**

ESKU-HARTZE OROKORREKO JARDUERA EREMU ZEHATZAK

Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna egunero egiten ditugun urrats praktikoetan gauzatzen joango garen egitasmoa da. Beraz, **nazio mailan lehentasunezko jarduera eremuak eta irizpide zein norabide orokorrak adostu eta zehaztuko badira ere, horrek guztiak bere itzulpen propioa izan behar du herrialde, eskualde zein herri edo auzo mailan, non tokiko lehentasunak eta lanerako modurik eraginkorrenak zehaztuko diren.** Izan ere, Ezkerretik Eraikizen bidez garatzen den jardunbide politikoak maila lokala izango du oinarri, maila lokaletik nazio mailarainoko bidea eginez, etengabeko joan-etorrian.

Hori horrela izanik, **honako hauek dira sozialismoaren bidean Ezkerretik Eraikizen bidez landu beharreko jarduera eremu orokorrak:**

- 1. Euskal Herri demokratikoa. Erabakitze eskubidea:** Gure herrian demokrazia egon dadin, ezinbestekoa da Euskal Herriaren nazio izaera (lurraldea, kultura, hizkuntza, historia, politika...) eta erabakitze eskubidea onartuak izatea; **ezinbestekoa da euskal lurraldeetako gizon-emakumeek askatasunez eta demokratikoki definitu eta erabaki ahal izatea Euskal Herriko lurraldeen arteko barne harremanak eta beste instituzio batzuekiko kanpo harremanak.** Baldintza horiek betetzen ez diren bitartean, Euskal Herrian ez da errealitate demokratikorik izango. Beraz, **Euskal Herriaren erabakitze eskubidea errebindikazio guztiz demokratikoa da.**
- 2. Erabakitze eskubidea identifikatzeko, bi arlo hauek jasoko dituen ekintza politikorako plana behar da:**
 - Subjektu politikoaren berreraikuntza mailakatua:** Euskal Herriaren aitortzak irekiko duen agertoki politikoan, **gaur egungo estatus instituzionaltik abiatuta, lurralde guztiek beren eredu instituzional propioa eta Euskal Herriko lurralde guztien artekoa definitzen joan beharko dute, era mailakatuan eta lurralde bakoitzeko herritar gehienen borondatearen arabera.**
 - Europako Euskal Estatu sozialista aske bateranzko trantsizioa,** bere dimentsio guztietan indartu beharreko helburu independentista batekin eta euskal subjektu nazionalaren berreraikuntzarekin batera: **Autonomia Estatutua**

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetarako; Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioa; Euskal Kontseilu Nazionala, beti ere herritarren erabakia errespetatuz.

1. **Lurralde egituraketa eta kohesioa:** Indar korrelazioak herritarren borondatea) arian-arian definituko duen marko instituzionalaren osagarri, **Euskal Herriko lurralde guztietan euskal subjektuaren kohesio soziokultural eta sozioekonomikoa ahalbidetuko duten tresna nazionalak behar dira**, gure nazio errealtatearen egituraketa gero eta handiagoa erraztu eta bultzatuko duten lankidetzaren eremuak edo elkar-guneak (Udalbiltza...).

Illo horretan, **SORTUk eskaintza integral eta mailakatua egin behar dio euskal jendarteari, bideragarria eta positiboa, izaera demokratiko eztabaidaezinezkoa**. Eskaintza horren bidez hauxe lortu nahi dugu: euskal herritarrek apurka-apurka onartzea burujabetza eta independentzia gaur egungo markoak baino demokrazia politiko eta sozial sakonagoko markoak direla. Hori funtsezkoa da espazio sozial berriak irabazten joateko.

2. **Euskal Herria kultur eta hizkuntz proiektu gisa:** Hizkuntza, kultura eta historia Euskal Herriko lurralde eremuan funkatutako **euskal nazio identitatearen bihotza dira**, etorkizunean ere herri borondatearen arabera eskuratzen joango garen organismo politiko-instituzional, ekonomiko eta soziala elikatuko duen bihotza.

Euskal proiektu nazionala hizkuntz eta kultur ereduaren eta eredu sozioekonomikoaren arteko sinbiosia izan behar da. Hau da, egituratuko duen espazio ekonomikoak bermatu egin behar du jendartea berdintasunezkoa eta euskal kulturarekiko solidarioa izango dela, **euskara euskal jendartearen egituratzailea eta kohesio-atzailea izango dela**.

Euskararen erabilera maila eta arlo guztietan normalizatzea, gure kultur jardura eta ekimenak bultzatzearekin batera, geure nortasun bakunean ez ezik kultura unibertsalean ere egiten den inbertsioa da. Halaber, unibertsaltasunaren mozorroarekin hizkuntzak eta kulturak desagerrarazi edo itotzen dituzten joera uniformatzaileei eman ahal zaien erantzun bakarra da.

Euskal Herriak, euskal proiektu nazionalak, bere garapenean txertatutako hizkuntza eta kultura batez osatu behar ditu, nahitaez, bere arkitektura politiko-instituzionala eta bere jardura sozioekonomikoa, erronka kolektibo gisa eta Nazioarteko Komunitatearen aurreko nortasun ikur gisa. Euskararen eta euskal kulturaren defentsa eta garapena gure ondareari nahiz ondare unibertsalari egin ahal diegun ekarpenik handiena da.

Beraz, **gure "iraultza kulturala" k bide orri propioa eduki behar du**, independentziaren eta sozialismoaren bidean definitzen joango garen aldaketa politiko-instituzional, sozial eta ekonomikoekin batera garatuko dena.

Konplexurik gabe, urratsez urrats, bestelako nortasunak errespetatzen dituen identitate integratzaile eta positibo baten jabe izateak ematen duen sendotasunetik, hizkuntzaren eta kulturaren arloko inbertsioak jendartearen parte-hartze aktiboa sustatu behar du. Dinamika hori da arrakastaren berme bakarra. Guztion erronka da, eta eremu herritar eta lokaletan sinergia asko askatu behar ditu, jendarte osora horizontalki hedatzen.

3. **Euskal Herria proiektu ekonomiko eta sozial gisa: Euskal Herria oso eremu egokia da gure ezaugarrien arabera espezifikoki definitutako sozialismorako bidean** aldaketaren sinonimoa izango den proiektu sozioekonomiko bat bultzatzeko. Sozialismo hori parekidetasunean, justizia sozialaren eta elkartasunaren sinonimoa izango da, pertsonak oinarri izango dituen demokrazia parte-hartzaileraren iristeko urratsa.

Erreferentzia estrategiko hori era mailakatuan landu eta bultzatu behar da, arian-arian botere politikoa eta legitimazio soziala irabaziz eta, horren ondorioz, aldaketa gero eta sakonagoak eraginez, bestelako eredu ekonomiko eta sozialerantz aurrera egiteko.

Eraldaketa prozesu mailakatu horretan, indar metaketarekin batera, proposamen ekonomikoak eta marko politiko burujabearen errebindikazioa elkarri lotuta joan behar dira. Proiektu independentistaren aldekoak gero eta gehiago izan daitezten, orain arte Euskal Herriaren nazio eraikuntzarekiko uzkur agertu diren sektoreen atxikimendu natural eta subjektiboa lortu behar dugu.

Aldagai ekonomikoak funtsezkoak da bloke politikoak hausteko eta estrategia independentistan atxikimendu erabakigarriak lortzeko baldintzak azkar daitezten, are gehiago estatuak ahultzen dituen krisi egoera honetan.

Ikuspegi orokorra jasoz, **SORTUren jardunbide sozioekonomikoak elkarri lotutako hiru arlo garatu behar ditu:**

- **Eredu ekonomiko eta soziala eraldatzeko proposamena.** Proposamen horrek burujabetza izan behar du helburu eta neurri fiskal eta sozialak jaso behar ditu. Beste kultura politiko-ekonomikoa sustatu behar du, jendartearen jokabide sozioekonomiko askotan hedatu den neoliberalismoaren uztarripetik askatuz. (Proposamen sozioekonomikoa).
- **Ideologia mailan kultura sozioekonomiko berria sustatzea.** Hedabideak kontrolatuz eta politika hertsagarriak erabiliz neoliberalismoak eragin duen kutsadura ideologikoari aurre egiteko, txindurri lan ideologikoa hedatu behar dugu, hezkuntzatik, kulturatik eta masa komunikaziotik. Balio kolektiboak eta solidarioak bultzatu behar ditugu jendartearen, eredu sozioekonomikoan eraldaketa sakonagoak lortzeko beharrezkoak diren baldintzak sor daitezten. Jorratze ideologiko hori gabe, proposamen sozioekonomikoetan jasotako "aldaketa" in-

dar eta nukleo ekonomiko kontserbadoreen makineria ideologiko erraldoiaren aurrean desegiten den ameskeria izan daiteke.

- **Bestelako mundua posible bihurtzeko proposamena.** Nahitaez, Euskal Herriaren borroka desberdintasun sozial ikaragarriak eragiten dituen neoliberalismo basati eta esplotatzailea gaindituko duen eredu ekonomiko eta sozialaren aldeko borrokan txertatuta dago. Bilakaera aurrerakoiak lortzeko borroka horretan, SORTUren jardunbide politikoa merkatuen eta finantza guneen diktadura ekonomikoaren kontrako presio sozialaren parte izan behar da, lanaren etekina eragiten duen pertsonen mesedetara bideratua izango dela lortzeko, gaur egun mundu mailan hedatzen ari diren mugimendu askatzaile aurrera eramaten ari diren moduan.

V.- KOMUNIKAZIOA

1.- KOMUNIKAZIO POLITIKOA ERROTIK BERRITZEKO PREMIA.

Ezker Abertzalearen estrategia politikoan komunikazioak sekulako garrantzia izan du eta du. Zalantzarik gabe, komunikazio eragile eraginkorrak izan gara, aitzindariak zenbait kasutan, eredugarriak beste hainbatetan. Ordea, **masa komunikabideen eremuan (telebista, irrati zein egunkari-aldizkarietan) gure eragin ahalmena eta presentzia mugatuagoa izan da.**

Komunikazioa funtsezko tresna izan da gure helburu politikoak lortzeko, herri honi egiten diogun eskaintza politikoa hedatzeko, herritarrek konbentzitzeko eta herri dinamikak suspertzeko, eta hala izango da aurrerantzean ere.

Egoera errotik aldatzen ari da ordea, bai politikoa eta bai soziala, eta baita komunikazioa egiteko molde eta bitartekoei dagokiena ere. Datorren hamarkadan aldaketa sakonak eza-gutuko ditugu gure herrian eta, horrenbestez, izan garena baztertu gabe, **bide berriak jorratzea dagokigu.** Tresna eta sistema komunikatiboak errotik aldatzen ari direnean ezin gara atzeraturik geratu.

Komunikazioaren arloan, **SORTUk bete-betean heldu behar dio eredu berritzailea osatzeari,** zabaldu den egoera berri honetan lidergoa irabaztera doan indar baten komunikazio estrategia, tresnak eta antolamendua osatzeari hain zuzen.

Ezker Abertzaleak modu berezian ulertu izan du bere jardun komunikatiboa: **komunikazio zuzenaren aldeko apustua izan da gurea, herritarrei zuzendutakoa eta herritarrekin egindakoa, herritik eta herrira begira;** ildo horretan, batzarrak eta ahoz ahokoa, hau da, zuzeneko komunikazioa izan da gure ikur nagusia. **Aurrera begira, horren beharrezkotasunean berretsi**

beharra dugu, emaitzak ematen dituelako eta hori baino komunikazio tresna eraginkorragorik ez dagoelako. **Hala ere, hori ezin da gure komunikazio eremu bakarra izan**, eremuak biderkatzerako behar dugu.

Gure propaganda jarduerak (kaleen apainketak, margoketak...) estilo eta nortasun propioa eman dugu eta orain arteko gure jardun politikoan izugarritzko pisu eta eragina izan du. **SORTUren komunikazio erronka nagusietako bat gure propaganda ereduak aztertzea eta berritzea izango da.**

Bestalde, **eraginkorrak diren pertsonengana heltzeak bezainbesteko garrantzia du komunikazioa azkar bideratzeak**. Gertakari desberdinen aurrean erreakzio gaitasun handia eduki behar da, eta sekulako pisua du lehen mezua zurea izateak, gertakari bakoitza ulertzeko (eta izendatzeko) hitzak eta testuingurua zuk eskaintzeak. **SORTUK berehala eta modu eraginkorrean eskaini behar ditu gertakariak interpretatzeko oinarriak.**

Komunikazio arloan arituko diren profesionalen profil profesionala eta esperientzia digitala oso kontuan hartzeak dira. **Hedabide berrietan alfabetatuak eta trebatuak izatea ezinbestekoa da gaur egun.**

2.- BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOA ETA TRESNAK

Hiru **komunikazio bide hartu behar ditugu kontuan**. Batetik, **barne komunikazioa**: gure egiturarekin eta oinarri sozialarekin egin beharrekoa. Batzarrak, bilerak, mintegiak... Udalean gauden lekuetan, udaleko gainerako alderdi, teknikari eta batzordeetako kideekin. Bestetik, **kanpo komunikazioa**: gure jarduera politikoaren diskurtsoa sortu eta hedatzea. Herritarrekin gure mezua konpartitzea eta herritarren ekarpenak jasotzea. Kanpo komunikazioan eragile anitzak ditugunez, bakoitzaren mezua nolakoa izan behar den eta nola zabalduko den aztertu beharko dugu. Eta, hirugarrenik, **“gobernu irekia”**: gobernu eskuratu dugun instituzioetan eta instituzio hauen eta herriaren arteko harremana ezarri behar dugu parte-hartze politikaren bidez, eta hor komunikazioak sekulako garrantzia du. Herritarrek instituzioetan egiten denaren berri izan behar dute eta parte hartze bideak izan behar dituzte.

Barne komunikazioa: jendartean konfiantza eragiteko, garrantzitsua da barne mailan ere konfiantza lantzea eta jarrera egokia eta eredugarria edukitzea, guk egituran transmititzen duguna transmititzen dutelako herriek edo auzoek ere. Barne komunikazioaren arloko kontaktu puntu guztiak mimatu behar dira (batzarrak, ahoz ahokoa, herrietako sareak...); **barne harremanak ziurtatu eta zaindu behar ditugu. Gure sarea hedatzen asmatu behar dugu, gure informazioa eta ikuskerak txoko eta bazter guztietara barreiatzen asmatu behar dugu**. Bide guztiak erabili behar ditugu gure mezua zabaltzeko eta Ezker Abertzalearen kidegoa eta oinarri soziala sartzeko. **SORTUren oinarri sozialaren saretzea eta parte-hartzerako tresna zehatzak jorratu behar dira**. Norabide horretan, garai eta gai bakoitzak eskatzen dituen tresna komunikatiboak erabiliko ditugu.

Kanpo komunikazioa: mass-media komunikabideak, tokiko hedabideak, Internet, sare sozialak. Komunikazioaren esparru zabalak eskaintzen dizkigun aukerak baliatu behar ditugu. Eredu horietan sartu behar dugu, eta **gure estrategia politikoa definitu komunikazioaren bitarteko anitz horietan gure eragina handiagotzeko.** Herrietan gure eredu komunikatiboa lantzearen premia dugu eta komunikabide konbentzionaletan geure lana proiektatzen asmatu behar dugu. Gainera, **harreman zuzenak lantzen jarraitu behar dugu,** batez ere herri eta auzoetan bizitza soziala dinamizatzen duten sektoreekin.

Ilido horretan, **Ezker Abertzaleak komunikazioa prentsa jardunera mugatzeko izan duen joera gainditzera jo behar du SORTUK,** orain arte prentsa izan baita gure lan esparru erabat nagusia, eta ez arrakasta handiarekin askotan gainera, hedabideen atzean dauden botereak gure apustu politiko eta ideologikoaren aurka lerratzen direlako sarritan eta gu, ondorioz, hedabide horiekin tal-kan sartzera behartuak izan garelako, gure komunikazio jarduna lokatzetan sartuz. **Prentsa idatziaren gainbehera handia eta itzulezina ezagutzen ari garen honetan, bestelako tresnetan eman behar du SORTUK jauzia, urrats kualitatiboa eman behar du.**

Tokiko hedabideen garrantzia azpimarratu ohi dugu, herritarrengana iristeko bitartekorik gertuko-koenak direlako. **Tokiko komunikabideen garrantziaz jabeturik, beraietan eragitea funtsezkoa dela pentsatzen dugu. Tokiko komunikabideek lehentasuna dute gure komunikazio jardunean,** bestelako prentsa idatzia bezala tokiko komunikabide idatziak ere gainbehera doazela jakin ar-ren. Hala ere, bi plano bereizi beharko genituzke: **plano lokala eta nazionala. Biak beharrezkoak eta biak lehentasunezkoak.** Tokiko hedabideekin lan egin behar dugula esateak, ez du hedabide nazionalak sustatzen, bultzatzen eta erabiltzen jarraitu behar ez dugunik.

Ezker Abertzalearen komunikazio nortasunari uko egin gabe, gure komunikazioa ezin da komunikabide tradizionalen eremura mugatu. Historikoki, gure komunikazio jardunak balio erantsia izan du, hau da, komunikabideez gain, beste komunikazio mota asko erabili izan ditugu gure borroka ideologikoa garatu ahal izateko (pankartak, kartelak, margoketak...). **XXI. mendean, gure komunikazio nortasun bereziaren ikur izaten jarraitzen dute,** eta **SORTUK ariketa sako-na egin beharko du egun baliogabeturik antzematen diren praktika horiek guztiak berreskuratzeko eta errealtate berrira egokitzeko.**

3.- KOMUNIKAZIOAREN ANTOLAKETA, PLANGINTZA ETA PARTE-HARTZEA

Atal honek berebiziko garrantzia du. Izan ere, gure etxearen zutabeak ongi antolatzen ez baditugu, orain arte esandako guztia ezinezkoa da. **Funtsezkoa da gure komunikazio aparatuaren erai-kuntza-arkitektura guztia ongi diseinatzea,** eta horretarako zutoinak ongi errotuta egon behar dute, gorako bidea behetik hasten delako.

Herrietatik eta auzoetatik hasten da gure benetako komunikazio egitura berritua. Herrietan

eta auzoetan komunikazio sare indartsuak behar ditugu, herritarrekin zuzenean egon ahal izateko, horretarako behar diren tresna eta bitarteko guztiak erabiliz. **Gogoan izan herritarrek SORTUren konfiantza eta sinesgarritasuna izatea dela irabazteko gakoa**. Herrietan eta herriari begira egiten dugun **komunikazio lanaren antolaketa, plangintza, diseinua eta jarraipena egiteko komunikazio ekipoak behar ditugu, komunikazio lantaldeak sortu behar ditugu, arduradun baten edo batzuen gidaritzapean, betiere herriko zein auzoko egitura politikoan txertatuta**. Komunikazio ikuspegia izango duten militanteak behar ditugu herri zein auzoetan. Komunikazio zuzendaritza da kontua, estrategiaren bihotza da eta ez azala. Militante oro gara komunikatzaileak. Herriko estrategia politiko-komunikatiboa diseinatzea militante guztion betebeharra da. **Plangintza garatzeko tresnak eta baliabideak sortzeko komunikazio ekipoa behar da**.

Herrietan honelako ekipoak behar ditu SORTUk:

- Komunikazio arduraduna: Kontseiluan egongo da. Herriko komunikazio politika osoaren kudeaketa koordinatuko du. Plangintza politikoari lotutako komunikazio plangintza egitearen arduraduna izango da.
- Komunikazio lantaldea: testuak idazteko gai den kidegoa, argazkilariak, diseinugileak, bideogileak, sare sozialetan dabilen kidegoa, propagandarako kidegoa...
- E-mail sarea: gure oinarri sozialarekin e-mail sareak osatuko ditugu, komunikazioa hortik bideratzeko.
- Sare sozialak: sare sozialetan dagoen kidegoaren bidez edota SORTUren kontu propioak sortuz, mezuak zabalduko ditugu sare sozialetatik.

Komunikazio plangintzarik gabe, edozein egitasmo politiko alferrikakoa da. Are gehiago: **estrategia komunikatibo orokorraren baitan kokatu behar da egitasmo politiko bakoitza**. Horretarako, lehenik eta behin estrategia komunikatiboa zehaztu behar da, eta gero estrategia hori elikatuko duen kontakizuna osatu behar da, ekintza zehatzen bidez. Hor sartzen da tresna ezberdinen erabilpena. **Herrietan, herrialdeetan eta nazio mailan komunikazio plangintzak behar ditugu**, eta askotan ez dira egiten.

Parte-hartzea: une guztietan, gure komunikazio formula eraginkor gisa. **Herritarren inplikazioa eta ardura lortu behar ditugu, komunikaziorako ere parte-hartzea zutoin nagusitzat hartuta**. Kontrasterako, kritikarako eta ekarpenetarako guneak, **herritarren eta egituraren arteko komunikazio feed-back hori lortzeko tresnak sortu behar ditugu**, eta entzuteari ere garrantzi berezia emango zaio. Parte-hartze eremu horietan bilakatzen gara militanteok komunikazio agente aktibo. **Zuzeneko harremana eta forma egokiak dira konfiantza sortzeko gakoak**.

Gardentasuna, elkarlana, parte-hartzea, **“gobernu irekia”... gure instituzioen kudeaketarako komunikazio eredu berri bat aurkitzea ezinbestekoa dugu**, aldaketa hitz hutsetan gera ez dadin. Izan ere, komunikazioa da aldaketaren motorra, aldaketa irabaztera eraman gaitzakeena.

4.- SARE SOZIALETAN ETA INTERNETEN NOLA JOKATU, NOLA IRABAZI

XXI. mendean sarturik, komunikazioaren orain arteko tresnak eta sistemak errotik aldatzen ari dira. Komunikazio eskema guztiak iraultzen ari dira, eta **SORTU ondo kokatu behar da komunikazioaren arloko erronka berrien aurrean.**

Orain arteko komunikazio egiturak entzule edo ikus-entzule soil izatera mugatzen zituen herritarrak; **egungo aro digital berriak eskaintzen dituen tresna komunikatibo berrietan, ordea, herritarra entzule izatetik erabiltzaile-komunikatzaile izatera pasatzen ari da.** Sare sozialen sorrerarekin, pertsonak hedatzen dute edukia.

Komunikazio politikoaren arauak bizkor aldatzen ari dira, eta aldaketa horiek eragina dute agintean daudenen eta ez daudenen arteko harremanetan. **Egoera irauli nahi dugunok asko dugu irabazteko joko zelai berri honetan, nahiz eta oraindik mesfidantzaz begiratu saretik datorren iraultzari, arrazoiz gainera, kontrol poliziala dela eta, jendarte mailan alienazio joerak indar ditzake eta...**

Illo horretan, **SORTUren militantzia komunikazio eragile aktibo bihurtu behar dugu,** bakoitzak bere eremuan eragin behar du. Denok zerbait egin dezakegu SORTUren komunikazioa sustatzeko. Esku artean ditugun tresnak baliatuz, **militante bakoitza borroka ideologikoaren eragile bilakatzea da gure erronka, non eta sarean, egun garapen izugarria lortzen ari den komunikazio eremu zabalenean.** Gaur egun, herritarrak Interneten eta sare sozialetan dabilta, batik bat gazteak. Beraz, haiengan eragin nahi badugu, dauden lekuan arituz sinesgarritasuna eta konfiantza irabaztea izan behar da SORTUren eta bere militanteen ardura.

Sare sozialetan eta Interneten aritzeak ez du izan behar bestelako bitartekoen kaltean, eta tresna horiek ez dira gure komunikazio estrategiaren erdigune gisa ulertu behar. Tresnak dira, komunikabide guztiak bezala. Ez dira bere horretan helburu; helburua iritzi publikoan eragitea da, leku guztietan arituz, tresna guztiak erabiliz, eta **zalantzarik ez dugu sare sozialetan eta Interneten asko dugula irabazteko,** pertsonak eta militanteak komunikazioa garatzeko protagonista gisa ulertuta.

Euskal Herrian zehar ehunka, milaka web orri zabaldu diren honetan, zer egin behar dugu herritarren arreta pizteko, herritarrak erakartzeko? **SORTUk bere web korporatibo propioaren bitartez ziurtatu behar du hori. Hala nazio mailan nola herrietan,** Ezker Abertzalearen oinarri sozial zabalarekiko **barne zein kanpo komunikazioa modu eraginkor batean garatzeko tresna izan-go da.**

Hedabide berriak (sare sozialak bereziki) “koralak” ere badira. Komunitate baterako zabalitzen dira eta bertan partaide diren guztiek beren iritzia eman dezakete. Hor egon behar

dira, oso modu aktiboan, Ezker Abertzalearen komunikazio arloko profesionalak nahiz militante soilak, **gertakarien inguruan datuak, zehaztasunak eta interpretazioak ematen**. Eta, gainera, besteek ematen dituztenak osatu / kontrastatu / ezeztatu / neutralizatu behar dituzte, beharren arabera.

Egia da mezu jario ikaragarria jasotzen dugula egunero eta zaila dela hor zurea kokatzea eta nahi duzun jendearengana heltzea. Hala ere, hedabide tradizionalak indarra galdu duten neurrian berriak etorri dira. Hedabide berri horietan, zurea ondo kudeatzea eta posizionatzea da gakoa. Horri dagokionez, **“iritzi sortzaileak” eta “ezagunak” diren pertsonen kolaborazioa ezinbestekoa da**. Lehen prentsaurreko batera hedabide asko etorri izana arrakastaren neurgailua zen bezala, **egun itzal handiko iritzi sortzaile horiengana heltzea da garrantzitsua (blogariak, twitter-lari ezagunak hemen eta kanpoan...)**.

5.- DISKURTSO ULERTERRAZA, PRAKTIKOA ETA GERTUKOA

Ezker Abertzaleak bere diskurtso propioa landu izan du. Gure herriaren identitatearen, historiaren eta eskubideen defentsan oinarrituta, estilo eta hiztegi propioarekin aritu izan gara. **Garai politiko bakoitzean Ezker Abertzalea diskurtsoa egokitzen ahalegindu da**.

Ziklo berriaren tenorean, **fase politikoari egokitutako diskurtsoa osatzea eta azaltzea dagokio SORTUri**. Are gehiago kontuan izanda gure eremu politikoa hazi eta zabaldu egin dela eta oraindik ere eremu gehiagotara iristeko egoeran gaudela. Erantzunera mugatuz gero, etsaiaren terrenoan ibiliko gara, bere agendaren arabera mugituko gara eta, beraz, galduta egongo gara. SORTUren estrategia komunikatiboa gai izan behar da herritarren artean konfiantza sortzeko eta gureganatzeko. **Erresistentzia diskurtsoa berritu behar da, agertoki politiko berrira egokitutako diskurtso berria egin behar da**.

Azken hamarkadetako kontakizuna sortu beharra dauka SORTUK. Euskal Herrian azken 50 urte hauetan gertatutakoaren kontakizun zehatza egitea dagokigu eta, horretaz gain, **etorkizunari begirako diskurtsoa eraikitzea**.

Mezuari dagokionez, hainbat akats nabarmen konpontzea dagokio SORTUri: **diskurtso ideologizatuegia da gurea**, eta ulergaitza hainbatetan, oso jende gutxik ulertzen duena. Herritar guztien-gana iristeko abagunea dugu, herritar orori begirako eskaintza politikoa dugu, eta, hortaz, **gure mezua garai berriotara egokitu eta guztientzako mezu eta diskurtso ulerterraza, praktikoa eta gertukoa landu behar du SORTUK**.

Argudio berriak atera behar ditugu. Ulertaraztea ez da soilik hizkuntza ulerterraza erabiltzea, argudio **eta ideia berriak ere atera behar dira**. Argudioak landu behar dira, betiko oinarriekin baina aberastuz.

Jendearen arazoez hitz egin behar dugu, helburu estrategikoa beti argi izanda. Koherentzia estrategia komunikatiboarekikoa izan behar da, ez ideologiarekikoa. **Hizkuntza simple eta ulterrazean hitz egin behar du SORTUK**; zenbaitetan hizkuntza ulergaitza dugu, gure artean soilik ulertzen dena. Buelta eman behar diogu egoera horri, bereziki ikus-entzunezkoen kulturari bizi garelako bete-betean. **Diskurtso astun eta sakonen garaian baino, freskotasunaren eta mezu indartsuen garaian gaude. Ikusentzunezkotasuna zaindu beharra dugu.** Komunikazio "unitateak" ezin dira bakarrik izan prentsaurrekoak, komunikatuak eta txostenak...; **bideoak, informazio-pilulak, biralitatea, argazkiak... dira gaur egungo tresna eraginkorrenak.**

Independentziaren bidean, **mezuaren dibertsifikazioa, aniztasuna eta aberastasuna ziurtatu behar ditu** SORTUK. Ezker Abertzaleak batez ere gatazkaren diskurtsoa landu du eta, garaiotan, **krisi ekonomiko larriaren erdian, ekonomiaz aritu behar dugu, genero indarkeriaz, euskararen berreskuratzeaz, gazteen egoeraz. Hizkuntzaren aberastasuna ere aintzat hartu behar dugu, euskara batuaren eta euskalkien alde eginez.** Tuteran, Lekeition, Bastidan, Gasteizen, Baionan, Maulen, Bilbon edo Idiazabalen diskurtsoa eta mezua egokitzen asmatu behar dugu.

Herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskaldunaren helburuari jarraikiz, **gure hizkuntzaren aldeko apustua estrategikoa da.** Hala ere, oraindik ere Euskal Herriko **giza sektore anitz ez dira gure hizkuntzaren jabe eta, beraz, gure mezua horiengana iristeko ahalegina egitea dagokigu, hizkuntzarena barne.** Gure estrategia herritarrak erakartzea eta euskalduntzea izan behar da, dauden lekutik eta haien hizkuntzatik abiatuta gurera ekartzeko ahalegina eginez; **horrek lekuan lekuko hizkuntza errealitateak aintzat hartuta (baina hizkuntza ohiturak euskararen normalkuntzaren bidean kokatzeko eragile proaktiboak izanik) irizpideak markatuz jardutea eskatzen digu.** Horretaz gain, **diskurtsoaren genero ikuspegiaz ere gogoeta egin beharra dugu, parekidetasunaren bidean,** horretarako beharrezkoak diren bitartekoak bideratuz -foroa, gida, formakuntza saioak eta beste-.

Hizkuntzen erabilerari dagokionez, hausnarketa sakona egin behar den arren, euskararen zentralitatea garbi-garbi utzi behar da, hasiera-hasieratik. Mezua bezain garrantzitsua da zein kanal eta zein hizkuntzatan ematen den.

Hori bai, lehenago aipatu dugu "koralitate" horren harira, **hizkuntza ezberdinak erabiltzeko beharra ikusten dugu, eta hor zaila/desegokia izan daiteke ateak ixten ibiltzearen irudia ematea.** Gainera, eta **bereziki kanporako komunikazioa egiten denean, oso interesgarria da gaztelania, frantsesa eta ingelesa ondo erabiltzea,** kanpoan daudelako Ezker Abertzalearen mezua zabal dezaketen aliatu eta laguntzaile asko eta asko.

Positiboa, iraultzailea, kritikoa, eraikitzailea, hurbila; horiek izan behar dute gure diskurtsoaren ikurrak, argi edukita edozein komunikazio ariketaren hasiera entzutea dela.

6.- HERRITARRAK ERAKARTZEKO MARKA ERAGINKORREN BILA

Ezker Abertzalea estetika eta marka iraultzailearen paradigma izan da. Ezaguna izan da gure marka, gorai-apatua bezala jipoitua. Hala ere, **orain artekoa berritu beharrean gaude, garaiak eta estrategiak aldatu direlako.**

SORTUri bere etorkizuneko marka -herritarrak erakartzeko branding estrategia eraginkorra- zehaztea dagokio (ezaugarri jakin bati lotuta doazen izen, sinbolo, logotipoa, tipografiaren... eraikitze prozesuari egiten dio erreferentzia branding kontzeptuak). **SORTUk marka berria eraiki behar du, herri honentzat konponbide politiko eta soziala dakarren indar gidariaren marka.**

Euskal Herrian dagoen masa kritikoa eta aldaketarako grina ordezkatzeko lortu behar du SORTU markak. SORTU markaren xedea masa kritiko hori erakartzea eta mugiaraztea izan behar da, herritarren artean sinesgarritasuna eta konfiantza irabaziz, lotura afektiboak eraikiz. **Euskal Herrian SORTU markak posizio sendoa izan behar du. Estrategia politiko-komunikatibo oso batek bermatu behar ditu marka eta bere posizioa.**

Alde horretatik, **SORTU markak gardentasuna, gertutasuna eta konfiantza helarazi behar ditu, estetika sektario eta itxietatik aldentuz.** SORTUren **estrategia komunikatiboak herritarren pertsuasioa izan behar du oinarri,** horretarako tresna eta baliabide ezberdinak erabiliz. Komunikazioa da hemen eta orain irabazteko dugun tresnarik behinena.

SORTUren xedea izan behar da egun hedabideen atzean dauden botere guneen gainetik -zeintzuk ezinezkoa edo oso zaila egiten duten Ezker Abertzalearen mezuak eta irudiak behar bezala agerraraztea-, **herri honetan aldaketaren alde dagoen masa kritikoa erakartzea eta mugiaraztea.** Herritarrak erakartzeko eredu berria osatu behar dugu, posizio berria eraiki, lotura afektibo sendoak sortu, zabalagoak, malguagoak, sendoagoak, aurreko konfrontazio garaiko "lagun-etsai" dialektika gaitzitu dutenak.

Horrekin batera, SORTU estetika eta ikuspegi sektarioetatik aldentu behar da erabat, bere proiektu politikoaren garapena herritarren pertsuasioan oinarrituz. **Herritarren pertsuasioan asmatzen duenak lortuko du garaipen politiko eta komunikatiboa.**

Ilegalizazio politikak iraun duen hamarkadaren ondorioz, badago gure artean gazte belaunaldi osoa Ezker Abertzalearen irudia oso distortsionatuta daukana. Telebista eta egunkarietako "berrietan" kutsu ezkor, arazotsu eta suntsitzailea daukan giza talde gisa irudikatuz erakutsi diote Ezker Abertzalea. Irudi faltsu hori aldatu beharra dago: **mugimendu politiko eta sozial gisa agertzeaz gain, pertsonez osaturiko talde positibo, eraginkor, eraikitzaile eta atsegin gisa agertu behar dugu. Gazte horiek erakarri behar ditugu, etorkizuneko oinarriak jarritz. Komunikazioa eta sedukzioa oso lotuta daude bide horretan.**

SORTUren bozeramaileak ziklo berrira egokitu beharko dute irudia eta erronka berriak transmititzerakoan, estetika eta dialektika berrira egokitu behar dute, beraien esku egongo baita, hein handi batean, herritarrak erakartzeko ahalegina. **Alor horretan, SORTUK arreta berezia jarri beharko du esan eta irudikatzen dugunaren eta egiten dugunaren artean tarterik, arrakalarik egon ez dadin, koherentzia osoa irudikatzeke alegia.** Gure estetika propioa sortu behar dugu, alderdi konbentzionalekin berdindu gabe.

SORTUK komunikazioa egiteko baliabide handiak izango ditu, bere militantziaren inplikaziotik abiatuta. Militante bakoitza da alderdiaren kanpo proiektio zuzenena. **Beraz, gure militantzia, lan estiloa... zaindu behar ditugu jendartearengana zuzentzen garenean nahiz gure egunerokotasunean.** Baina hori ez da nahikoa izango: lidergo itzela erakutsi beharko dugu, benetan sinesgarritasuna lortzeko, eta horretarako gaitasuna, sormena eta profesionaltasuna agerian ipini beharko ditugu. Horri begira, **SORTUK beharrezkoak dituen egiturak eta bitartekoak osatu beharko ditu.**

SORTUko militanteon jarduera komunikatiboak markarekiko koherentea izan behar du. Komunikatzeko (hitz egiteko) garaian dugun jarrera, janzkera, hiztegia... guztia da komunikazioa, guzti horrek eragina du komunikazioan. **SORTU marka eta militanteak gara herritarrek gurekiko duten lehen erreferentzia; beraz, zaindu egin behar dira, aurreiritzi okerrik ez sortzeko.**

VI.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

A) SORTUREN ANTOLAKETA EZAUGARRIAK

BARNE BIZITZAZ

Hiru dira abian jarri nahi dugun indar politiko berriaren barne bizitzaren ezaugarri nagusiak: barne mailako demokrazia parte-hartzaile iraunkorra, euskararen lehentasuna eta partaidetza parekidea.

Barne mailako demokrazia parte-hartzaileari dagokionez, bai ildo politikoaren zehaztapenean, bai barne eta kanpo ordezkarien hautapenean, eta bai ekarpenak eta parte-hartzeak egiteko unean, parte hartzeko bideak eta kontsultak jorratuko ditugu etengabe, herrietako egiturei iritzia eskatuz eta Nazio Batzarrari paper erabakitzaileagoa eta maiztasun handiagoa emanez, gaur arte izan dugun barne komunikazio mugatua gaindituz. Kultura horretan sakondu behar dugu, SORTUren barne bizitza etengabe elikatuz eta parte-hartzea bultzatuz. Batzar dinamikak alboratu gabe, sare bidezko funtzionamendua garatuko dugu teknologia berriak baliatuz.

Euskarari lehenetsuna emateari dagokionez, 1996an Herritarren Batasunaren baitan eta Ezker Abertzalearen barruan abian jarri zen eta hain emaitza ona izan zuen Euskararen Plan Orokorra ardatz harturik, SORTUK lan ildo berari eutsiko dio. Helburu hori erdiesteko asmoz, SORTUK Euskararen Plan berria onartuko du. Bitartean, barrura begira bere egitura eta atal nagusi guztiek euskara hutsez funtzionatuko dute (nazio mailakoak, herrialde mailakoak, herri euskaldunetakoak eta hirietakoak) eta, ondorioz, bertako partaide guztiak euskaldunak izango dira. Zonalde erdaldunduenetako herri eta auzoetan soilik bi hizkuntzatan funtzionatuko du SORTUK. Nazio Batzarretan zonalde hauetatik datozen militanteek parte hartzeko aukera izan dezaten bitartekoak jarriko dira. Gauzak horrela, lurralde eremuak kontuan izanik, ezarritako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte bai hautetsiek, bai arduradunek eta baita kanpora begirako lan ideologikoak, komunikatiboak zein prentsa arlokoak ere. Hori horrela izan dadin, bere garaian onartu eta abian jarri zen Aholkularitza egitura berriz bideratuko dugu eta oraindik euskara ikasi ez duten militanteak horretara bultzatuko ditugu.

Garatu nahi dugun jendarte ereduarekin koherentzia, Euskal Herri independente, sozialista, euskaldun eta feminista, Sortuk, bai bere praktika politikoan bai eta barne bizitzan printzipio feministak izango ditu oinarri. Antolakuntza egitura osoan parekidetasuna helburu bezala ezarriko da eta Sortuko militante eta arduradunek koherentzia feminista barneratu eta praktikara eramango dute. Hauteskunde prozesuetan helburua parekidetasuna izango da. Era berean, ardura postuetan emakumeen ordezkartza eta parte hartzea bermatuko da, kanpo nahiz barne proiektioetan. Emakumeen sustapena bultzatuko da eta horretarako ekimen positiboak lehenetsiko dira, beharrezkoak diren neurri eta bateragarritasun irizpideak ezarritik. Horretaz gain, genero diskriminazioa gainditzeko eta militante eremuan aurrera urratsak emateko, barne transformaziorako plan bat martxan jarriko da horretarako beharrezkoak diren irizpide, neurri eta tresnez osatua. Barne plan hau; Sorturen barne bizitzan perspektiba feminista zehar-lerro gisa barneratu eta Sortu, transformazio sozialerako motorra izanik, jendartean politika feminista baten adierazgarria izan dadin jarri beharko genituzkeen neurri zehatzen ezarpena da; Sorturen egitura guztietan txertatua egongo den emakume militante feministen parte hartzeaz bermatua izango da, herri, herrialde nahiz eremu nazionalean. Hau da, Sortuk, zuzendaritza organo guztietan militante feministen sare bat osatuko duten kideak izango ditu, Barne Plan hori osatzea ahalbidetuko dutenak eta jendarteari politika feminista espezifiko bat plazaratuko diotenak. Hau lortzeko beharrezkoa da pertsona, jarrera, baldintza eta baloreak moldatzea. Sortu borroka feministan eredu izango den indar politikoa izan behar da eta hori perspektiba, kontzientzia eta praktika feminista lantzetik etorriko da, indar politikoaren barnean nahiz kanpoan. Ez da eskubide kontua, definitzen gaituen helburu estrategikoen bidea jorratzeko Sortuk daukan nahitaezko bete beharra da.

Zutik EH eta SORTUren zutabeak bi izango lirateke: 1. Aliantza politika eta honen ondorio den indar metaketa. 2. Independentzia eta Sozialismoaren aldeko borroka taktiko eta estrategikoa bermatuko duen motor Ezkertiar eta Abertzalaren sorrera. Aliantza nazion-

al horrek hauteskundeetarako kandidatura eta instituzioen kudeaketa gainditu behar ditu, nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala plano ideologikoan, masa borrokan eta borroka instituzionalean bultzatuz. Gauzak horrela, indar horiekin lana bideratzeko sortuko diren egitura bateratuetan parte hartuko du SORTUren ordezkariak (nazionaletan, herrialdekoetan, sektorialetan nahiz herrietakoetan) eta ordezkariak horiek aurrean aipatu ditugun ezaugarriak bultzatuko dituzte.

Nola ez, Zutik EHren ondorioak garatzeko orduan, funtzionamendu eta antolaketa eredu berritzeaz gain, militantziaren eredu berria ere bultzatu behar du SORTUk. SORTUko behar dugun militanteari dinamizatzaile soziopolitikoak izatea dagokio, sektore ezberdinen arteko elkarlana eta auzolana bultzatuz beti. Era berean, egon daitezkeen militantzia maila eta modu ezberdinak ulertu eta bultzatu behar ditu, ahalik eta pertsona gehieni SORTUren ateak eta parte hartzeko aukerak zabalduz. Militantzia hori kasu askotan bikoitza izango da onartuz, batez ere herri erakundeetan daudenekin lanean ari denean. Beraien erritmoak eta ideiak onartzeko prest egon behar du, herri erakundeak transmisio uhaltzat hartu gabe. Horregatik, herri erakundeen eta haien militanteen protagonismoa bultzatu behar du, haien eta SORTUren arteko harreman egokiak, ez menperatzaileak bideratuz. SORTUko militantearen lan nagusia, beraz, SORTU indartzeaz gain, herri mugimenduekiko elkarlan zabala egituratzea izango da, horretarako behar duen formazio ideologiko eta politiko osoa jasoz. Era berean, independentziaren eta sozialismoaren aldeko borrokarekiko ere koherentea izan behar du bere bizitza ereduari. SORTUko hautetsien kasuan, aurreko guztiari hautetsiek duten erreferentzialtasuna, eta kasu askotan, ardura ere gehitu behar zaio. Sortuko hautetsiek beraz, herri dinamika eta mobilizazioekin etengabe bat egingo dute, horiek bultzatu eta babestuko dituzte eta herri antolakuntza eta herritarren parte hartzea helburu duen politika instituzional herritarra, parte hartzailea eta gardena defendatu eta horrekiko jarrera koherentea izan beharko dute. Guzti horretarako, SORTUko militantearen "Barne Araudia" osatu eta onartuko da eta Berme Batzordea izango da horren betetzeaz arduratuko dena. Bertan, militanten oinarriko jarrera pertsonalez argipenak emango lirateke, eta baita militantek zein sortukideek estrukturarekin izan ditzaketen arazoez ere, hala nola SORTUren barne bizitzan parte hartzeko eskubideez.

SORTU bi kide mota egongo dira. Lehena, eta zabalena, oinarri sozialeko kidea izango da, normalean barne bizitza organizatiboan gutxi parte hartzen duena -auzo eta herri batzarretan ez bada-, baina ekimen eta manifestazioetara doana. Bigarrena, militantea izango da, SORTUko egiturari zein herri erakunde ezberdinetan iraunkorki lanean diharduena eta barne bizitza organizatiboan parte-hartze aktiboa duena. Bi kideek dute herri edo auzo batzarretan parte hartzeko eta erabakitze eskubidea; ez, aldiz, Herrialde Batzarretan, Nazio Batzarrean eta Kongresuan, bertako partaide izateko barne hauteskundeetan hautatua izan behar baita. Oinarri sozialeko kideak barne hauteskunde prozesuetan hautagai izatetik hautatu izatera pasatzen direnean, militante bilakatuko dira. SORTUren barne hauteskunde prozesuetan hautatuak izaten direnek beraien kargua SORTUren esku utziko dute beti, eta, SORTUren printzipioak errespetatzen ez badituzten edo koherentzia

puskatzen badute, SORTUko kide eta hautetsi izaera gal dezakete. Horretaz gain, kuota ordaintzen duten kideak egongo dira –oinarri sozialekoak zein militanteak izango direnak–, hauek “sortukide” izango dira eta kuota ordaintze horrek ez die inolako erabaki ahalmenik edo eskumenik emango; SORTU aurrera ateratzeko egiten den ekarpen ekonomiko gisa ulertuko da soilik.

Barne mailako demokrazia parte-hartzailea bultzatuz, SORTUko arduradun politikoak hautatuak izango dira barne hauteskunde prozesu bidez, eta lantaldeetako kideak izendatuak. Etorkizunean, kanpo hauteskundeetan aurkeztuko diren hautagai guztiak ere dagokien lurralde eremuan barne hauteskunde prozesuen bidez hautatuak izango dira. Kontrakorik esan ezean, instituzioetarako hauteskundeak zein SORTUren Kongresurakoak lau urtetik behin egiten direnez, barne zein kanpo hauteskunde prozesuen bidez hautatutako arduradunak lau urterako izendatuak izango dira, eta ardura instituzional berean gehienez zortzi urte bete ahal izango dituzte. Izendatu dituen markoak edozein unetan ken ditzake kargutik, horretarako aurreikusita dauden gertakariak emango balira. Barne zein kanpo hauteskunde prozesuak Berme Batzordeak zuzenduko ditu eta bere lana izango da prozedura horiek guztiak zehazten dituen araudia finkatzea.

Gauzak horrela, Herrialdeko Batzarretarako, Nazio Batzarretarako eta Kongresurako ordezkariak herri edo auzo bakoitzak bere batzarrean hautatuko ditu barne hauteskunde prozesuen bidez. SORTUren eratze fasean egin diren herri edo auzo batzarretan parte hartu duten kideen batez besteko kopuruaren arabera finkatuko da auzo eta herrien ordezkarritza. Kopurua 50etik beherakoa bada, ordezkari bat hautatuko da (herri edo auzoko Kontseiluko arduradun politiko gisara hautatua izan dena); kopurua 50 eta 100 artekoa bada, bi hautatuko dira (lehena, beti Kontseiluko arduradun politikoa delarik); eta 100dik gorakoa bada, hiru (lehena, beti Kontseiluko arduradun politikoa delarik). Bigarrena eta hirugarrena ez dira derrigorrez Kontseilu kideak izan behar, baizik eta herri edota auzo irizpidez hautatutakoak. Horiekin batera, beraien ordezkioak ere hautatuko dira. Guztiak lau urterako hautatuak izango dira, eta beraien kargua hautatu dituen batzarraren esku egongo da beti. Era berean, beti bete beharko dira funkturiko irizpideak, hala nola euskalduntasuna, parekidetasuna eta kuotaren ordainketa. Horiez gain, Nazio Batzarretarako soilik, herri edo auzo bakoitzeko Batzarrak, Herrialdeko irizpidearekin bost kide hautatuko ditu, Nazio Batzarretan parte har dezaten. Sorturen ondorengo Kongresutik aurrera, egitura hauetarako herri zein auzoen ordezkarien kopurua mantenduko da, baina herri eta auzo bakoitzean egongo den Sortukide kopurua oinarritzat hartuz.

Nola ez, SORTUren funtzionamenduak eta antolaketa ereduak zerikusi zuzena dute Zutik EHren garapenarekin. Bertan finkatutakoaren arabera, bi dira landuko ditugun ildoak, Gatazkaren Konponbidea eta Ezkerretik Eraikiz (Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Soziala) eta hiru dira etorkizunean garatuko ditugun borroka esparru eta molde nagusiak: Masa borroka, Borroka ideologikoa eta Borroka instituzionala. Ondorioz, aipatutako bi ildoak izango dira SORTUren antolaketa ereduaren bizkarrezurra eta beraien presentzia egitura osora

zabalduko da. Era berean hiru borroka esparru horien baitan (instituzionala, ideologikoa eta masa) landuko dira SORTUren lan ildo nagusiak.

Funtzionamendu egokirako, ezinbestekoa da proposatzen diren egituren izaera argitzea, egitura guztiek ez baitute betekizun bera. Batetik, egitura erabakitzaileak edo exekutiboak izango ditu SORTUK, bertan hautatuek soilik parte hartuko luketelarik: Toki (auzoko edota herriko) Kontseilua, Eskualde Kontseilua, Eskualdeko Batzarra, Herrialde Kontseilua, Herrialdeko Batzarra, Kontseilu Nazionala, Nazio Batzarra eta Kongresua. Tokiko Batzarrak ere izaera horretako egituren barnean kokatuko genituzke, baina berezitasun batekin: haietan parte hartzeko aukera nahi duenak izango luke, alegia, erabakitzailea izateaz gain irekia izango litzateke. Bestetik, egitura proposatzaileak izango ditu, bertan hautatuek eta izendatuek parte hartuko luketelarik: Borroka Ideologikorako Gunea (Formazioa, Barne eta Kanpo Komunikazioa eta Prentsa), Ezkerretik Eraikiz Gunea (nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala), Borroka Instituzionalerako Gunea Gatazkaren Konponbidea Gunea, Koordinazio Gunea eta Nazioarteko Gunea. Azkenik, Koordinazioa, Barne Antolaketa, Komunikazio-Prentsa eta Finantza aparatua zein Berme Batzordea, Euskararen Aholkularitza eta Parekidetasun Batzordea.

Koordinazio lanari dagokionez, bi dira ikusten diren egitura koordinatzaile nagusiak. Lehenena, akordio estrategikoen jarraipenerako indar politikoen artekoa, bertan koordinatzen direlarik beste indarrekin batera antolatu diren egitura konpartitu guztiak, estrategikoak zein taktikoak edota sektorialak. Bigarrena, epe mugatua izango duen Ipar eta Hego Euskal Herriko koordinazio gunea.

HELBURU ESTRATEGIKOEZ ETA ANTOLAKETA EREDUAK

Estrategia bat definitzerakoan 3 eremu argitu behar dira: zer, nola eta antolaketa egitura (lanen banaketa eta koordinazio mekanismoak).

Zer galderak ESTRATEGIA berari erantzuten dio eta ILDO POLITIKOETAN du plasmazioa: Gatazkaren Konponbidea eta Ezkerretik Eraikiz (Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Soziala).

NOLAK kudeaketa eredu edo tresnei erantzuten dio: Masa Borroka, Borroka Instituzionala eta Borroka Ideologikoa (formazioa + kanpo zein barne komunikazioa).

ANTOLAKETA EREDUAK ESTRATEGIARI erantzun behar dio eta ez NOLAKotasunari edo borroka moldeei. Beraz lanen banaketa ildoen baitan burutu behar da eta Ezkerretik Eraikiz arduraduna kontseiluetan izatea beharrezko ikusten da.

Aurrez aipatu bezala SORTUK 2 lan ildo garatuko ditu bere strategiaren baitan: Gatazka-

ren Konponbidea eta Ezkerretik Eraikiz (Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Soziala), Nazio Askapen prozesua bururaino eramateko 2 ildo horietan definitutako esparruetan zehaztu beharko ditugu helburuak edo lortu nahi diren emaitzak.

Emaitza edo helburu horiek lortzea SORTUK dituen palankak aktibatzen dituen etorriko da. Palanka horiek bi mailatan banatzen dira: baliabide eta ahalmenak alde batetik eta tresnak bestetik. Baliabide eta ahalmenak ditugun baliabide finantzarioek, azpiegiturek eta batez ere pertsonak osatzen dute. Tresnak aldiz Masa Borroka, Borroka Ideologikoa (formazioaz gain kanpo eta barne komunikazioa) eta Borroka Instituzionala dira.

Gatazkaren Konponbide Gunearen intereseko taldeak dira, batetik, gatazkaren oinarrian dagoen erabakitze eskubidea landuko dituztenak eta, bestetik, gatazkaren ondorioetan kokatzen diren preso eta iheslariak etxeratzeko dinamikak landuko dituztenak, atxilotetak zein epaiketak salatuko dituztenak eta desmilitarizazioa bultzatuko dituztenak.

Ezkerretik Eraikiz Gunearen intereseko taldeak dira oinarrizko eskubide sozialak, aberastunaren banaketa, lurralde antolaketa, tokiko garapen sozioekonomikoa, hezkuntza, osasuna, hizkuntza, kultura, naziotasuna, feminismoa eta aniztasuna. Talde horien baitan oinarritu behar da Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Soziala eta funkatu beharko ditugu lortu nahi ditugun helburuak edo lorpenak. Ezkerretik Eraikiz bidez, arloz arlo ezker ikuspegitik epe laburrera zein ertainera SORTUK landu beharreko politika sektorialak funkatuko ditu eta dinamizazio soziala, herri mugimenduaren sustapena eta SORTUren masa borroka –zentzu zabalean ulertuta– areagotuko ditu. Ondorioz, SORTUren jendarte mailako lan politikoaren gune zentrala izango da. SORTUren Ezkerretik Eraikiz Gunea izango da herri mugimenduaren indarra eta presentzia areagotzeko gure militantziaren lanaz arduratuko den egitura. Horretarako, gure oinarri sozialak eta militantziak herri erakundeetan parte hartuko dute eta, beharrezko denean, herri erakunde berriak sortzeko edota indartzeko lan egingo dute. Ezkerretik Eraikiz, dagokion Kontseiluaren zuzendaritzapean, lan osagarria egingo du, egitura iristen ez den toki eta gaitetara gure eraginkortasun politikoa zabalduz. Ezkerretik Eraikizekin batera lan egiten duen Sarea egitura, militantzia eta oinarri soziala lotzen dituen zilbor-heste erraldoia da.

Gauzak horrela, SORTUK jendarte mugimenduak bultzatuko ditu, baina ez ditu bere subjektu sozial propioak sortuko edota haietako batzuk bereganatuko, berriak sortzen lagundu badezake ere. SORTUK lehentasunezko harremana izango du izaera estrategikoa eta lehentasunezkoa duten herri erakundeekin, bere jardura politiko eta instituzionalaren bidez jendarte mugimenduak indartzen laguntzeko.

NOLA? HIRU BORROKA MOLDEZ

Nola ez, sartu garen fase politikoaren ezaugarriak kontuan izanik, aurrerantzean herri mobilizazioek eta masa dinamikek (Masa Borroka) inoiz baino garrantzi handiagoa izango

dute. Hori bai, ezinbestean eraberritu beharko ditugu, deszentralizatuz eta forma berriak bilatuz. Sare sozialen bidez eginiko lana indartu beharko du SORTUK. Horrek esan nahi du teorizatu eta praktikan jarri behar ditugula konfrontazio demokratikoa, desobedientzia edota intsumisioa.

Bestetik, Borroka Ideologikorako Guneak Formakuntza atala eta barne zein kanpo Komunikazioa eta Prentsa lana barnebiltzen ditu. Fase politiko berrian, Zutik EHn funkatutako norabideak inoiz baino garrantzi handiagoa ematen dio borroka ideologikoari, eta gaur arte izan dugun prentsa-propaganda binomioa osatzea eskatzen du. Borroka Ideologikoak gutxienez lau esparru izango ditu, eta horren arabera egituratu beharko da Borroka Ideologikorako Gune berria. Lana bi zutabe nagusitan banatuko da: bata, barnera begirakoa -formakuntza eta komunikazioa-; bestea, kanpora begirakoa -komunikazioa eta prentsa-. Gauzak horrela, Borroka Ideologikoak bi arduradun izango ditu, barnera eta kanpora begirakoak eta biak Kontseilu Nazionalako kideak izango dira. Gainerako egituretan ere Borroka Ideologikorako Gunearen arduradunak (barnekoa eta kanpokoak) izendatuko dira.

Borroka Ideologikoaren helburua, formakuntzaz gain, SORTUren ildo politiko orokorra zein Ezkerretik Eraikiz Gunetik egiten diren ekarpenak militantziaren baitan eta jendar-tean zabaltea eta indartzea da. Bideratu nahi dugun prozesua muturreraino eramateko, SORTUren barneko kohesio ideologikoa indartzea funtsezkoa izango da etorkizunean, baita egiten dugun lana jendartean ezagutaraztea ere. Norabide horretan, militantziaren formakuntzak garrantzi osoa hartzen du. Egungo militantzia eredu berria lantzeko, ezinbestekoa da formakuntza politikoa benetan lantzea. Horretarako, SORTUren Ikas-gunea antolatuko da, bertatik formakuntza lantzeko, liburuxkak argitaratzeko, mintegiak antolatuzeko, eztabaida foroak dinamizatuzeko, formakuntzarako sareak osatzeko... SORTU osatu ondoren, Borroka Ideologikorako Gunearen lehen lanetako bat Ikas-gune hori zehaztea izango da. Formakuntzarako lan hau egunerokotasun politikotik at bideratu beharko litzateke, Formakuntzak eskatzen duen ezinbesteko autonomiarekin.

Bestetik, Borroka Ideologikorako Guneak landuko duen beste tresna nagusia, SAREA izango da. SORTUren SARE hori, gure militantzia eta oinarri sozial osoa lotzen dituen zilbor-hes-te erraldoia da, elikadura politikorako eta SORTUren barne bizitza politikoa areagotzeko (barne kontsultak, barne eztabaidak, barne ekarpenak, barne erabakiak...) bide iraunkorra izango duena.

Komunikazioaren esparruari dagokionez, bi norabidetan garatu behar du lana SORTUK: barrura eta kanpora begira. Barrura begirako komunikazio sistema osoa asmatu beharrean gaude. Lan hori Borroka Ideologikoarekin batera garatuko du. Parte-hartzea komunikazio ariketa baino gauza zabalagoa dela jakinik, parte-hartze faltaren inguruan gure oinarri sozialaren aldetik jaso ditugun kritiken oinarrian informazio faltak parte handia hartzen duela konbentziturik gaude. Benetako parte-hartzerako eta informazio osoa jasotzeko bitartekoak abian jarriko ditugu. Lan horretan, zerikusi zuzena du barne komunikaziorako plana

garatzeak. Parte-hartzea bultzatu nahi badugu, lehenik eta behin, barne komunikaziorako sare eraginkorra antolatu behar dugu, teknologia berriek zabaltzen dizkiguten aukerez baliatuz. Kanpora begira, berriz, ohiko komunikazio euskarriak osatu behar ditugu. Kanpo komunikazioa lantzerakoan, bitarteko berriak garatuko ditu SORTUk, klasikoak baztertuko ez baditu ere, hala nola, buzoneoak, portaletakoak, kartelak, pankartak...

Teknologia berrien mundua eraginkortu behar dugu etxe barruan ere. Atal honetan zenbait aurrerapen egin ditugun arren, aurrera begira ezinbestekoa izango da tresna horiek ematen dituzten aukera guztiak optimizatzeko plangintza zehaztea. Ildo beretik, kanpo komunikaziora begira ere hutsune nabarmenak izan ditugu, egiten duguna azaltzeko gai ez baikara izan. XXI. mendean komunikazioa nola garatu behar dugun funkatzea lehentasun nagusietakoa izango da.

Azkenik, hedabideen, prentsaren esparrua dugu. Zalantzarik gabe, hori da azken urteotan gehien garatu dugun ildo. Prentsa lana borroka ideologikoaren atal gisa aztertu behar dugu, eta ondorioztatzen diren neurriak zein martxan jartzen diren proiektu guztiak bideratu. Egiten dugun lanari proiektzioa eman eta etekina atera behar diogu.

Borroka instituzionalari dagokionez, eremu instituzionalak ere garrantzi handia du. Euskal Herriak bere etorkizuna libreki erabakitzera eramango gaituen bidean, instituzioak ere gako horretan kokatu behar dira proiektu politiko ezkertiar eta abertzalearen alde indarrak biltzeko eta gure alternatiba garatzeko, beti ere masa borrokari begira, baita gure instituzioak bultzatu eta garatzeari begira ere.

Euskal Herriko beste eragile ezkertiar soberanista eta abertzaleekin indarrak bilduz, ahalik eta babes elektoral eta indar instituzional handiena lortu behar dugu, hortik ere gure proiektu politiko eta soziala errealitate bilakatzeko. Aurrerantzean SORTUk koalizioaren baitan garatuko du lan instituzional hori. Horrek ere ondorio zuzenak ditu eta, oro har, guneak ez biderkatzearen aldeko hautua egingo da (sinplifikazio eta eraginkortasun printzipioak nagusitu behar dira), koalizioaren markoen eraginkortasuna handituz.

Nolanahi ere, borroka instituzionalak beste borroken osagarria eta haiekin bateragarria izan behar du. Horretarako, lan instituzionalaren eta beste borroken arduradunen arteko harreman zuzen, iraunkor eta sendoa lortzea ezinbestekoa izango da. Norabide horretan, ezinbestekoa da SORTUren ordezkari instituzionalak egituretan txertatuta egotea, jendar-teari begira erreferentzia politikoak direlako eta SORTUren baitan oso paper garrantzitsua jokatu behar dutelako. Beraz, SORTUko kide diren hautetsiek modu aktiboan parte hartuko dute dagozkien barne egituretan, bereziki Herri Kontseiluetan alkatearen edo gutxienik zinegotzi baten presentzia bermatuko delarik. Era berean, herrialde instituzioetako (BBNN) SORTUko hautetsiek Herrialdeko Batzarraren partaide izango dira. Azkenik, Gasteiz eta Iruñeako legebiltzarkideak zein Madril edota Estrasburgoko Parlamentariak Nazio Batzarraren partaideak izango dira. Egia da beren jarduera instituzionalean koalizio

osoaren sintesia defendatu beharko dutela, baina horrek ez du esan nahi SORTUren barne bizitzan eta eztabaida zein erabaki politikoetan parte hartu behar ez dutenik. Gainerako egituretan bezalaxe, ordezkari instituzionalak barne hauteskunde bidez hautatuak izango dira etorkizunean.

Harreman iraunkorraz gain, hautetsien formakuntza politiko eta ideologiko iraunkorra ere ezinbestekoa da. Norabide horretan, hautetsiak arlo, herrialde edota instituzio moten arabera biltzeko beharra egongo da, eta ezohiko batzarren bidez egingo da hori. Izaera formalik ez dute izango eta unearen edo gaiaren arabera bilduko dira. Kasu guztietan, hausnarke-tarako edo koordinaziorako guneak izango dira, ez-erabakitzaileak beti.

SORTUk bultzatuko duen jarduera instituzionalean, herritarren nahia eta borondatea izango da erreferentzia nagusia eta berau oztopatzen duen marko juridiko-politikoa gainditzea izango da gure helburua.

SORTUren Barne Korronteei dagokienez, SORTUk ez du bere baitan Barne Korronterik onartuko. SORTUren barruan sentsibiltate edota espazio politiko ezberdinak daudela jakin arren, eta berauek SORTUren izaera aberasten dutela jakinik, sentsibiltate edo espazio hauek ez dira SORTUren egiturako osagai organikotzat joko, barne korronteak alderdietan izan ohi diren moduan. Gauzak horrela, sentsibiltate edota espazio politiko horiek ez dira bere horretan zuzendaritza organo ezberdinetan talde edota korronte antolatu modura ordezkaturik egongo eta ez dute dirurik jasoko, proposamen politiko kolektiboak egin ditzaketan arren. SORTUko kidego osoak du, SORTUkoa den heinean, SORTUren barne bizitzan, eztabaidetan, kontsultetan... parte hartzeko edota hautatua izateko eskubide bera, baina beti maila pertsonalean eta ez korronte antolatuen ordezkari gisa.

B) SORTUREN EGITUREN FUNTZIONAMENDUA

1.- TOKIKO EGITURA (AUZOA ZEIN HERRIA):

HERRI (AUZO) MAILAKO FUNTZIONAMENDUA:

SORTUren egiturak fase politiko berri honi jarri dizkiogun helburu zein ezaugarriei erantzun beharko die. Fase honetako ezaugarri edota lan tresna nagusiak aliantza politika eta indar metaketa izango direnez, sortuko ditugun egiturek zein berauek osatuko dituzten kideek horri begirako antolaketa zein funtzionamendu eredua jarri beharko dute martxan, ezinbestean. Hau oinarri hartuta, herri eta auzo guztietan Herri Kontseiluak tokiko jarduera politiko osoa planifikatu eta dinamizatu beharko du. Herri edo auzo batean egin behar den jarduera politiko guztia -borroka instituzionalari, borroka ideologikoari eta masa borrokari dagokien guztia- ahalik eta egokien egiteko eta uztartzeko oso egitura zabalak eta irekiak

behar ditugu. Gure helburu nagusietakoa konpromiso maila desberdinak hartuko dituzten ahalik eta kide gehien lanean jartzea da. Horretarako egitura malguak eta irekiak behar ditugu. Alabaina, lan politikoa eta kide bakoitzaren denbora ahalik eta gehien optimizatzeko, egitura hauetan ardura politiko guztiek taxuz definituta eta banatuta egon behar dute. Halaber, finkatuko diren lan ildoen arabera -zero zabor, fracking ez, euskara ordenantza berriak...- lantaldeen bidezko funtzionamendua ahalbidetu behar da. Herriko dinamizazio politikoa garatzeko gune desberdinak aurreikusten dira. Gune hauek, esan den bezala, malguak izango dira, herriko errealitate desberdinen arabera egokitu beharko ditugu, baina zehazten ditugun helburuak lortzeko baliagarriak izan beharko dute. Hauek izango dira guneak: Herri Kontseilua, Herriko Idazkaritza, Herriko Ezkerretik Eraikiz, Herriko Gatazkaren Konponbidea, Herriko Sarea, Herri Batzarra eta herriko koalizioaren Udalgintza taldea.

HERRI (AUZO) KONTSEILUA:

Herri Kontseiluak herri mailako jarduera politiko osoa planifikatu eta dinamizatuko du. Horretarako, herriko egoeraren inguruan ikuspegi osoa emango dioten kideez osatuko da:

- Herri Kontseiluko koordinatzailea
- Herri Kontseiluko Finantza arduraduna
- Herri Kontseiluko Komunikazio arduraduna
- Borroka Instituzionalerako Guneko arduraduna
- Herriko Borroka Ideologikorako Guneko arduraduna
- Herriko Ezkerretik Eraikiz Guneko arduraduna
- Herriko Gatazkaren Konponbiderako arduraduna

Hauek gain, gazte mugimenduko kidea, langile mugimendukoa, presoen eskubideen aldeko mugimendukoa, askatasun demokratikoen arduraduna eta herriko dinamika desberdinetako kideak (euskara, hezkuntza, ingurumena...), Herri Kontseiluko kideak izango dira, SORTUko kideek eginiko proposamenaren baitan Auzo edota Herri Batzarrak onartu ondoren. Ezkerretik Eraikiz, Borroka Ideologikoa edota koalizioaren baitan egingo den Borroka Instituzionala garatzeko ekipoak osatuko dira. Herriko (auzoko) Kontseiluak zabalak izango dira beti, herriko ikuspegi orokor hori mantendu nahi dugun heinean, baina haien osaera eta maiztasuna tokian tokiko errealitatearen, lehenetsuen... araberkoa izango dira. Kide guztiak,

HERRI KONTSEILUAREN IDAZKARITZA:

Herri Kontseilua benetan zabala baldin bada, hura dinamizatuko duen motorra behar dugu: Herri Kontseiluaren Idazkaritza, hain zuzen ere. Kontseiluaren bilerak prestatzeaz eta di-

namizatzeaz gain, bertan hartuko diren erabakiak gauzatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da. Herri Kontseiluaren Idazkaritza osatuko duten kideak konpromiso maila handikoak izango dira. Honako hauek izango dira Idazkaritzako kideak: koordinatzailea, komunikazioa, ezkerretik eraikizeko arduraduna, gatazkaren konponbiderako arduraduna, borroka ideologikorako eta borroka instituzionalerako guneetako arduradunak eta Finantzako arduraduna. Guztiak Herri Kontseiluan egongo dira. Idazkaritza astean behin bilduko da.

HERRIKO EZKERRETIK ERAIKIZ GUNEA:

Herriko Ezkerretik Eraikiz Guneko kide izango dira Herri Kontseiluko kidea den Ezkerretik Eraikizeko arduraduna eta herri mailan SORTUk garatuko dituen Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Sozialeko lan ildo nagusietako dinamizatzaileak eta herri mailako herri mugimenduetan antolatuturik dauden SORTUko kideak.

Gune honen bidez, arloz arlo ezker ikuspegitik epe laburrera zein ertainera SORTUk herrian landu beharreko politika sektorialak funkatuko ditu eta dinamizazio soziala, herri mugimenduen sustapena eta SORTUren masa borroka –zentzu zabalean ulertuta- areagotuko ditu. Ondorioz, SORTUren jendarte mailako lan politikoaren gune zentrala izango da.

Beraien ardura herri mailan egin behar den lan soziala piztea eta indartzea izango da, herri mugimenduak indartuz eta beharrezkoa denean sortuz. Beraiek dira herri mugimenduekiko harremanak garatu behar dituztenak. Hilean behin-edo bilduko da, herriko agenda soziala aztertzeke.

HERRIKO BORROKA IDEOLOGIKORAKO GUNEA:

Kanpo zein barne komunikazioaz eta borroka ideologikoz zein formakuntzaz arduratuko den gunea da. Bertako kideak izango dira Borroka Ideologikoaren arduraduna eta Komunikazio arduraduna, biak ala biak Kontseiluko kideak. Herri mailako lan bikoitza egingo dute. Batetik, SORTUk egiten duen lana komunikatzea, proiektatzea. Bestetik, SORTUko militantziari begirako barne komunikazioa, partaidetza eta formakuntza bermatzea. Horretarako herriko Sarea antolatuz. Hilean behin bilduko da.

HERRIKO KOMUNIKAZIORAKO GUNEA:

Gune honen lana SORTUk egingo duen lana kanpoan komunikatzea, proiektatzea, izango da, barne komunikazioaz Borroka Ideologikoa arduratuko baita. Hori bai, ez dugu ahaztu behar kasu askotan, gero eta gehiagotan, lan komunikatibo hori EHBilduren izenean (edota Bilduren izenean) egin beharko dugula, egitura politiko hori(ek) martxan jartzen ditugun heinean hauei lehentasuna ematea erabaki baita, aliantza politikoa eta indar metaketaren izenean. Herriko Komunikaziorako Guneko arduraduna, Kontseiluko kidea izango da. Hilean

behin-edo bilduko da.

HERRIKO BORROKA INSTITUZIONALERAKO GUNEA: UDALGINTZA TALDEA (EH BILDU)

Herrian soilik hautetsiez osatutako Udal taldeaz gain, Udalgintza taldea ere egotea proposatzen da. Lan instituzionala ezin du soilik hautetsien esku egon eta beronen jarraipena Herriko Kontseiluari ere badagokio. Edonola ere, eraginkorrak izateko, hautetsiei laguntzeko, esperientzia duen jendearen ekarpenak jasotzeko, eta udala berak ezartzen duen dinamikatik harantzago gure plangintza propioa bultzatzeko, Udalgintza taldearen beharra ezinbestekoa da. Orohar, ez da SORTUren egitura izango, EH Bildu koalizioarena baizik. Gauzak horrela, udalgintza eremuan lanean dauden SORTUko kide guztiek EHBilduren Udalgintza taldean parte hartu behar dute.

Edonola ere, eta norabidea hori izanik, tokian tokiko errealitatea oso bestelakoa izan dait-eke eta norabide orokor horrekin koherentzia izango duen bidea da jorratu beharko dena. Toki batzuetan Udalgintzako Talde bat egoteaz gain, azpi lantaldeak antola daitezke (Par-te-hartzea, hirigintza, ogasuna...), beste toki batzuetan, oraindik ere, Sortu berak bere udal-gintzako batzorde propioa izan dezake, baina trantsizio baten baitan, beti ere garbi izanik aurrera begira EHBilduren udalgintza taldea lehenestea dugula helburu. Koalizioa ez da egun batetik bestera eraikitzen, urratsez urrats osatu behar dugun egitasmoa baizik. EH-Bilduren norabidea da beraz oro har bultzatu behar duguna, eta noski, eraginkortasuna hel-buru, guneak bikoizteak dituen ondorioak ekidin behar dira.

Azkenik, Herriko Borroka Instituzionaleko Arduraduna, hots herriko udalgintza taldearen arduraduna, Herri Kontseiluko kidea izango da eta bera izango da ildo eta borroka honen dinamizatzaile eta koordinatzailea.

HERRIKO BATZARRA:

Herriko Batzarra herri mailako eztabaida eta erabaki gune nagusia da. Bertan, nazio, herri-alde, eskualde eta herri mailako erabaki nagusiak (herriko jarduera politikoa eta plangintza) hartuko dira. Gune irekia izanda, bertan gure oinarri sozialaren sektorerik ahalik eta han-dienak parte har dezan saiatuko gara. Horretarako, Herri Kontseiluak benetan baliagarriak eta eraginkorrak izatea lortu behar dugu. Deialdia eta metodologia oso ondo lantzeaz gain, maiztasuna ere zainduko dugu. Herri Kontseilua Herriko Batzarrerako ahalik eta deialdirik zabalena egiteaz eta Batzarra bera dinamizatzeaz arduratuko da. Herriko Batzarrak ez du biltzeko maiztasun zehatzik izango, baina herri eta auzo guzti-guztietan urtean lau aldiz gutxienez bilduko da.

Herriko Batzarrak, SORTUren Eratze Prozesuko hiru eztabaida nagusietan parte hartu

duen kideen batz besteko kopurua kontuan hartuta, Nazio Batzarrean –eta Kongresuan eta Herrialde Batzarrean- bat, bi edo hiru ordezkari izango ditu. Haietako bat, lehenengoa, Herri Kontseiluko koordinatzailea izango da kasu guztietan, eta bestea(k) Herriko Batzarreko kideen artean hautatuko d(ir)a. Beraien ordezkoak ere hautatu beharko dira. SORTUren ondorengo Kongresutik aurrera, egitura hauetarako herri zein auzoen ordezkarien kopurua mantenduko da, baina herri eta auzo bakoitzean egongo den Sortukide kopurua oinarritzat hartuz.

KIDE HAUTATUEN ALDAKETARAKO BARNE PROZEDURA HERRI MAILAN

Ardura guztiak barne hauteskunde prozesuen bidez hautatuak izango dira auzo/herri batzarretan. Herriko Kontseiluaren ardura izango da prozesuaren kudeaketa. Prozesuan eman beharreko urratsak 3 dira:

1. Izenak proposatzeko prozesua abiatu:
 - Herriko arduetan: herriko oinarri sozialari izenak proposatzeko bideak eta epeak jakinaraziko zaizkio.
 - Epealdi horretan hautagaien proposamenak jasoko dira
2. Proposatuak izan diren pertsonekin kontrastea egingo da ardura betetzeko beraien disposizioa galdeginez. Prestutasuna erakutsi dutenen artean hautagaitza zerrenda prestatuko da.
3. Hautagaien arteko bozketa eta ardura izendapena Herri Batzarretan

HERRI TXIKIETAKO EGITURA:

Udalerrri mailako Kontseilua proposatzen dugu. Udalerrriko auzoetako jendez osatzen saiatuko gara eta, nagusiki udal dinamikari ekingo badio ere, ez du dinamika politiko orokorra bazterrean utziko. Herri txikiak aipatzen ditugunean, 1.000 biztanletik beherako udalerriez ari gara. Askotan udalerrri horiek auzo pila batez osatuta daudela kontuan hartzeak garrantzi handia dauka. Ezinezkoa da Euskal Herriko herri txiki guztietarako baliagarria izan daitkeen funtzionamendu eredu bakarra ematea; beraz, egoera bakoitzaren arabera egokitu behar den eredia da hau. Gainera, halako herri txikietan udal gaiet buruz eztabaidatu eta erabakitzeke EH Bilduren batzarrak egingo ditugu, eta dinamika politiko orokorrari buruz eztabaidatu eta erabakitzeke eskualde mailako SORTUren batzarrak antolatuko ditugu. Proposatzen den tokiko antolaketa eredia orientagarria baino ez da kasu guztietan.

HERRI HANDIETAKO EDO HIRIETAKO EGITURA:

Herri handiei eta hiriei dagokienez, auzoetan egitura osatzen hasteko gomendioa egiten da. Kasu horietan hiriburuetako antolaketa eredia jo beharko litzateke.

2.- HIRIBURU MAILAKO EGITURA:

HIRIBURUKO FUNTZIONAMENDUA:

Hiriburu Kontseiluak jarduera politiko osoa planifikatu eta dinamizatu behar du, bertako auzoen esku-hartzearekin. Hiriburuko jarduera politiko guztia -borroka instituzionalari, borroka ideologikoari eta masa borrokari dagokien guztia- ahalik eta egokien egiteko eta uztartzeko Hiriburu Kontseiluek oso egitura zabalak izango dute, auzoetako koordinatzaileek ere bertan parte hartuko baitute. Hiriburu Kontseiluetan ere, gure helburu nagusietakoa konpromiso maila desberdinekin ahalik eta kide gehien lanean jartzea da. Horretarako egitura malguak eta irekiak behar ditugu. Alabaina, lan politikoa eta kide bakoitzaren denbora ahalik eta gehien optimizatzeko, Hiriburu Kontseilu zabal horietan ardura politiko guztiek taxuz definituta eta banatuta egon behar dute. Halaber, Hiriburu Kontseiluak finkatuko dituen lanildoen arabera -zero zabor, fracking ez, euskara ordenantza berriak...- lan taldeen bidezko funtzionamendua ahalbidetu behar da. Hiriburuko dinamizazio politikoak garatzeko gune desberdinak aurreikusten dira. Gune hauek, esan den bezala, malguak izango dira, herriko errealitate desberdinen arabera egokitu beharko ditugu, baina zehazten ditugun helburuak lortzeko baliagarriak izan beharko dute. Hauek izango dira guneak: Hiriburuko Kontseilua, Hiriburuko Idazkaritza, Hiriburuko Ezkerretik Eraikiz, Hiriburuko Gatazkaren Konponbidea, Hiriburuko Sarea, Hiriburuko Batzarra eta Hiriburuko koalizioaren Udalgintza taldea.

HIRIBURU KONTSEILUA

SORTUren hiriburuko zuzendaritza politikoak da. Estrategia orokorra hiriburura egokitzea dagokio. Lau urterako izendatuko da eta barne hauteskunde prozesuaren bidez hautatuko dira arduradun guztiak:

- Hiriburuko koordinatzailea
- Hiriburuko Kontseiluko Barne Antolaketarako arduraduna
- Hiriburu Kontseiluko Finantza arduraduna
- Hiriburu Kontseiluko Komunikazio arduraduna
- Hiriburuko Borroka Instituzionalerako Gune arduraduna
- Hiriburuko Borroka Ideologikorako Gune arduraduna
- Hiriburuko Ezkerretik Eraikiz Gune arduraduna
- Hiriburuko Gatazkaren konponbiderako arduraduna
- Hiriburuko auzoetako kontseiluko koordinatzaileak

Hauezaz gain, gazte mugimendukoa, langile mugimendukoa, presoek eskubideen mugimendukoa eta hiriburuko dinamika desberdinetako kideak (euskara, hezkuntza, ingurumena...) izango dira Hiriburu Kontseiluko kideak, SORTUko kideek eginiko proposamenaren baitan eta Hiriburuko Batzarrak onartu eta gero. Horrezaz gain, Ezkerretik Eraikiz, Borroka Ideologikoa edota koalizioaren baitan egingo den Borroka Instituzionala garatzeko ekipoak edo gaien eta ildoen araberako lan talde espezifikoak osatuko dira, lan banaketa egin behar delako borroka ildo bakoitzean. Kontseiluak zabalak izango dira, hiriburuko ikuspegi orokor hori mantendu nahi dugun heinean. Kide guztiak Herri Batzarretan hautatuak izango dira. Dena dela, egiten den proposamena orientagarria besterik ez da, hiriburuaren artean dauden ezberdintasunak kontuan izanik.

HIRIBURU KONTSEILUKO IDAZKARITZA

Hiriburu Kontseilua zabala izanik, hura dinamizatuko duen motorra izango da Idazkaritza. Idazkaritza da Kontseiluaren bilerak prestatzeaz eta dinamizatzeaz arduratuko dena, bertan hartuko diren erabakiak gauzatzeko eta koordinatzeaz gain. Hiriburu Kontseiluaren Idazkaritza osatuko duten kideak konpromiso maila handikoak izango dira. Honako kide hauek osatuko dute: Koordinazio arduraduna, Barne antolaketarako arduraduna, Komunikazioko arduraduna, Ezkerretik Eraikiz arduraduna, Gatazkaren Konponbiderako arduraduna, Borroka Ideologikoko arduraduna, Borroka Instituzionalaren arduraduna eta Finantza arduraduna. Guztiak Hiriburuko Kontseiluan egongo dira. Idazkaritza astean behin bilduko da.

HIRIBURUKO EZKERRETIK ERAIKIZ GUNEA:

Hiriburuko Ezkerretik Eraikiz Guneko kide izango dira Hiriburu Kontseiluko kidea den Ezkerretik Eraikizeko arduraduna eta hiri mailan SORTUK garatuko dituen Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Sozialako lan ildo nagusietako dinamizatzaileak eta hiri mailako herri mugimenduetan antolaturik dauden SORTUko kideak.

Gune honen bidez, arloz arlo ezker ikuspegitik epe laburrera zein ertainera SORTUK hiriburuan landu beharreko politika sektorialak finkatuko ditu eta dinamizazio soziala, herri mugimenduaren sustapena eta SORTUren masa borroka –zentsu zabalean ulertuta- areagotuko ditu. Ondorioz, SORTUren jendarte mailako lan politikoaren gune zentrala izango da

Beraien ardura hiriburu mailan egin behar den lan soziala piztea eta indartzea izango da, herri mugimenduak indartzeko eta beharrezkoa denean sortuz. Beraiek dira herri mugimenduekiko harremanak garatu behar dituztenak. Hilean behin-edo bilduko da, herriko agenda soziala aztertzeko.

HIRIBURUKO BORROKA IDEOLOGIKORAKO GUNEA:

Kanpo zein barne komunikazioaz eta borroka ideologikoz zein formakuntzaz arduratuko den gunea da. Bertako kideak izango dira Borroka Ideologikoaren arduraduna eta Komunikazio arduraduna, biak ala biak Kontseiluko kideak. Hiriburu mailako lan bikoitza egingo dute. Batetik, SORTUK egiten duen lana komunikatzea, proiektatzea. Bestetik, SORTUko militantziari begirako barne komunikazioa, partaidetza eta formakuntza bermatzea. Horretarako hiriburuko Sarea antolatuz. Hilean behin bilduko da.

HIRIBURUKO KOMUNIKAZIORAKO GUNEA:

Gune honen lana SORTUK egingo duen lana kanpoan komunikatzea, proiektatzea, izango da, barne komunikazioaz Borroka Ideologikoa arduratuko baita. Hori bai, ez dugu ahaztu behar kasu askotan, gero eta gehiagotan, lan komunikatibo hori EHBilduren izenean (edota Bilduren izenean) egin beharko dugula, egitura politiko hori(ek) martxan jartzen ditugun heinean hauei lehentasuna ematea erabaki baita, aliantza politikoa eta indar metaketaren izenean. Herriko Komunikaziorako Guneko arduraduna, Kontseiluko kidea izango da. Hilean behin-edo bilduko da.

HIRIBURUKO BORROKA INSTITUZIONALERAKO GUNEA: UDALGINTZA TALDEA (EH BILDU)

Hiriburuko zinegotizi osaturiko Udal taldeaz gain, Udalgintza taldea ere egotea proposatzen da. Lan instituzionala ezin du soilik hautetsien esku egon eta beronen jarraipena Hiriburuko Kontseiluari ere badagokio. Edonola ere, eraginkorrak izateko, hautetsiei laguntzeko, esperientzia duen jendearen ekarpenak jasotzeko, eta udala berak ezartzen duen dinamikatik harantzago gure plangintza propioa bultzatzeko, Udalgintza taldearen beharra ezinbestekoa da. Orohar, ez da SORTUren egitura izango, EH Bildu koalizioarena baizik. Gauzak horrela, udalgintza eremuan lanean dauden SORTUko kide guztiek EHBilduren Udalgintza taldean parte hartu behar dute.

Edonola ere, eta norabidea hori izanik, tokian tokiko errealitatea oso bestelakoa izan daiteke eta norabide orokor horrekin koerentzia izango duen bidea da jorratu beharko dena. Hiriburu batzuetan Udalgintzako Talde bat egoteaz gain, azpi lantaldeak antola daitezke (Parte-hartzea, hirigintza, ogasuna...) eta beste toki batzuetan, oraindik ere eta trantsizio baten baitan, Sortu berak bere udalgintzako batzorde propioa izan dezake beti ere garbi izanik aurrera begira EHBilduren udalgintza taldea lehenestea dugula helburu. Koalizioa ez da egun batetik bestera eraikitzen, urratsez urrats osatu behar dugun egitasmoa baizik. EHBilduren norabidea da beraz oro har bultzatu behar duguna, eta noski, eraginkortasuna helburu, guneak bikoizteak dituen ondorioak ekidin behar dira.

Azkenik, Hiriburuko Borroka Instituzionaleko Guneko arduraduna, hots Udalgintza lan taldearen arduraduna, Hiriburuko Kontseiluko kidea izango da eta bera izango da ildo eta bor-

roka honen dinamizatzailer eta koordinatzailea.

HIRIBURUKO BATZARRA

Hiriburuko Batzarra da hiriburuko eztabaida eta erabaki gunea da. Bertan, nazio, herrialde eta hiriburu mailako erabaki nagusiak hartuko dira, herri/auzoetako batzarren bidez hartu ezin daitezkeenean. Bertan kide hautatuek hartuko dute parte. Benetan baliagarriak eta eraginkorrak izan daitezen, deialdiari eta metodologiari dagokienez oso ondo lantzeaz gain, maiztasuna ere zainduko da.

Bestetik, horrela erabakitzen denean, Hiriburuko batzar irekia deitzeko aukera egongo da. Bertan Oinarri Sozialekoa den edonork hartu dezake parte eta izaera kontsultiboa izango du.

SORTUren hiriburuko zuzendaritzaren ildo politikoa kontrastatzeko organoa da. Bere lan nagusia hiriburuari dagozkion gai politikoak aztertzea, ildo politikoa proposatzea eta maila orokorrean zein sektorialean urteko balantzea eta hurrengo urteko aurreikuspena egitea da. Gune ireki bat izanik oinarri sozialeko ahalik eta kide gehienek parte har dezaten ahaleginduko gara.

Hiriburuko Batzarrak, SORTUk hiriburuan dituen Sortukideen kopuruaren arabera, Nazio Batzarrean -eta Kongresuan eta Herrialdeko Batzarrean- bat, bi edo hiru ordezkari izango ditu. Haietako bat, lehenengoa, Herri Kontseiluko koordinatzailea izango da kasu guztietan, eta bestea(k) Hiriburuko Batzarreko kideen artean hautatuko d(ir)á. Beraien ordezekoak ere hautatu beharko dira.

KIDE HAUTATUEN ALDAKETARAKO BARNE PROZEDURA HIRIBURU MAILAN

Ardura guztiak barne hauteskunde prozesuen bidez hautatuak izango dira auzo/herri batzarretan. Hiriburuko Kontseiluaren ardura izango da prozesuaren kudeaketa. Prozesuan eman beharreko urratsak 3 dira:

1. Izenak proposatzeko prozesua abiatu:
 - Hiriburuko arduretan: hiriburu horretako Auzoko Kontseiluei izenak proposatzeko bideak eta epeak jakinaraziko zaizkio.
 - Epealdi horretan hautagaien proposamenak jasoko dira
2. Proposatutako izenak diren pertsonekin kontrastea egingo da ardura betetzeko beraien disposizioa galdeginez. Prestutasuna erakutsi dutenen artean hautagaitza zerrenda prestatuko da.

3. Hautagaien arteko bozketa eta ardura izendapena Auzo Batzarretan

HIRIBURUEN ARTEKO GUNE EZ-ERABAKITZAILEA:

Helburua hiriburu ezberdinen arteko kontraste eta eztabaida gunea finkatzea litzateke, etorkizunean hiriburuetan izango dugun jarduera funtsezkoa izango baita SORTUren arakastan. Guztiak hiriburu izanik, eta ezberdintasunak hor izanik ere, elkarlana bideratzeko ezinbesteko tresna da honelako gunea osatzea. Beharren araberako maiztasuna izango dute bilerek.

3.- ESKUALDE MAILAKO EGITURA:

FUNTZIONAMENDUA:

Eskualde Kontseilua bi astean behin bilduko da ohikoak dituen zereginak garatzeko. Horrez gain, eztabaida politikoa egiteko ohiz kanpoko bilerak egingo ditu komenigarri iruditzen zaion bakoitzean. Eskualde Kontseilua osatzen duten kide guztiak beren herri batzarretan hautatutakoak dira, bai herrietako Koordinatzaileak eta baita parte har dezaketen herri mailako beste arduradunak (masa borroka,...). Aldiz, Eskualdeko Koordinatzailea herri batzarretan hautatuko da, Herrialde Kontseilua hautatzen denean. Herrialde Kontseiluko Borroka Instituzionalerako Guneko arduradunak izendatuko du eskualdeko borroka instituzionalerako arduraduna. Plangintza izango da oinarritzko lan tresna eta, beraz, plangintzak eskualde mailakoak direnean, martxan jartzeko unean hartu behar diren erabakiak bideragarriak izan daitezten, iraunkorki ez bada ere, zenbait kasutan eskualdeko auzo edota herrietako aparatuetako zenbait arduradunek Eskualde Kontseiluan parte hartuko dute.

ESKUALDE KONTSEILUA:

Eskualde Kontseilua SORTUren eskualde mailako ildo politikoa planifikatzeko eta dinamizatze gunea izango da. Hori izango da bere lehentasuna. Gainera, herrietako plangintzen jarraipena egingo du eta eztabaida politikoa elikatzeko gunea izango da. SORTUren eskualdeko zuzendaritza politikoa egiteko ardura izango du, beraz. Estrategia orokorra eskualdera egokitzea ere badagokio. Gainera, eskualdeko egituraren antolakunde osoaren kohesio politikoa eta herrietan sorturiko plangintzen bateratasuna bermatu behar ditu. Era berean, eskualdean dauden edo sortuko diren lan ildoak aurre egiteko ardura ere izango du; horretarako, Eskualde Kontseiluko kideekin kontatzeaz gain, Herri Kontseiluetako bestelako kideekin, hautetsiekin zein herri mugimenduetan lanean diharduten SORTUko kideekin kontatu ahal izango du. Gauzak horrela, bere funtzio politiko guztiak bete ahal izateko, gune honen osaera ez da finkoa izango.

Gutxienez honako kide hauek osatuko dute:

- Eskualde Kontseiluko koordinatzailea
- Herri Kontseiluetako koordinatzaileak
- Eskualdeko Eremu Instituzionaleko (Mankomunitate, Kontzeju, Kuadrila, Garapen Agentzia...) ordezkari-arduraduna.

Eskualde mailako lan ildoen arabera, herrietako Masa Borrokarako Guneko arduradunak, Borroka Ideologikorako Guneko arduradunak, herri mugimenduetan parte hartzen duten SORTUko kideak, gazte mugimenduko kideak, sindikalgintza arloan ari diren kideak eta irizpide politikoaren arabera kideak ere bil daitezke.

Aipaturiko eskualdeko eremu instituzionaleko ordezkari-arduradunaren zeregin nagusia eskualdeko ildo politikoa eztabaidatu eta zehazterakoan errealitate instituzional horretatik eratorri daitezkeen ildoen berri eman edo txertatzea izango da. Noski, behin eskualdeko ildo zehazterakoan beronen garapenerako beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea. Era berean, eskualdeko ordezkari-arduradun hauek udalgintzako herrialdeetako lan taldearen laguntzaile ere izango dira.

ESKUALDEKO BATZARRA:

SORTUren eskualdeko zuzendaritzaren ildo politikoa kontrastatzeko organoa da. Bere lan nagusia eskualdeari dagozkion gai politikoak aztertzea, ildo politikoa proposatzea eta maila orokorrean zein sektorialean urteko balantzea eta hurrengo urteko aurreikuspena egitea da. SORTUko eskualdeko militante guztiek osatzen dute.

KIDE HAUTATUEN ALDAKETARAKO BARNE PROZEDURA ESKUALDE MAILAN

Ardura guztiak barne hauteskunde prozesuen bidez hautatuak izango dira auzo/herri batzarretan. Herrialdeko Kontseiluaren ardura izango da prozesuaren kudeaketa. Prozesuan eman beharreko urratsak 3 dira:

1. Izenak proposatzeko prozesua abiatu:
 - Eskualdeko arduran: Eskualde horretako Herriko Kontseiluei izenak proposatzeko bideak eta epeak jakinaraziko zaizkio.
 - Epealdi horretan hautagaien proposamenak jasoko dira
2. Proposatuak izan diren pertsonekin kontrastea egingo da ardura betetzeko beraien disposizioa galdeginez. Prestutasuna erakutsi dutenen artean hautagaitza zerrenda prestatuko da.
3. Hautagaien arteko bozketa eta ardura izendapena Herri Batzarretan

Herrialdeko kontseiluak ardura bat utzi eta arduradun berria izendatu arte, behin behinean kide bat izendatzeko eskumena izango du, egituraren funtzionamenduan etendurarik egon ez dadin.

4.- HERRIALDE MAILAKO EGITURA:

FUNTZIONAMENDUA:

Herrialde mailako egiturek nazio mailaren eta herri mailaren arteko zubi lana egiteari utziko diote. Egitura arintzeko eta, batez ere, herrialdeek egin dezaketen ekarpena ahalik eta ongien gara dezaten, herrialde mailako egiturak “galbahe politikoaren” funtzioari uko egingo dio. Gauzak horrela, herrialde mailako egiturek herrialdeko lan ildoak bete-betean jorratzeari ekingo diote, jakina, eskualdeetako dinamiken jarraipena eginez eta herri eta eskualdeetako egitura guztiak olioztatuz eta elikatuz. Horretarako egitura malguak eta irekiak behar ditugu. Alabaina, lan politikoa eta kide bakoitzaren denbora ahalik eta gehien optimizatzeko, Herrialdeko Kontseilu zabal horietan ardura politiko guztiek taxuz definituta eta banatuta egon behar dute. Halaber, Herrialdeko Kontseiluak funkatuko dituen lan ildoen arabera -zero zabor, fracking ez, euskara ordenantza berriak...- lan taldeen bidezko funtzionamendua ahalbidetu behar da. Herrialdeko dinamizazio politikoa garatzeko gune desberdinak aurreikusten dira. Gune hauek, esan den bezala, malguak izango dira, herrialdeko errealitate desberdinen arabera egokitu beharko ditugu, baina zehazten ditugun helburuak lortzeko baliagarriak izan beharko dute. Hauek izango dira guneak: Herrialdeko Kontseilua, Herrialdeko Idazkaritza, Herrialdeko Ezkerretik Eraikiz, Herrialdeko Gatazkaren Konponbidea, Herrialdeko Sarea, Herrialdeko Batzarra eta Herrialdeko koalizioaren Udalgintza taldea.

Hauezaz gain, gazte mugimendukoa, langile mugimendukoa, askatasun demokratikoa, presoen eskubideen mugimendukoa eta hiriburuko dinamika desberdinetako kideak (euskara, hezkuntza, ingurumena...) izango dira Hiriburuko Kontseiluko kideak, SORTUko kideek eginiko proposamenaren baitan eta Hiriburuko Batzarrak onartu eta gero. Horrezaz gain, Masa Borroka, Borroka Ideologikoa edota koalizioaren baitan egingo den Borroka Instituzionala garatzeko ekipoak edo gaien eta ildoen araberrako lan talde espezifikoak osatuko dira, lan banaketa egin behar delako borroka ildo bakoitzean. Kontseiluak zabalak izango dira, hiriburuko ikuspegi orokor hori mantendu nahi dugun heinean. Kide guztiak Herri Batzarretan hautatuak izango dira. Dena dela, egiten den proposamena orientagarria besterik ez da, hiriburuaren artean dauden ezberdintasunak kontuan izanik.

HERRIALDE KONTSEILUA:

Herrialde Kontseiluak herrialde mailako ildo politikoa planifikatu eta dinamizatuko du.

SORTUren ildo politiko nazionala ahalik eta egokien garatzeko, Herrialde Kontseiluak herrialde bakoitzari dagozkion berezitasunei erreparatuko die. Zentzu horretan, herrialde bakoitzaren izaera edo egoera aintzat hartuz, Herrialde Kontseiluak berariazko lan ildoez SORTUren ildo politikoa osatu behar dute. Dinamizazio politikorako gunea izanda, osaera zabaleko gunea izatea proposatzen da:

- Herrialde Kontseiluko Koordinatzailea
- Herrialde Kontseiluko Koordinatzailearen ondokoa
- Herrialde Kontseiluko Barne Antolaketaren arduraduna
- Herrialde Kontseiluko Komunikazio arduraduna
- Herrialdeko Finantza arduraduna
- Herrialdeko Borroka Instituzionalerako Guneko arduraduna
- Herrialde mailako ordezkaritza instituzionala (hiru edo lau hautetsi)
- Herrialdeko Borroka Ideologikorako Guneko arduraduna.
- Herrialdeko Ezkerretik Eraikiz arduraduna
- Herrialdeko Gatazkaren Konponbiderako arduraduna
- Eskualde Kontseiluetako koordinatzaileak
- Hiriburu Kontseiluko koordinatzailea
- Herrialdeko irizpide politikoaren arabera hautatutako kideak (gazte mugimendua, langilea mugimendua, askatasun demokratikoa, presoen eskubideen aldeko mugimendukoa...).

Ahal den neurrian, Masa Borroka, Borroka Ideologikoa eta Borroka Instituzionala garatzeko ekipoak osatuko dira, lan banaketa egin behar delako borroka ildo bakoitzean. Haueez gain, herrialdeko dinamika desberdinetako kideak (euskara, hezkuntza, ingurumena...) Herrialde Kontseiluko kideak izango dira, SORTUko kideek eginiko proposamenaren baitan eta Herrialde Batzarrak onartu eta gero. Kide guztiak Herrialde Batzarretan hautatuak izango dira. Herrialdeko bozeramaleak, Herrialde Kontseiluak izendatuko ditu. Dena dela, egiten den proposamena orientagarria besterik ez da. Herrialdeko Batzordea bi astean behin bilduko da.

HERRIALDE KONTSEILUAREN IDAZKARITZA:

Herrialde Kontseiluaren Idazkaritzak Herrialde Kontseiluaren erabakiak gauzatuko eta bidaratuko ditu. Gainera, herrialdean ildo politiko nazionalaren kudeaketa finkatuko du. Horretarako, hau izango da Herrialdeko Idazkaritzaren osaera: Herrialde Kontseiluko Koordi-

natzaillea, Herrialde Kontseiluko Koordinatzailearen ondokoa, Herrialde Kontseiluko Barne Antolaketaren arduraduna, Herrialde Kontseiluko Komunikazio arduraduna, Herrialde Kontseiluko Finantza arduraduna, Herrialdeko Ezkerretik Eraikiz Guneko arduraduna, Herrialdeko Borroka Instituzionalerako Guneko arduraduna, Herrialdeko Udalgintzako arduraduna, Hiriburu Kontseiluko koordinatzailea eta bozeramaleak. Astean behin bilduko da.

HERRIALDEKO EZKERRETIK ERAIKIZ GUNEA:

Herrialdeko Ezkerretik Eraikiz Guneko kide izango dira Herrialdeko Kontseiluko kidea den Ezkerretik Eraikizeko arduraduna eta herrialde mailan SORTUk garatuko dituen Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Sozialeko lan ildo nagusietako dinamizatzaileak eta herrialde mailako herri mugimenduetan antolaturik dauden SORTUko kideak.

Gune honen bidez, arloz arlo ezker ikuspegitik epe laburrera zein ertainera SORTUk herrialdean landu beharreko politika sektorialak funkatuko ditu eta dinamizazio soziala, herri mugimenduaren sustapena eta SORTUren masa borroka –zentzu zabalean ulertuta– areagotuko ditu. Ondorioz, SORTUren jendarte mailako lan politikoaren gune zentrala izango da

Beraien ardura herrialde mailan egin behar den lan soziala piztea eta indartzea izango da, herri mugimenduak indartuz eta beharrezkoa denean sortuz. Beraiek dira herri mugimenduekiko harremanak garatu behar dituztenak. Hilean behin-edo bilduko da, herrialdeko agenda soziala aztertzeko.

HERRIALDEKO BORROKA IDEOLOGIKORAKO GUNEA:

Kanpo zein barne komunikazioaz eta borroka ideologikoz zein formakuntzaz arduratuko den gunea da. Bertako kideak izango dira Borroka Ideologikoaren arduraduna eta Komunikazio arduraduna, biak ala biak Herrialdeko Kontseiluko kideak. Herrialde mailako lan bikoitza egingo dute. Batetik, SORTUk egiten duen lana komunikatzea, proiektatzea. Bestetik, SORTUko militantziari begirako barne komunikazioa, partaidetza eta formakuntza bermatzea. Horretarako Herrialdeko Sarea antolatuz. Hilean behin bilduko da.

HERRIALDEKO KOMUNIKAZIORAKO GUNEA:

Gune honen lana SORTUk egingo duen lana kanpoan komunikatzea, proiektatzea, izango da, barne komunikazioaz Borroka Ideologikoa arduratuko baita. Hori bai, ez dugu ahaztu behar kasu askotan, gero eta gehiagotan, lan komunikatibo hori EHBilduren izenean (edota Bilduren izenean) egin beharko dugula, egitura politiko hori(ek) martxan jartzen ditugun heinean hauei lehentasuna ematea erabaki baita, aliantza politikoa eta indar metaketaren izenean. Herrialdeko Komunikaziorako Guneko arduraduna, Kontseiluko kidea izango da. Hilean behin-edo bilduko da.

HERRIALDEKO BORROKA INSTITUZIONALERAKO GUNEA:

Herrialdeko arduradun instituzionalaz gain, Udalgintza arduradunek eta Herrialdegintza arduradunak osatuko dute. Bere zeregin nagusia herrialde mailako politika instituzionalaren koordinazioa aurrera eramatea da, Herrialde Kontseiluaren eta nazio mailako ildo instituzionalaren plangintzaren baitan beti.

HERRIALDEKO BATZARRA:

Herrialdeko Batzarra herrialde mailako ildo politikoaren inguruko eztabaidarako eta erabaki nagusiak hartzeko gunea da. Herrialde Kontseiluak eztabaidatzeko proposamenak luzatuko dizkio. Herrialdeko Batzarra Herrialde Kontseilua osatzen duten kide guztiek, herrialdeko instituzioetako hautetsi eta diputatuek, herrialdeko egiturako gainontzeko kide liberatuek -hitzarekin baina bozka emateko eskubiderik gabe- eta Herriko Batzarrek hautatutako ordezkari guztiek osatuko dute. Ez du maiztasun funkorik izango, baina herrialde guztietan urtean hiru aldiz gutxienez bilduko da.

Herrialde Batzarrerako herrietako ordezkariak, SORTUK herrietan dituen Sortukideen kopuruaren arabera hautatuko dira. Bat, bi edo hiru ordezkari izan daitezke. Haietako bat, lehenengoa, Herri Kontseiluko koordinatzailea izango da kasu guztietan, eta bestea(k) Herrietako Batzarreko kideen artean hautatuko d(ir)a. Beraien ordezekoak ere hautatu beharko dira.

HERRIALDEKO KOORDINAZIO-GUNEA:

Herri eta eskualdeetako dinamika olioztatzeko, elikatzeko eta haren jarraipena egiteko, Herrialde Kontseiluko Koordinazio arduraduna eta Eskualde Kontseiluetako koordinatzaileak bilduko dira. Gune honek izaera tekniko-politikoa izango du eta astean behin bilduko da.

KIDE HAUTATUEN ALDAKETARAKO BARNE PROZEDURA HERRIALDE MAILAN

Ardura guztiak barne hauteskunde prozesuen bidez hautatuak izango dira auzo/herri batzarretan. Herriko Kontseiluaren ardura izango da prozesuaren kudeaketa. Prozesuan eman beharreko urratsak 3 dira:

1. Izenak proposatzeko prozesua abiatu:
 - Herrialdeko arduetan: Herrialde horretako Herri/Auzo Kontseiluei izenak proposatzeko bideak eta epeak jakinaraziko zaizkio.
 - Epealdi horretan hautagaien proposamenak jasoko dira

2. Proposatua izan diren pertsonekin kontrastea egingo da ardura betetzeko beraien disposizioa galdeginez. Prestutasuna erakutsi dutenen artean hautagaitza zerrenda prestatuko da.
3. Hautagaien arteko bozketa eta ardura izendapena Herrialde Batzarretan

Herrialdeko kontseiluak ardura bat utzi eta arduradun berria izendatu arte, behin behinean kide bat izendatzeko eskumena izango du, egituraren funtzionamenduan eten-durarik egon ez dadin.

5.- NAZIO MAILAKO EGITURAK:

FUNTZIONAMENDUA:

Hein handi batean, nazio mailako funtzionamendua Nazio Batzarrak –eta, ondorioz, Herriko Batzarrek- SORTUren dinamika politiko orokorrean hartu behar duen pisu espezifikoaren menpe egongo da. Gauzak horrela, nazio mailako egiturek Nazio Batzarrak erabakiak ahalik eta modurik egokienean har ditzan lan egin behar dute.

KONTSEILU NAZIONALA:

Sorturen jarduera politiko orokorra planifikatu eta dinamizatuko duen **zuzendaritza-gunea izango da**. Haren osaera honako hau izango litzateke:

- Idazkari Orokorra
- Kontseilu Nazionaleko Koordinatzailea (Lehendakaria)
- Kontseilu Nazionaleko Barne Antolaketarako arduraduna
- Kontseilu Nazionaleko Komunikazio arduraduna
- Kontseilu Nazionaleko Finantza arduraduna
- Borroka Instituzionalerako Guneko arduraduna
- Borroka Ideologikorako Guneko arduraduna
- Ezkerretik Eraikiz Guneko arduraduna
- Gatazkaren Konponbiderako Guneko arduraduna
- Nazioarteko Lan Taldearen ordezkaria
- Hiru bozeramaile nazional
- Arabako Kontseiluko koordinatzailea

- Bizkaiko Kontseiluko koordinatzailea
- Gipuzkoako Kontseiluko koordinatzailea
- Nafarroa Kontseiluko koordinatzailea
- Ipar Euskal Herriko Koordinatzailea
- Irizpide politiko nazionalaren araberako bost kide.

Guztira, hautatutako 23 lagun.

Kide guztiak auzo eta herri batzarretan hautatuak izango dira, SORTUko kideek eta egiturak eginiko proposamenaren baitan. Kontseilu Nazionalako arduradun bakoitzak bere lana garatzeko ekipoak izendatuko ditu.

Egunerokoaren gainean hamaika erabaki hartu beharko baditu ere, erabaki nagusiak Nazio Batzarraren -eta Herriko Batzarren- esku utziko ditu. Horretarako, Nazio Batzarrari eta Herriko Batzarrei proposamenak luzatuko dizkien gunea izango da. Astean behin bilduko da.

KONTSEILU NAZIONALAREN IDAZKARITZA:

Kontseilu Nazionalak egunerokoaren gainean hartutako erabakiak gauzatzeaz edo bideratzeaz arduratuko da. Idazkaritzako kideak honako hauek izango dira: Idazkari Orokorra, Kontseilu Nazionalako Koordinatzailea (Lehendakaria), Kontseilu Nazionalako Barne Antolaketarako arduraduna, Kontseilu Nazionalako Komunikazio arduraduna, Kontseilu Nazionalako Finantza arduraduna, Kontseilu Nazionalako Ezkerretik Eraikiz arduraduna, Gatazkaren Konponbiderako arduraduna, Borroka Ideologikoaren arduraduna, Borroka Instituzionalaren arduraduna eta Nazioarteko lan taldearen ordezkaria. Astean behin bilduko da.

KOORDINAZIO-GUNE NAZIONALA:

Eskualdeetako dinamika politikoa koordinatzeko, nazio mailako Barne Antolaketarako arduraduna astean behin eskualde kontseiluetako koordinatzaile guztiekin bilduko da. Bertan, eztabaida politikoa egiteaz gain, herrietako eta eskualdeetako dinamika politikoa nola operatibizatu aztertuko dute.

EZKERRETIK ERAIKIZ GUNE NAZIONALA:

Ezkerretik Eraikezen baitan, hiru izango dira eremu nagusiak: eremu soziokulturala, eremu sozioekonomikoa eta zehar-lerroko eremua. Eremu soziokulturalean parte hartuko dute,

besteak beste, Euskara lantaldeak, Hezkuntza lantaldeak, Kultura lantaldeak eta Kirol lantaldeak. Eremu sozioekonomikoan parte hartuko dute, besteak beste, Ekonomia lantaldeak, Etxebizitza lantaldeak, Nekazaritza lantaldeak, Arrantza lantaldeak, Industria lantaldeak eta Jendarte Politika lantaldeak. Zehar-lerroko eremuak Politika Feminista, Aniztasuna eta Gazteria barnebilduko ditu, besteak beste.

Ezkerretik Eraikiz Gune Nazionaleko kide izango dira Kontseiluko Nazionaleko kidea den Ezkerretik Eraikizeko arduraduna eta aurrez aipatutako eremu nagusienetako kideak. Nazio mailan SORTUk garatuko dituen Nazio Eraikuntza eta Eraldaketa Sozialeko lan ildo nagusietako dinamizatzaileak eta nazio mailako herri mugimenduetan antolaturik dauden SORTUko kideak.

Gune honen bidez, arloz arlo ezker ikuspegitik epe laburrera zein ertainera SORTUk maila nazionalen landu beharreko politika sektorialak finkatuko ditu eta dinamizazio soziala, herri mugimenduaren sustapena eta SORTUren masa borroka –zentzu zabalean ulertuta- areagotuko ditu. Ondorioz, SORTUren jendarte mailako lan politikoaren gune zentrala izango da

Beraien ardura maila nazionalen egin behar den lan soziala piztea eta indartzea izango da, herri mugimenduak indartuz eta beharrezkoa denean sortuz. Beraiek dira herri mugimenduekiko harremanak garatu behar dituztenak.

BORROKA IDEOLOGIKORAKO GUNE NAZIONALA:

Bi lan talde osatuko dira: Kanpo Komunikazioa eta Prentsa, eta Barne Komunikazioa eta Formakuntza.

BORROKA INSTITUZIONALERAKO GUNE NAZIONALA:

Borroka instituzional osoaren koordinaziorako gunea osatuko da. Gune honen helburua barne dinamizazioa eta borroka honi dagozkion gaien inguruko hausnarketa egitea izango da. Honako arduradun hauek osatuko dute.

- Borroka Instituzionalerako arduradun nazionala.
- Udalgintzarako arduradun nazionala, Udalgintza taldea dinamizatuko duena.
- Herrialdegintzarako arduradun nazionala, Herrialdegintza taldea dinamizatuko duena.
- Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetako parlamentari taldeen ordezkariak.
- Madrilgo Kongresuko lantaldearen ordezkaria.

- Europako Legebiltzarreko parlamentaria.
- Herrialdeetako arduradun instituzionalak

Arduradun hauek guztiak SORTUren Nazio Batzarraren kide izango dira, beren eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Lantalde honek Udalbiltzako eta sor litezkeen egitura instituzional berrietako lanak ere hartuko ditu bere gain. Era berean, bi izango dira lan horretaz gain osatuko diren lantalde nazionalak: Udalgintzako eta Herrialdegintzako.

NAZIOARTERAKO GUNE NAZIONALA:

Nazioarteko Harremanetarako Taldean bi lan bereizten ditugu. Batetik, SORTUK funkatzen dituen helburu eta ildoaren garapenerako nazioartean beharrezkoak dituen harreman, aliantza eta lobby lanaren kudeaketa; nazioarteko eragile ezberdinekin harremanak izan eta garatu gure ildoak indartzeko. Bestetik, SORTUK eragile politiko bezala garatu behar dituen elkartasuna, kooperazioa, internazionalismoa eta instituzioetako kanpo harreman politikak eta ekintzak, herrietatik hasi eta instituzioetaraino doazenak. Bigarren hau koalizio zabalean eta herri mugimenduekin elkarlanean egingo da. Nazioarteko Harremanetarako Taldeak nazioarteko harremanak eta elkartasuna, kooperazioa, internazionalismoa eta instituzioetako kanpo harremanen ildo politikoa zuzendu eta koordinatu behar ditu, baina bigarrena Borroka Instituzionalerako Gune Nazionalarekin harremanetan. Nazioarteko Lantaldeak ordezkaria izango du Kontseilu Nazionalean.

SORTUK EH Bildu koalizioarekin adostu beharko ditu instituzioetan elkarrekin garatuko dituzten kanpo harreman, kooperazio eta elkartasun politikak.

GATAZKAREN KONPONBIDERAKO GUNE NAZIONALA:

Kontseilu Nazionalak Gatazkaren Konponbiderako Gunea osatuko du, gatazkaren konponbidearen eremuan garatu behar duen politika eta bideratu behar dituen ekimenak prestatzeko, hori izango baita nazio mailan SORTUK garatuko dituen bost lan ildo nagusietako bat. Gatazkaren Konponbide Gunearen intereseko taldea kidera, batetik, gatazkaren oinarrian dagoen erabakitze eskubidea landuko dituztenak eta bestetik, gatazkaren ondorioetan kokatzen diren preso eta iheslariak etxeratzeko dinamikak landuko dituztenak, atxilotetak zein epaiketak salatuko dituztenak eta desmilitarizazioa bultzatuko dituztenak. Ekinbide horien gainean egongo da. Arduraduna Kontseilu Nazionaleko kidea izango da.

NAZIO BATZARRA:

SORTUren eztabaida eta erabaki gune nagusia izango da. Bertan, SORTUari dagozkion

erabaki nagusiak hartuko dira. Horretarako metodologia zainduko da, gai bakoitza Herriko Batzarretan taxuz eta denboraz eztabaida dadin.

Herrien iritzia jaso nahi denean, Herri Batzarretako bozka kopurua hartuko da kontutan. Alegia, Herri Batzarretako bozka guztien baturaren emaitza izango da kontutan hartuko dena gai baten inguruko erabakia hartzeko.

Hala ere, Kontseilu Nazionalak hala kontsideratzen duenean, Nazio Batzarrak bertan biltzen diren herrietako ordezkarien bidez erabakiak hartzeko aukera izango du, erabaki guztiak etengabe herri batzarretan aurretik erabaki gabe, horrelako funtzionamenduak dinamika politikoa izugarri motelduko lukeelako. Horrelakoetan, herri bakoitzeko ordezkariak ez dute aurretik funkturiko iritzirik izango eta bertako eztabaidaren arabera beraien iritzia emango dute erabakia ahalik eta kolektiboena izan dadin.

Nazio Batzarreko kide guztiak Herriko Batzarretan izen-abizenez hautatuak izango dira, baita hauen ordezkoak ere. Nazio Batzarrean parte hartuko dute Herri Batzarretan hautatutako ordezkariak (50 militante baino gutxiagokoak ordezkari bat izango dute –Herri Kontseiluko Koordinatzailea-; 50 eta 100 militante bitartekoak bi –bata Herri Kontseiluko koordinatzailea-; eta 100 militantetik gorakoak hiru –bata Herri Kontseiluko Koordinatzailea-), Herri Batzarretan herrialde irizpidez hautatutako 20 kidek (Ipar Euskal Herriko prozesua egin artean Hego Euskal Herriko herrialde bakoitzeko bost), Kontseilu Nazionalak, Herrialde Kontseiluek eta egiturako liberatu guztiek (azken hauek iritzia emateko aukera izango dute, baina ez dute bertan bozkatzeko aukerarik izango).

Kide hauez gain, Batzar Nazionaleko kideak izango dira, Europako Legebiltzarreko eta Madrilgo Senatuko eta Kongresuko hautetsiak, Nafarroako eta Gasteizko Legebiltzarretako ordezkariak, Ezkerretik Eraikiz, borroka Ideologikoa eta borroka instituzionalean nazio ardurak dituzten kideak (iritzia emateko aukera izango dute, baina ez dute bertan bozkatzeko aukerarik izango), eta, azkenik, EAE eta Nafarroako lehendakariak, Herrialdeko Ahaldun Nagusiek eta Aldundietako foru diputatuak (azken hauek hautetsiak ez badira izan iritzia emateko aukera izango dute, baina ez dute bertan bozkatzeko aukerarik izango).

Nazio Batzarrak ez du maiztasun zehatzik izango, baina SORTUK hartu beharko dituen erabaki nagusiak hartzeko adina aldiz bildu beharko da.

KIDE HAUTATUEN ALDAKETARAKO BARNE PROZEDURA NAZIO MAILAN

Ardura guztiak barne hauteskunde prozesuen bidez hautatuak izango dira auzo/herri batzarretan. Kontseilu Nazionalaren ardura izango da prozesuaren kudeaketa. Prozesuan eman beharreko urratsak 3 dira:

1. Izenak proposatzeko prozesua abiatu:

- Ardura nazionaletan: Herri/Auzoko Kontseilu guztiei izenak proposatzeko bideak eta epeak jakinaraziko zaizkio.
 - Epealdi horretan hautagaien proposamenak jasoko dira
2. Proposatutak izan diren pertsonekin kontrastea egingo da ardura betetzeko beraien disposizioa galdeginez. Prestutasuna erakutsi dutenen artean hautagaitza zerrenda prestatuko da.
 3. Hautagaien arteko bozketa eta ardura izendapena Nazio Batzarrean

Nazio Kontseiluak ardura bat utzi eta arduradun berria izendatu arte, behin behinean kide bat izendatzeko eskumena izango du, egituraren funtzionamenduan etendurarik egon ez dadin.

KONGRESUA

SORTUren zuzendaritza izendatzeko eta ildo politiko estrategikoa funkatzeko organo erabakitzaile gorena da. Behar berezirik ezean, SORTUK lau urtero egingo du Kongresua. Bere lan nagusia lau urtez behin SORTUren kargu nagusi guztiak izendatzea eta hurrengo lau urteetarako estrategia politikoaren aurreikuspena onartzea da. Bertan parte hartuko dute Herri Batzarretan hautatutako ordezkariak, Kontseilu Nazionalak eta Herrialde Kontseiluetako Batzordeetako kideak.

SORTU

2013ko UZTAILA

